

ttipi-ttapa



ZOZKETA / 88

HAUR, GAZTE ETA HELDU BALOIAREN BUELTAN

Eskualdeko mila kirolari baino gehiago ari dira denboraldi honetan futboleant, areto futboleant, eskubaloian eta errugbian eta horien datuak bildu ditu TTIPI-TTAPAK 30 orrialdeko gehigarri berezian. / 31




Sexualitatea ez da adin kontua

«Sexua genitalak eta egiten den praktika baino aunitzez gehiago» dela diote Iratxe Arretxea eta Itsaso Bakedano sexologoek / 8




JOSU SANTESTEBAN / NBE

Josu Sanjurjo Altzuri: «Gustura eta bakean gelditu naiz» / 19



JOSU SANTESTEBAN / NBE

Xabat Illarregi Marzol: «Barruan nuen arantza kendu dut» / 62



JOSU SANTESTEBAN / NBE

Joanes Illarregi Marzol: «Finalak sentsazio gazi-goza utzi dit» / 63



UTZITAKO ARGAZKIA

Agoteen jatorriaz Bozateko M^a Luisa Bidegain eta Aitziber Gebrianekin / 70





Eguberri on!

Data esanguratsukoak datoz, eta zurekin akordatu gara. Eguberri zoriontsua eta osasunera eta pozera beteriko urte berria opa dizugu. Urtea amaitzeko hainbat aipari egin nahi dizkizugu.

DOAKO entzumen-azterketa oso-osoa
Audifono ikusezinen proba DOAN

Gure oparirik onena: zure entzumena osasuntsu izatea

Abenduan eta urtarrilean zehar
DOAKO AZTERKETA OSO-OSOA
egin ahal izateko,
aurrez zita eskatu beharko duzu:

Entzumenaren balorazio osoa eta DOAKOA

BIDEOTOSKOPIA ETA INPEDANTZIOMETRIA BIDEZ

Audifono ikusezinen proba DOAN

  [auditekcentroauditivo.com](https://www.auditekcentroauditivo.com)

HERNANI 943 386 962
Elkano Kalea, 35

IRUN 943 633 305
Colon Pasalekua, 27 (Luis Mariano lorategiak)

BERA LESAKA

Agenda
2023-2024

ABENDUA URTARRILA

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus




<p>ABENDUA</p> <p>23 LARUNBATA</p> <p>BERA</p>	<p>IKUSKIZUNA BERAKO ZAHAR ETXEAREN ALDEKO FREESTYLE IKUSKIZUNA FUNBOX FACTORY</p> <p>17:00 Tuki Onako patiso (egunaldi txarra egiaz gero, ikazteko pilaakikua)</p>	<p>24 IGANDEA</p> <p>BERA</p>	<p>OLENTZERO ETA MARI DOMINGI</p> <p>16:00 Agerratik, Itzastik, eta Itxekastatik 3 ibilbide aterako dira.</p> <p>17:30 Herriko etxeak plazan bilduko dira denak (egunaldi txarra egiaz gero, Itzasteko pilaakikua)</p> <p>Hunabarrean helduak kalejiran ibiliko dira kantari Antolatzailea Gure Txokoak Elkarteak</p>
<p>23 LARUNBATA</p> <p>BERA</p>	<p>ARTISAU AZOKA</p> <p>10:00 LESAKA Antolatzailea Argitza Artisan Elkarteak</p>	<p>30 LARUNBATA</p> <p>LESAKA</p>	<p>MERKATU TTIKIA</p> <p>10:00 Behoko Plaza</p> <p>BORTZIRIETAKO BERTSO ESKOLAREN TALDEKAKO LEHIAKETA</p> <p>Antolatzailea Bortzirietako Bertso Eskola</p>
<p>24 IGANDEA</p> <p>LESAKA</p>	<p>OLENTZERO ETA JAOTZEN LEHIAKETA 2023</p> <p>12:00 Plaza Zaharra</p>	<p>31 IGANDEA</p> <p>LESAKA</p>	<p>URTEZAHAR EGUNA "DIOS TE SALVE"</p> <p>Herriko Kultur Etxea</p>
<p>31 IGANDEA</p> <p>BERA</p>	<p>URTEZAHAR EGUNA</p> <p>15:00 ELJIN-ELJAN 18:00 DIOS TE SALVE Antolatzailea Gure Txokoak Elkarteak</p>	<p>URTARRILA</p> <p>5 ORTZIRALEA</p> <p>LESAKA</p>	<p>ERREGE KABALGATA</p> <p>18:00</p>
<p>5 ORTZIRALEA</p> <p>BERA</p>	<p>ERREGE KABALGATA</p> <p>15:30 Drogen pajeak herriko karriletan ibiliko dira gutuzak bitan</p> <p>18:30 Drogen Kabalgata Itzasa auzatik Herriko etxeak plazara (egunaldi txarra egiaz gero, Itzasteko pilaakikua 19:00an)</p>		



NIRE TXANDA

MIEL M. ELOSEGI IRURTIA LUZE

Astoa galdu?

«Olentzero ta astoa mendira joan dira, bidean galdu eta haserretu dira». Halaxe zioen gure alaba abesten ari zen kantak. Orantzaroa astoarekin haserretu zitekeen, baina galdu? Ez dakit....

Gure osaba Ramon zena astozale amorratua zen. Soldaduskan ukuiluan astoak eta mandoak zaintzen jarri zuten eta noizbait entzun nion esaten haietxek zirela kuartelean talentu handiena zutenak. Urteak egin zituen ardibide zaharrak eta Santiago bideko zati galduak berreskuratzen. Haren lantaldean ezinbestekoa zen Balan, astoa. Ramonek zioenez sen berezia zuen galdutako bideak aurkitzeko. Horretarako aski zen norbaitek bide zati bat erakustea, eta hark tapa-tapa ederki erakutsiko zuen nondik nora zihoan. Hala berreskuratu ahal izan zituzten galdutako bide tarte luzeak. Gure gizarte moderno honek bide azkar berriak egin bai baina betiko bide mordoa galdu du. Ardibideak, ordea, kultura, natura eta mugikortasunaren aldetik ondare ikaragarria dira, ezinbestekoak larrez aldatzen duten artzaintzat, eta zaindu beharreko altxorak. Orantzaroak eta astoak, besteak beste, eskertuko dute horiek zaintzea!

«GIZARTE HONEK BIDE AZKAR BERRIAK EGIN BAI, BAINA...»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU


Pikutara probabilitateak!

Bai... Badakigu jokia ez dela errenta eta espainiar estatuko ogasunari egiten diogula jokia. Jakina da tximista batek jotzeko edo tornadoak harrapatzeko aukera gehiago ditugula; Brad Pittekin edo Julia Robertsekin ligatzea errazagoa dugula, edo lastategiko orratza edo Voxeko fedegabea topatzea xamurragoa dela. Baina... eta tokatuko balitz?

NABARMENTZEKOAK



ALAITZ REKONDO
GAI JARTZAILEA



ENERITZ ZAPIAIN
ZINEMAGILEA

Lesakarra izan zen Julio Soto bertsolariari Nafarroako txapela jantzi ziona. Hala, Nafarroako bertsolaritzaren alde egindako lana eskertu nahi izan zion Nafarroako Bertsosale Elkarteak.

Espainiako Zinema Akademiak Goya sarietarako izendatu du Eneritz Zapiain Abuin beratarrak. *La Ermita* filmean egindako lanagatik efektu berezien atalean hartu du izendapena.

GIBELERA BEGIRA



2011-11-10 · TTIPI-TTAPA · 554 zk.

Euskararen zapalkuntzari buruz liburua

Duela hamar urte argitaratu zuen orduan Leitza eta Goizuetan euskara teknikari lanean ari zen Dabid Anautek *Euskararen kate hautsiak. Hizkuntza zapalkuntzaren memoria* liburua. 1.000 orri inguruko liburuan, euskarak historian izan dituen urradurak biltzen ditu eta Euskal Memoria erakundearen bitartez argiratu zuen. Euskalgintzako hainbat kideren aitzinean aurkeztu zuen Anautek liburua eta euskararen zapalkuntzak ezaguri jakin batzuk dituela adierazi zuen egileak: «Konstante historiko bat da, oso aspaldi hasi zena, denboran iraun duena eta agortu ez dena». Hainbat lekukotzaren bidez, zapalkuntzaren kronika moduko bat osatu zuen, eta guztiari kontestua eman zion euskararen historiari buruzko hainbat atalekin.



erran.
eus



Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantza Etxeberria, Iraia Jaurena,
Irene Elizagoien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Ebekolonea,
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,
Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola,
Maitane Maritorea, Arantza
Iturralde, Arantza Gamio, Jaione
Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea
Mortalena, Jean Louis Bessonart,
Ganex Etxeberrigarai, Maialen
Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier
Zulaika.

Fundazioaren Presidentea
Paskual Rekalde
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizuela, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senperoko
udalak, Malerreko Zerbitzuen
Mankomunitatea.

2023ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi
eta Malerreka 45€
Leitza 36€
Hego Euskal Herria 50€
Ipar Euskal Herria, Europa 100€
Amerika eta Australia 152€



KOLABORAZIOAK

ANE INTXAUSTI LASARTE

Ardura afektiboa eta harremanak

Ardura afektiboa da gure ekintzek besteen emozioetan eragina dutela asumitzea. Egin edota esaten dugunak. Beste pertsonaren mundu emozionala kontuan hartzea, jakinik zurearengandik oso desberdina izan litekeela. Ardura afektiboa da beste pertsonekin eraikitzen ditugun loturek zaintza inplikatzeko dutela jakitea. Eta noski, kontuan hartzea. Garbi esatea zein diren zure intentzio eta espektatibak. Limiteak jartzea, elkar errespetatu eta ez mintzeko elkar. Eta hori gertatzean, komunikatzea. Hori dena da ardura afektiboa. Elkarrizketak izan, adostasunetara iritsi, elkar errespetatu, komunikatu. Zaindu.

Denbora eta esfortzu handia eskatzen duen lana da harreman osasuntsuak eraikitzea. Eta badirudi ez gaudela guztiok prest lana eta denbora eskatzen duen zerbait eraikitzeko. Egun dena baita hain efimeroa... Ordu pare bat irauten digute pertsonak. Egun batzuk, agian. Etengabe nekatzen gara denaz eta ez gaitu ezerk asebetetzen... Beti pentsatzen dugu zerbait hobeagoa dagoela hor nonbait, han kanpoan, zain. Gure zain. Zoriak gure bidean noiz jarriko zain. Eta gu, bitartean, bila. Bere bila. Nahiz ez jakin zehazki zer den bilatzen dugun hori. Dakiguna da aurkitu egin

«ARDURA AFEKTIBORIK GABE EZ DA HARREMAN OSASUNTSURIK»

Eta hainbeste amestutako hori bilatzen dugun bitartean... soilik gure fantasian bizi den hori bilatzen dugun bitartean, pertsonak kontsumitzen ditugu. Bidean topatzen dugun oro. Noizbait, egunen batean, asebeteko garen itxaropenean. Baina ez gaitu ezerk asebetetzen. Eta kontsumitu bezala, bazterrerara botatzen ditugu ustez zerbait hobe topatzen dugunean. Inongo gupidarik gabe. Desagertu egiten gara, ihes egiten dugu, azalpenik eman gabe. Dagokigun ardura gure gain hartu eta gertatu zaigun hura beste pertsonari komunikatzea baino errazagoa da, egia esan. Esfortzu handiegia. Denbora gehiegi.

Gainera, bikotekiderik ez badugu huts egin dugula esaten digu gizarteak. Ez garelako pertsona osoak. Laranja erdiak baizik. Eta guk sinistu egiten dugu. Eta ez da egia. Egia hemen dago: Ez da harreman osasuntsurik ardura afektiborik gabe. Esfortzurik gabe. Denborarik gabe. Benetako maitasuna ez da bilatzen. Eraiki egiten da. Elkarrizketak izanez, adostasunetara iritsiz, elkar errespetatuz, komunikatuz. Zainduz.

Honako hau esan zidan nire psikologoak azken kontsultan: terapiara etortzen diren pertsonak terapian egin behar izaten duten lanaketetako bat izaten da... terapiara etortzen ez diren pertsonak nola gestionatu ikastea.



MALEN ALTZUART ARANBURU

Asteburu honetan laurekin

Norbere burua onartzeko bertzeen onarpena behar izatea biziraupena da hein handi batean. Arriskutsua da «nik ez dut inor behar» gisako esaldiei gorazarre egitea: autonomia izatea ez da inorenganako dependentziarik ez izatea. Gizaki sozialak gara, ondokoarengan eragina dugu eta ondokoaren hitzek eta ekintzek eragina dute gugan. Hori ukaezina da. Baina noan harira.

Birritan entzunak ditut «besta bat ligatu gabe ez da besta» edo «asteburu honetan ni laurekin» gisako esaldiak. Pentsakor gelditu izan naiz. «Laurekin». Berdin du nor diren, zer sentiarazi dizuten, harreman osasuntsuak izan diren edo ez. Ekintza hor dago, eta ez da bakarrarekin izan. Laurekin izan da: lau aldiz onartu zaituzte, lau aldiz izan zara eder, erakargarri, eta, beraz, orain bai, orain kontent sentitzen ahal zara zeure buruarekin.

Kasu! Ez naiz ari ligatzeko behar hori kritikatzeko, baina geure buruarenganako onarpena osotasunean kanpo faktoreen esku uztea ez ote da arriskutsuegia? Zer bilatzen dena aurkitzen ez delarik? Autosuntsiketa ziurra! Hala ere, zer eta nola egiten dugun hausnartzea ez da garrantzitsua norbera babesteko soilik. Harreman batean ez dago inoiz pertsona bakarra, eta ondokoa(k) zaintzea ere garrantzitsua

«AUNITZ EDO GUTI LIGATZEAK EZ ZAITU ERAKARGARRIAGO EGINEN»

erantzun diola? Norbere bidegabekeriak zurrizko gertatuak ukatzea edo gertakariak gutxiestea ez da bidea, ardura/erantzukizun emozional falta da, eta baita gabezia handia ere.

Eta behin zaintzaz solastatzen hasita, ez dut afektuarekiko dugun ideia aipatu gabe utzi nahi. Sarri bereizten ditugu harreman sexu afektiboak eta sexu harremanak, eta hori ikaragarria da. Afekturik gabeko sexu harremana gehiago da kontsumoa harremana baino, eta ondorio itsusiak izaten ahal ditu. Nolatan murriztu dugu afektuaren kontzeptua maitasunaren adierazpen modu bat eta bakarrarekin nahasteraino? Afektua epe ertain-luzean gure ondoan egon direnei soilik zor diegula pentsatzen dugu; ez den zerbait dela uste dugu. Definizioak definizio, afektuak zaintzarekin du zerikusia, eta, beraz, harreman orotan garrantzitsua bada, baita intimitatean eta haren ondorenean ere.

Ez nago bakoitzak bere gorputzarekin nahi duena egitearen kontra, inondik inorat ere. Kontua da egiten dena zergatik eta nola egiten den: ligatzea eta harremanak (edozein motatakoak) izatea gauza ederra izaten ahal da, bai; beti ere benetan nahi delako eta arduraz egiten bada. Askeago eta erakargarriago ez zaitu aunitz edo guti ligatzeak eginen, zeure burua eta ondokoarena entenditzeak eta errespetatzeak baizik.

11 GALDERA LABUR

JON LARRATXEA COSCARAT LEKAROZKO GAZTEA

«Espero baino hobekiago egokitu naiz Bruselara»

Nola definituko zenuke zeure burua?

Zalantza ugari dituen pertsona, baina egunero zalantza horiei erantzuna emateko prest dagoena.

Zein dira zure zaletasunak?

Nire zaletasunik haundiena lagunekin egotea da. Urte dezentente eramaten ditut handik eta hemendik kanpoan bizitzeko, eta toki bakoitzan nagoanean beti saiatzen naiz bertako lagunekin ahalik eta denbora gehien pasatzeko.

Zein ikasketa egin dituzu?

Kazetaritza ikasi nuen Bilbon, eta graduaren barnean, Herbehereetan eta Danimarkan egon nintzen Erasmusean. Ondotik, Madrileratjoan nintzen Komunikazio Politikoan oinarritutako master bat ikasteko.

Bruselan bizi zara gaur egun. Zertara joan zinen?

Europako Parlamentuan egin nuen bekaldea, eta horren ondotik Bruselan finkatuta dagoen fundazio batek lana eskaini zidan. Aunitzik pentsatu gabe, eskaintza onartu nuen eta harat joan nintzen.

Nolako izan zen Europako Parlamentua barnetik ezagutzea?

Parlamentuak Madrilen duen egoitzan egon nintzen, baina Estrasburgoko egoitza zentralerat joateko aukera izan nuen, eta Bruselako egoitza ere bisitatu dut. Sentsazio arraroa da, telebistan ikusten dudan tokietan egon naizelako lanean eta noizbehinka, iruzurgilearen sindromea agertzen da, inguruko jendea arras prestatua baitago. Baina orokorrean,



esperientzia arras ona, bereziki aunitzetan arrotz eta gurgandik urrun sentitzen dugun instituzioa ezagutzeko.

Zertan ari zara orain?

Europar Batasuneko funtsak jasotzen dituen proiektuak kudeatzen dituen fundazio batean nago, komunikazioan.

Gustura?

Espero baino hobekiago egokitu nintzen hirira, eta orain arteko balorazioa ona da.

Zer du Bruselak Baztanek ez duenik?

Hamaika tokitako jendea ezagutzeko aukera, Baztanen ez dagoen jende mugimendua.

Eta alderantziz?

Bertako jendea nahiko indibidualista da, ez dago Baztango auzolan sentimendu hori. Nire testuinguru iduritsua duen jendearen falta dut.

Zure asmoak epe motzera?

Momentuz tarte batez geldituko naiz, Bruselak oraindik gehiago du eskaintzeko.

Eta epe luzera?

Batek daki.

Eguberri on!

1951tik
Casa Cambra
 lantzeria-etxea
 Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak
Toallak
Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Konponbiderako giltza(k)

MIKEL ILLARREGI

LEITZAKO SARE HERRITARRAREN IZENEAN

Urteetako lanari esker fase berri baten aurrean gaude euskal preso, iheslari eta deportatuen etxeratze prozesuan (sakabanaketaren eta urrunketaren amaiera, lehen gradua desagertzea...). Espetxe eskumenak EAEko administrazioaren esku daudenetik, gainera, komunikazio bidea zabalik dago, eta aurrerapauso esanguratsuak eman dira, nahiz eta ez izan beti nahiko genukeen erritmoan. Ez dugu lasaitu behar, ordea, orain da momentua datozen urteetan preso, iheslari eta deportatuen auziari aterabidea emateko; auzia konpontzeko aukera ireki da, eta baliatu beharra daukagu.

Aurrera begira, salbuespen legediaren indargabetzearen aldeko gehiengoak eraiki, eta orain arte lortutako adostasun politiko, sozial eta instituzionalean sakondu behar dugu. Horretarako *GILTZA* izanen da SAREk 2023-24 ikasturterako izango duen dinamika berriaren izena. Giltzak irekitzeko eta ixteko balio digu, eta horretan gabilta.

Oraindik, ordea, ezin izan dugu iraganaren atea behin betiko itxi. Oraindik, euskal presoaren eskubideek urratuak izaten jarraitzen baitute, eta, era berean, ez da lortu biktima guztiei bidezko tratamendua ematea. Horregatik, ezinbestekoa zaigu konponbidearen atea irekitzeko giltza bilakatzea:

1. Konponbiderako giltzak: Preso eta iheslaririk gabeko herri baterako atea irekitzeko unea da.
2. Etxerako giltzak: Eragile aktibo izaten jarraitu behar dugu.

3. Elkarbizitzarako giltzak: Sufrimendua sortzeari utzi eta elkarbizitzan oinarritutako aro berri batera eramango gaituen atea elkarrekin irekitzeko giltza izan nahi dugu.

4. Bakerako giltzak: Guztion artean eraikiko dugu hain beharrezkoa dugun bakea.

Prest egon behar dugu konponbiderako, elkarbizitzarako, biktima guztien minen errespeturako eta presoaren etxerako biderako atea irekiko dituzten giltzak gure eskuetan hartzeko.

Salbuespena gainditu nahi duen herri oso eta anitza irudikatu behar dugu, eta horretarako bi deialdi berezi ditugu. Bat, abenduaren 31n Leitzeko plazan osatuko dugun bilkura, eta, bestetik, ilbeltzaren 13an, Bilbon egingen den Euskal Herri mailako manifestazioa.

Parte hartu, zu ere nahitaezkoa zara-eta!

Trantsizio konfederatua

JOAN MARI BELOKI KORTEXARENA

Euskaldunok Gaztelarekin eta Espainiarekin izan ditugun harremanak ez dira sekulan samurrak izan. 1200. urtean Gasteiztik hasi zuten konkistatik abiatuta, sentipen garratzak soilik eragin dizkigute. Madrilekiko kateak xehatu egin nahi genituzke, baina epe motzean zail dago. Ba al da noranzko horretan urratsik egiteko beste aukerarik? Demagun Sánchez presidentek apustu estrategikoa egiten duela estatu plurinazionala osatze aldera. Demagun independentziarako trantsizio fase bat adosten dugula Euskal Herrian. Nola uztartuko genituzke biak? Federalismoa, egungo autonomia maila bera eskainiko

ligukeenez, ez dugu aski. Konfederazioaren eredura jo beharko genuke, eskuduntzen balantza gure aldera desorekatzekotan.

Konfederazioa interes berdinak defenditzeko estatu burujabek osatzen duten elkargunea da. Euskal Herria ez da estatu burujabea, baina burujabetasun osoa nahi dugu. Eta hurrengo hilabeteetan Espainiako presidentearekin negoziatu behar denez, ongi legoke eredu hori aintzat hartuta egitea. Presarik gabe, baina tinko.

Batetik, ukituko ez liratekeen Estatu mailako gaiak zehaztuko lirateke: monarkia, atzerri-politika, moneta sistema... Bestetik, euskal lurraldeen esku osorik geratuko liratekeenak: hezkuntza, osasungintza, segurtasuna, gizarte-segurantzak, euskararekiko hizkuntza-politika, langileen eskubideen kudeaketa, presoaren eskubideen bermea, kultura eta kirolaren esparruak (selektzioak barne), herritarrei kontsultak egin ahal izatea, justizia administrazioa...

Hegoaldeko lau probintziek autonomi-estatutu bakarrean elkartzeko eskubide aitortua izanen genuke. Segurtasunaren atalean, hemen bertako polizia bakarrik edukiko genuke eta armadaren kuartelak eraitsi egingen lirateke, herrialde desmilitarizatua izan nahi dugulako. Prozesuari amaiera emateko herri kontsulta egingen litzateke. Quebeci (1980 eta 1995) eta Eskoziari (2014) aitortu zitzaizkien zilegitasun berarekin.

Honela ez ginatete independentziaraino iritsiko, baina bai etxe burujabearen atariraino.

Idatzia osorik irakurtzeko: <https://erran.eus/leitzaidea/1700815295027-gutuna-trantsizio-konfederatua>

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

Zaindu maite duzun hori...

Nola erran?

'Goizean, goizetan/goizez; trenean/trenez'

Era honetako esaldietan, zenbaitetan, NON/NOIZ eta ZEREZ/NOLA kasuak nahastu egiten direla dio Euskaltzaindiak, baina aldea dago bien artean: NON/NOIZ kasuak modu edo denbora zehatza, jakina adierazten du (beraz, mugatua izan behar du); ZEREZ/NOLA kasuak, aldiz, ez du batere zehaztasunik markatzen, eta, beraz, mugagabea behar du.

Mugagabe hauek ongi daude, inespezifikoak baitira; alegia, ez dute deus mugatzen: gauzez etorri, trenez ibili, latinez mintzatu, garaiz ibili, hegazkinez joan...

Bertze hauek, ordea, une edo modu zehatz, jakin, konkretu bat adierazi nahi dutenez (espezifikoak dira), inesibo mugatua joan behar dute:

- *Gaur gauzez etorriko naiz > Gaur gauean etorriko naiz.
- *Euskara batuz solas egin dute > Euskara batuan solas egin dute (≠ Euskara batuaz hitz egin dute [(zerez/zertaz)]).
- *Zazpietako trenez etorri dira > Zazpietako trenean etorri dira.
- *Astelehen goizez etxean egiten du lan > Astelehen goizetan etxean egiten du lan.

Hartara, bi esaldiok ere aldea dute: *goizez lan egin du* ≠ *goizean lan egin du*. Adibidez:

- Txandaka lan egiten du, eta aste honetan goizez lan egin du.
- Mirenek goizean lan egin du gaur, eta arratsaldean hondartzara joan da.

Arestian aipaturiko arrazoiengatik, inesibo (NON kasu) mugatua erabili izan dira asteko egunen izenak eta hilen izenak tradizioan: astelehenean, martxoan, abuztuan...



Kalko ustelak

'*Haizea dago' edo 'Haizea dabil'?

«*Kristoren haizea dago!» erran dio batak bertzeari. Baina zuzena da? Ez, kalko desegokia da, segur aski, gaztelaniazko *hace un viento esapidetik* heldu dena. Haizea ez da egonean egoten, eta hortaz, 'haizea dabil' erabili behar da.

* Izartxoaren dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

Osatu bikoteak

ZIMIKOBERRI!	ESKERRAK EMATEN DIZKIGUTENEAN
AUNITZ URTEZ!	GOIZEAN AGURTZEAN
EZ DA ZERIK	ARROPA EDO BERTZE ZERBAIT ESTREINATZEAN
AUNITZ URTETAKO!	ZORIONAK!
EGIN DUZU LO?	NORBAIT EZAGUTZEAN

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak...



info@ttipi.eus



744 48 43 61



Ezkerrean Iratxe Arretxea Etxeberria eta eskuinean Itsaso Bakedano Moreno. Sexologoak dira eta elkarrekin hainbat tailer egiten dituzte eskualdean.

«Sexualitateak ez du adinik eta hil arte gurekin joanen da»

IRATXE ARRETKEA ETXEBERRIA ETA ITSASO BAKEDANO MORENO SEXOLOGOAK

«Norbere burua ezagutzea, zaintzea, ulertzea eta errespetatzea» da bi sexologoek ustez gakoa eta «geure burua maitatzen ikasten badugu, sexu hezkuntzako helburuak beteko ditugula» diote

G. PIKABEA BAZTAN

«Sexua bakarrak, bereziak eta errepikaezinak egiten gaituen hori da, eta sexualitatea, aldiz, bizipen subjektiboa». Efigenio Amezua sexologoaren errana mahai gainera ekarri, horixe izan da Iratxe Arretxea Etxeberria (Berroeta) eta Itsaso Bakedano Morenok (Oibar-Baztan) sexualitateaz galdetuta eman duten esplikazioa. Bata zein bertzea sexologoak dira, eta

eskualdeko herritar aunitzendako ezagunak, haur, gazte, guraso zein jubilatatu, azken boladan haiekin lanean ari baitira sexualitate tailerretan. ТТИ-ТТАРАK ere haiengana jo du, gehiago jakiteko gogoz, eta «sexua genitalek eta egiten den praktikatik harago, aunitzez gehiago dela» nabarmendu nahi izan dute. Bada argi utzi nahi izan duten bertze kontu bat ere: «sexualitateak ez du adinik, hil

arte gurekin doa». Bertzeak bertze, haurren, gazteen, gurasoen eta jubilatuen sexualitatea izan dituzte hizpide.

Nola definituko zenukete sexualitatea?

Incisex sexologia institutuan ikasita, izakiaren izate sexualaren oinarri teoriko zentrala dugu. Hau da, sexuatuak gara eta sexua gure izatea da, balore aberats bat. Garrantzitsua da sexu hitza aipatzen dugu-

nean, zein oinarri teorikotatik edota zein markotatik solastatzen garen jakitea. Efigenio Amezua dioen bezala, «sexua bakarrak, bereziak eta errepikaezinak egiten gaituen hori da. Sexualitatea, aldiz, sexuaren bizipen subjektiboa da», hau da, nola bizi dudan nire emakume izateko modu bakar, berezi eta errepikaezin hori, beti bertzeekin harremanetan. **Zuek errana da: «Sexualitatea ez da arriskua bakarrik, autoezagutza prozesu bat da». Azalduko zenukete?**

Sexuaren inguruan dantzan ibili diren hitz gehienak arriskutik, debekutik edota beldurretik sortu eta zabaldu dira. Sexologia geure burua hobeki ezagutzea, ulertzea, bertzeekin elkarbizitzea eta elkarbanatzea da. Sexologiak sexuen arteko harremanak aztertzen ditu. Berriz ere sexuaren definizioa goaz, zer ulertzen dugu sexutzat? Zer sartzen da bere barnean? **Urte luzez hitz tabua izan da. Egogorra aldatzen ari da?**

Beti ari dira gauzak aldatzen, baina oraindik lana dago egiteko, familietan, kuadriletan, ikastetxeetan... Gizartean, orokorrean. Sexuaz gehiago solas egiten hasi gara, baina kontzeptu horretan berriz ere zehaztasuna edo informazio erreala falta dugu. Sexua ez da genitalak, ezta egiten den praktika bat ere. Sexuak aunitzez gauza gehiago biltzen ditu bere barnean: harremanak, gustuak, desirak, ulermena, maitasuna eta zaintzaren lanketa...

Gai tabu izateak zer ondorio ditu?

Informazio aunitz eta ezjakintasuna aldi berean, elkarbanatze guti, beldurra, transgresioa... Agian, gaur egun ez da gai tabua, baina tabua izatearen antzeko ondorioak ekar ditzake.

Gurasoekin, gazteekin eta eskolatan ari zarete lanean. Zer lantzen duzue talde bakoitzarekin?

Taldearen beharretan eta galdereetan zentratzen gara, beraiek dira saioaren nondik norakoak zehazten dituztenak, eta guk, bitartean, sexologiaren harrietatik tiratzen dugu sakontzeko: kontzeptu teorikoak, usteak, jokaerak... Laugarren esparru arras interesgarri batekin ere hasi gara aurten Bortzirietan, jubiloteketan. Esperientzia bereziki polita izaten ari da guztiak elkarlanean aritzea. Garrantzitsua da izaki sexualak izanik, adin guztietara zabaltzea. Norentzat dira harremanak? Guztiontzat. Gauden etapan eta adinean ere badugu harremanak izateko eta elkarbanatzeko momentua eta gure sexualitate guztiz bizirik dago, agian inoiz baino aberatsago. Elkarrengandik aunitz dugu ikasteko, eta hortaz da hain aberasgarria adin guztietakoekin lanean aritzea; sexualitateak ez duelako adinik eta hil arte gure izatea, eta horrekin gure izate sexuala, gurekin doalako.

Zer da sexualitatea aipatzean burura datorkien lehenbiziko gauza?

Denetarik, hainbertze informazio eta duda ditugu... Sexologian garrantzitsua den kontzeptu bat erabiltzen da: biografia. Bakoitza bere esperientziatik

abiatzen da eta bere bizipenek, ikusi, aditu, ikasi eta bizitakoek erranahi bat ematen die gauzei. Baina erranahi horiek bertzeekin elkarbanatuz aldatuz joaten dira. Hori da politena, ez garelako estatikoak, ez dela deus estatikoa eta beti eboluzionatzen ari garela. Sexu hitza ordenatzen laguntzen dugu eta ordena horrek gure biografia eta begiradei argitasuna ematen die.

Haurrek nola ulertzen dute sexua?

Haurrek curiositatearekin eta jakin-minarekin ulertzen dute. Esplorazio garaian daude eta gehienetan gauzen erranahiak ikasten ari dira beraien erreferenteekin. Bizi diren munduaren funtzionamendua ulertzen ari dira, «debekuak», «baimenak» eta «arauak» ikasten. Kontuan izan behar dugu, aunitzetan funtzionamendu hori alderdi negatibotik enfokatzen dugula. Gorputza eta harreman kon-

tzepzioa ulertzen ari dira. Ikusten dutenarekin esperimentatzen, kuxkuxeatzen eta jostetan ibiltzen dira. Haurren sexualitateak haurren kodeak ditu.

Eta gazteek?

Izaki sexuatuaren ideia barneratzen dute. Inguruko bertze pertsonekin, mugekin eta arauekin mugitu behar dutela oharitzen dira. Hormonen garapenak bakoitzaren sexualitatean eragina du. Identitate sexua- →

Gerizpe proiektuarekin buru-belarri

Sexologoak dira Iratxe Arretxea Etxeberrria (Berroeta, 28 urte) eta Itsaso Bakedano Moreno (Oibar-Baztan, 31 urte), eta bertze hainbat proiekturen artean, Gerizpe programarekin dihardute gaur egun, «landa eremura sexologiaren jakintza hurbiltzeko» helburuarekin. Batak bertzeari egindako proposamenetik sortutako egitasmoa izan da, eta irri artean onartu dute «ligatze kontu» baten ondorioa izan zela; Baztango ostatu batean Bakedanok Arretxeari elkarrekin zerbait sortzea proposatu zion, eta bertzeak «atsegin handiz» baiezkoa eman zion. Kontatu dutenez, «ez genuen elkar ezagutzen, nahiz eta bion arteko lagunak izan. Ligatzen denean beza-la, inoiz ez dakizu noraino ailegatuko den abentura eta ia konturatu gabe, bikote profesional bihurtu gara».


Gaur egun, eskualdeko gizarte zerbitzuekin, ikastetxeekin, profesionalekin eta gurasoekin elkarlanean ari dira eta «esperientzia bereziki polita» izaten ari dela gaineratu dute.

Nor da nor?

Arretxea, lanbidez, gizarte langilea eta sexologoa da, eta, alde batetik, «dolu migratorioa eta familia berrelkartzeko prozesuetan gazteekin eta familiekin» aritzen da, eta



Bakedano oibartarra da baina «Baztanenganako maitasun handia» du.



Arretxea berroetarra da.

bertzetik, «sexologia tailerrak eta saioak» ematen ditu haurrekin, gazteekin, nerabeekin, profesionalekin eta adinekoekin.

«Curiositateak» bultzatuta hurbildu omen zen sexologiaren mundura: «Berez, tabu edota ezjakintasun aunitz duen gaia da, baina burutik eta zure izatetik kendu ezin duzuna. Diskordantzia horrek mila galdera sortzen zituen nire

barnean, eta galdeka eta solasean hasitakoan gibelean zegoen jakintza guztiaren berri izan nuen». Aitortu duenez, «geroztik ez diot ikasteari utzi».

Bakedano, berriz, lanbidez hezitzailea da eta sexologiko proiektuarekin uztartzen ditu hainberzte maite dituen bi alor: «Hezkuntza ez formala eta sexologia». Berak dakiena partekatzeko ikastaroak, hitzaldiak, formazioak... ematen ditu.

«Betitik» gustatu omen zaizkio «personaren biografiak, baita euren arteko istorioak eta abenturak ere». Hala, «gazte-gaztetatik hasi nintzen sexologiako ikastaroak hartzen, aisialdiko taldeetan ikasten nuena praktikan jartzeko». Gisa honetara «poliki-poliki mundu eder eta dibertigarri honetan murgilduz joan naiz». Gaur egun ere, «etenik gabeko formazioarekin» segitzen duela jakinarazi du.

→ la edota desiraren orientazioa kuestionatzen hasten dira, bakoitzaren gustuen eta ahalmenen ezagutza prozesuan sartzen dira. Gazteengandik ere aunitz dugu ikasteko. Gu ere gazte izan gara eta guk ere bizi izan ditugu antzeko esperientziak eta egoerak. Gazteak ez dira burugabeak, gazteek elkarbanatu eta informazioa nahi dute. Kuriositatea dute eta hori mantentzea edota hori garatzeko espazioa izatea guztiz baliotsua da.

Zein dira gurasoen kezka nagusiak?

Gurasoak ere ikasten ari dira. Kuriositatea garatzea gakoa da, bizitza osoan hori ez galtzea garrantzitsua da. Nork erakusten digu heldu izaten? Eta zer da heldu izate hori? Nork erakutsi digu guraso izaten? Nork ez ditu dudak, beldurrak eta ezinegonak?

Eta jubilatuek zer diote?

Jubilatuekin ere sexualitatea tailerretan lantzen dugu, beraien parte hartzea sustatuz. Beraien galderei eta bizi izan dituzten bizipenei buruz solastatzen gara. Bortzirietan izan dugun esperientzia ikusita, batez ere agian inoiz kontatu ez dituzten abenturak eta pasarteak aipatzen dituzte. Bertzeak bertze, bikoteen edo pertsona beraren eraldaketa prozesuez aritu izan gara; familia berreraikitzeak, dolu prozesuak, maitasun berriak, ilusioak... Bertze abentura batzuen artean, nola ligatzen zuten eta zer estrategia zuten ligatzeko, harremanak nola izaten zituzten... kontu-kontari ibili gara. Sexualitateak ez du adinik, jaiotzen garenetik hiltzen garenera arte gertatzen den prozesua da, eta haiek ere gauza aunitz dituzte kontatzeko eta batez ere, testigantzen bitartez bizipenak berriz bizitzeko. Bertzalde, Berako Uxane zentroan ere izan gara. Aunitzetan aniztasun funtzionala edo bertze gisako aniztasunak dituztenei sexualitatea ezeztatu egiten diete, baina sexua anitza da. Mankomunitateek lan handia egin dute eta horri esker sexualitate aldetik arrunt



Iratxe Arretxea eta Itsaso Bakedano Etxalarko Larraburua elkarrean egindako sexualitate tailerrean. UTZITAKO ARGAZKIA

aberatsak diren espazioetara ailegatu gara.

Zer mezu ematen duzue?

Norbere burua ezagutzea, zaintzea, ulertzea eta errespetatzea gure ustez gakorik garrantzitsuena da eta aldi berean, lanik handiena ematen duena. Bide horretan, geure burua maitatzen ikasten baldin badugu, sexu hezkuntzako helburuak beteko ditugu. Ez da lan erraza eta horretan ari gara, bertzela sexologok ez genuke lanik izanen [kar, kar, kar]. Txantxak alde batera utzita, norbere burua ezagutzen, ulertzen, zaintzen eta errespetatzen baldin badugu, ondoan ditugun haurrekin, gurasoekin, bikotekidearekin, senideekin, lagunekin, bizilagunekin, auzokideen eta abarrekin osasuntsuagoa izanen da harremana.

Haurrek eta nerabeek hartzen duten sexu heziketa egokia da?

Sexuaren baloreak ikastetxeetan eta etxeetan txertatzeko geroz eta kontzientzia gehiago dago. Badugu informazioa eta gazteei informazio hori ordenatzen eta larrialdirik edota arriskurik ez den bideetatik ematen laguntzea guretzat arras garrantzitsua da. Sexuaren informazioa galderak erantzutea baino gehiago galderak sortzea dela erranen genuke. Sexua balore bat da, ideiz

josia dagoena, hausnarketarako gaia eta aunitzetan erantzun zehatzik gabeko galderak sortzen dituena. Gaur egun, urgentziarako jendartean bizi gara eta erantzunak berehala nahi ditugu, baina hori erelendu behar genuke. Batzuetan hausnarketa bidez galdera gehiago izatea eta galderak geure kabuz erantzutea ez ote da aberatsagoa? **Nolako izan beharko luke sexu heziketa egokiak?**

Nola landu beharko genukeen sexualitatea? Gure ustez, haurrek eta gazteek sexologiaren inguruko ikasgai bat beharko lukete, autoezagutza eta harremanen aberastasuna sustatzen dituena. Eta gure sarean edo inguruan galdetzea ere garrantzitsua da, aunitzetan antzeko kezak eta pentsamenduak izaten baititugu, baina ez ditugu aipatzen. Bizitza osoan lantzen ahal ditugu sexualitatea eta harremanak. Gu ez gara duela hamar urteko emakume hura eta hemendik hamar urtera ez gara orain garena izanen.

«GAKOA DA GEURE BURUA EZAGUTU, ZAINDU, ULERTU ETA ERRESPETATZEA»

Zergatik ez erakutsi hori ttikitatik? Gorputzaren aldaketak, etapa aldaketak, gustuen eta desiren bilaketa, ezetzen kudeaketak... Mila gauza ditugu ikasteko eta bertzeengandik ikasteko.

Haurrek eta nerabeek gero eta pornografia gehiago kontsumitzen dutela diote ikerketek. Zer diozue?

Bai, hala da, eta pornoarekin alarma handia sortu da gaur egun. Baina gizartean ditugun bertze gai aunitz ere kezkarriak dira: teknologia, indarkeria, zapalkuntza, arrazakeria... Gure ustez hezkuntza digitalaren garrantzia azpimarratzekoa da. **Zergatik uste duzue hasten direla pornoa ikusten?**

Eskura dutelako eta kanpoan elkarbanatzeko eta galdetzeko aukerarik ez dutelako. Aunitzetan zerbait ez dakigula errateak gordeka hori bilatzea dakar. Internetera konektatzeko hainbat gailu dituzte eskura gaur egun, eta klik bat eginez batzuetan sartzeko aukera dute eta erreferentziatzat izateko. Arazoa ikusten dugun hori egin behar dela uste dugunean sortzen da. Beharrek gure nahiak itzaltzen dituzte eta aunitzetan esploratu beharrean irudi batekin gelditzen gara. Gehiengintan ezjakintasunaren eta tabu horren ondorioa da.



**IRURITA
RUBIO**
HORTZ KLINIKA

LEHEN MAILAKO HORTZ-INPLANTEAK.

BERRESKURATU IRRIBARREA
ETA BIZI-KALITATEA.

Inplantologia soluzio bikaina da galdutako edo kendutako hortz bat, batzuk edo guztiak konpontzeko.

Zehazki, inplante bat torioju formako titaniozko pieza teki bat da, maxilarrean edo masalezurean jartzen dena, falta den hortzaren erroa ordezkatzeko. Horren gainean, neurria egindako protesi finko bat jartzen da.

Hartara, pazienteak berriro murtzikatu, irribarre egin eta normaltasun osoz hitz egin ahal izanen du, bere hortzekin sentitzen zuen segurtasun bera sentituz, eta, beraz, bere bizi-kalitatea itzuliko zaio.

FINANTZATU ZURE TRATAMENDUA INTERESIK GABE

WWW.CLINICADENTALIRURITARUBIO.ES



GURE TRATAMENDUAREN ONURAK:

- Irribarrearen funtzionaltasun estetiko, fonetiko eta murtzikatzekoa berreskuratzen ditu.
- Edozein elikagai mota jateko aukera ematen du.
- Inplanteak hortz naturalak bezala sentitzen dira.
- Bizi-kalitatea hobetzen du.
- Ez da hezurrik gailtzen.
- Zahartze-ibxura gubitzen du.
- Konfiantza osoz murtzikatu eta irribarre egiten ahal da.
- Aho-errehabilitazioko tratamendurik estetiko eta erosoena da.
- Inplanteen materiala organismoarekin biobateragarria da.
- 30 urtetik gorako esperientzia duten espezialistak.
- Neurria egindako finantzaketa, interesik gabe.

☎ (+34) 618 480 553 ☎ (+34) 948 450 267

✉ recepcion@clinicadentaliruritarubio.es

📍 Rosa Seminario 18, 1º. 31740 Donztebe

Urte berria,
falta direnak gogoratzeko
eta bizitza ospatzeko unea.

2024 zoriontsua!



IZARRA
TANATORIO

TANATORIOAK

ELIZONDO • ARANTZA • BERA • IGANTZI • DONEZTEBE

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com



Areson ez zuen inork eman botoa. E. IRAOLA



Arantzan parte hartzea % 68,6koa izan zen. G. PIKABEA

Arantzan, Eratsunen eta Zubietan udalak osatuak

Areson eta Urrozen hutsik utzi dituzte hautetsontziak eta Aulki Zuriak taldeak ez du boto bat bera ere hartu. Narbarten, berriz, kontzejua desagertzeko arriskuan egon daitekeela ohartarazi du egungo alkateak

TTIPI-TTAPA

Airean zeuden borts herritatik hirutan udalak osatu dituzte. Arantzan, Zubietan eta Eratsunen egin dute; Areson eta Urrozen, berriz, kudeaketa batzordea osatzeko esperoan gelditu dira.

Maiatzean zerrendarik aurkeztu ez zen herrietan, hauteskunde eguna izan zuten azaroaren 26a. Areson eta Urrozen, adibidez, Aulki Zuriak estatu mailako mugimenduak baino ez zuen zerrenda aurkeztu, baina herritarrek botorik ez ematea erabaki zuten. Arantzan, berriz, EH Bildu erraz gailendu zen eta zazpi ordezkariak bereganatu zituen. Hala, Xatur Larralde da alkate. Zubietan, berriz, Ernesto Dominguezek segitzen du alkatetzan, baina bere taldeak ordezkari bat galdu du. Azkenik, Eratsunen Pausoz Pauso taldeko hautagaiek lortu dute ordezkari bat eta Nagore Eskudero da alkatea. Abenduaren 16an osatzekoak zituzten udalbatzak.

Areson eta Urrozen botorik ez

Hauteskunde egunean, hutsik gelditu ziren hautetsontziak

Areson eta Urrozen. Areson 210 herritarrek zuten botoa emateko aukera, eta Urrozen 145 lagunek, baina, batean zein bertzean, herritar bakar bat ere ez zen agertu botoa ematera. Hala, bi kasuetan kudeaketa batzorde bat osatu beharko dute eta Nafarroako Gobernuari dagokio batzorde hori osatzeko prozesua abiatzea. Areson herritarrek batzordea osatzeko bilerak hasiak dituzte.

Arantzan EH Bildu nagusi

EH Bilduko Xatur Larralde Ibarrola izanen da ondoko lau urteetan Arantzako alkate, eta hala, azken lau urteetan aginte makila izan duen Dabid Iturria Almandozen lekukoa hartu du. EH Bildu eta Aulki Zuriak taldeak aurkeztu ziren hauteskunde partzial hauetan Arantzan, baina EH Bildu erantzutzaile izan dira zazpi zinegotziak. EH Bilduk botoen % 96 lortu zituen parte hartzea % 68,6koa izan zen hauteskundeetan.

Eratsunen Pausoz Pauso

Maiatzean ez zen zerrendarik aurkeztu Eratsunen, baina bi-

garren deialdian, bi osatu zituzten, bata zein bertzea herritarrekin osatutakoak: Pausoz Pauso eta Saiatu. Zerrenda irekia izanik, herritarrek hautagaiei eman zieten botoa eta Pausoz Pauso taldeko ordezkariak izan ziren boto gehien eskuratu zituztenak. Hala, bereak dira borts ordezkariak udaletxean eta alkatea Nagore Eskudero Baleztina da. Bertzalde, bada aipatzeko bertze datu bat: parte hartzea altua izan zela: % 85,93koa.

Zubietan bat guttiago

2015etik Zubietako alkatea da Ernesto Dominguez Olea, eta bertze lau urtez segituko du. Hala ere, bere taldeak ordezkari bat galdu du eta seirekin gelditu da, Aulki Zuriak taldeak ordezkari bat lortzeko adina boto lortu baitzuen. Edozein moduz, azken horrek kargurik ez zuela hartuko errana zuen. Gainerakoan, abstentzioa altua izan zen, erdiak ere ez baitziren hurbildu botoa ematera. Zehazki, abstentzioa % 51,12koa izan zen, duela lau urte baino hamabi puntu altuagoa.

Narbarten arriskuan

Kontzejuetako hauteskunde eguna ere izan zen azaroko azken igandea. Eskualdean Narbartekoa zen osatu gabe zegoen kontzeju bakarra, baina bigarren deialdian ere ez zen inor aurkeztu. Ez da kontu berria. Egoitz Gamio alkateak ТТИPI-ТТАРАИ kontatu dionez, duela zortzi urte hasi zuen bere taldeak agintaldia. Orduan ere ez zen zerrendarik atera lehenbiziko deialdian, eta bigarrenean aurkeztu ziren. «Lau urte eginda gauza bera pasatu zen». Aurten, ordea, ez da inor aurkeztu ez lehenbizikoan, ez bigarrenean.

Hala, Gamioren arabera, «Nafarroako Gobernuak gutun bat bidaliko digu, agintean segitzeko eskaintza eginez. Ezezkoa emanez gero, haiek egingen dute batzorde kudeatzailea, herriko borts lagunak osatuko dutena. Ez dituzte ausaz aukeratu, kargu hartzeko prest daudenak bilatuko dituzte». Hala ere, horrek ondorioak izan ditzakeela ohartarazi du: «2027an, hurrengo hauteskundeetan, berriz ere inor aurkezten ez bada, NARBARTEN kontzeju gisa desagertuko da».

Informazio gehiago:



ARANTZA

Zazpi ordezkariak lortu ditu EH Bilduk eta Xatur Larralde Ibarrola da alkatea



EH BILDU
Xatur
LARRALDE IBARROLA



EH BILDU
Leire
MITXELENA



EH BILDU
Igor
UGALDE



EH BILDU
Ana
MAEZTU



EH BILDU
Andoni
MITXELENA



EH BILDU
Itziar
AROZENA



EH BILDU
Julen
OSKOZ

7 HAUTETSI | ZENTSOA: 474

	2019	2023
EH Bildu	7 270	7 311
Aulki Zuriak	0	4
Baliogabeak	22	1
Zuriak	57	9
Boto emaileak	349	325
Abstentzioa	% 27,44	%31,43

ZUBIETA

Ernesto Dominguezek segituko du alkate izaten baina bere taldeak ordezkari bat galdu du



HERRIKO TALDEA
Ernesto
DOMINGUEZ OLEA



HERRIKO TALDEA
Ezekiel
LOIARTE



HERRIKO TALDEA
Martxel
ELIZALDE



HERRIKO TALDEA
Ainhoa
MINDEGIA



HERRIKO TALDEA
Pedro Hilario
SANTESTEBAN



HERRIKO TALDEA
Txomin
HUALDE



AULKI ZURIAK
Daniel
LIZARRALDE

7 HAUTETSI | ZENTSOA: 223

	2019	2023
Herriko Taldea	7 101	6 86
Aulki Zuriak	1	19
Baliogabeak	15	2
Zuriak	27	2
Boto emaileak	143	109
Abstentzioa	% 38,89	%51,12

ERATSUN

Pausoz Pauso taldeak gidatuko du udalbatza eta Nagore Eskudero Baleztena izendatu dute alkate



PAUSOZ PAUSO
Nagore
ESKUDERO BALEZTENA



PAUSOZ PAUSO
Raquel
TELLETXEA



PAUSOZ PAUSO
Ana Isabel
MARIEZKURRENA



PAUSOZ PAUSO
Nekane
BENDOIRO



PAUSOZ PAUSO
Patxi
MARIEZKURRENA

5 HAUTETSI | ZENTSOA: 135

	2023
Pausoz Pauso	
Nagore ESKUDERO	64
Raquel TELLETXEA	63
Ana Isabel MARIEZKURRENA	52
Nekane BENDOIRO	46
Patxi MARIEZKURRENA	57
Saiatu	
Iñaki ESTANGA	38
Juan Mari GRAZENA	42
Mari Jose MITXELENA	14
Ibai MITXELENA	38
Goizeder MINDEGIA	28
Baliogabeak	3
Zuriak	1
Boto emaileak	116
Abstentzioa	%14,07

«Herritarrak izanen dira erabakiak hartuko dituztenak»

AINHOA LANZ ORTEGO BIXTUBERA ENERGIA KOOPERATIBAKO LEHENDAKARIA

Heldu den urtean bi proiektu garatu nahi dituzte BixtuBera kooperatibako kideak: aholkularitza zerbitzua ezartzea eta eguzki instalazio fotovoltaiko kolektibo bat martxan jartzea

A. LARRETxea

Udaberrian hasi eta udazkenean eratu zuten ofizialki BixtuBera Energia Berriztagarrien Komunitatea eta kooperatiba. Udala izan da bultzatzailea, eta herritarrek hartu dute orain gidaritza. Prozesuan hasieratik murgilduta ibili da Ainhoa Lanz Ortego, eta bera izanen da heldu den urteetan kooperatibako lehendakaria. Indartsu hasi dute bidea, eta urte bukaerarako 100 bazkideren langa gainditzeko helburua ezarri dute.

Zer da Energia Berriztagarrien Komunitate bat?

Energia Berriztagarrien Komunitate bat entitate juridiko

bat da. Bertan, energiarekin lotutako gaiak lantzea eta kudeatzea bilatzen da, beti ere energia berriztagarriak izanik. **Nolako izan da Berakoa sortzeko prozesua?**

Hasieratik prozesua parte hartzailea eta dinamikoa izan da. Hasieran helburua herritarrak informatzea izan da. Pixkanaka-pixkanaka parte hartzaileak ahalduz joan dira eta aktiboki parte hartzen joatea bilatu da. Prozesuaren helburua da energia berriztagarrien komunitatea herritarrek garatu izana izatea eta hemendik aitzinera ere herritarrak izatea erabakiak hartuko dituztenak.

Hasieran Elhuyarren eta Goienerren laguntza ere izan zenuten.

Prozesu hau gidatzeko gidaritza behar da. Alde batetik informazio tekniko minimo bat behar duzulo; kooperatiba bat eratu behar duzu, horren barrenean egin behar dituzun ekintzak energia arloarekin lotuta daude eta aunitzetan ez dugu zertan jakintza hori izan eta kanpoko aholkularitza behar duzu zertan oinarritu jakiteko. Eta bertalde, behar duzu norbait dinamizatuko dituenak bilerak, parte hartzea modu pasibotik aktibora pasatzeko. Horregatik egon dira bi entitateak gurekin.

Gaur egun herritarrak dira kooperatibaren arduradunak?

Bai. Goiener eta Elhuyarren parte hartze aktiboa bukatu da. Hemendik aitzinerakoak guri dagozkigu. Baina hor jarraituko dute, batez ere Goienerren babesa behar dugulako aholkularitza kontuei dagozkionez. Presente daude, baina, erabat bertze neurri batean.

Zenbat bazkide zarete gaur egun?

Ofizialki kooperatiban 29 bazkide gara, oraindik erregistroko azken fasea lantzen ari garelako. Hala ere, dagoeneko izena ematea jende gehiagok eginga du eta 50etik goiti gara. **100 bazkidera ailegatzeko helburua zehaztu duzue. 100 bazkiderenak badu erranahi berezirik?**

Ez du erranahi berezirik, guk ezarritako helburu minimoa da. Hori da epe motzean lortu nahiko gurek. Kooperatiba sostengatzeko behar dugu bazkide kopuru bat bermatu, eta ezinbertzekoa da. Proiektuak aitzinera eraman ahal izateko ere ezinbertzekoa ikusten dugu guttienez bazkide kopuru zehatz batera ailegatzeko.

Baduzue proiekturen bat esku artean?



· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA



INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTUAK
Bidaurre Ureder Ind. 2. P4 partzela 20305 Irun ☎ 943 63 45 36



BERA
SILVIA MAZIZIOR S.L.
Pol. Ind. Alkaiaga, C. Ziobi, 1, LESAKA
Tel: +34 948 63 15 57
+34 676 05 16 60
maziziorsenper@gmail.com



NAHI AL DUZU SORTA BAT EROSI EDO ZURE GUSTURA EGIN?

Enpresendako eta partikularrendako



Bi ideia nahiko zehatz ditugu eta horiei forma ematen ari gara. Alde batetik kooperatiban argi dugu kontsumo arduratsua sustatu nahi dugula, hau da bazkideen artean dagoen kontsumoa jaitsi nahi dugula. Horretarako aholkularitza zerbitzua martxan paratu nahi dugu, eta bertzalde, kontsumitzen duguna berriztagarria eta tokikoa izan dadila nahi dugu. Horretarako ere lehenbiziko pausoak eman nahi ditugu. Autokontsumorako eguzki instalazio fotovoltaiako kolektibo bat martxan jarri nahi dugu.

Eta etorkizunera begira zer egin asmo duzue?

Bi proiektu horiek hasiera izanen dira, eta nahikoa erronka badira oraingoz. Hau epe luzerako proiektu bat izatea nahi dugu eta aurreikusten dugu instalazio gehiago egin ahal izatea, inbertsio gaitasunaren arabera, noski. Eztabaida gehiago ere zabaldu nahi di-



Ainhoa Lanz Ortego da kooperatibako lehendakaria. UTZITAKOIA

tugu, mugikortasunaren inguruan, adibidez, eztabaida bat egon behar dela uste dugu. Beran eraikin publikoak elikatzen dituen bero sare bat dago, eta hor ez dakigu zen-

bateraino sartzen ahalko garen, baina landu nahiko genuke.

Nola zoazte bi proiektuekin?

Epe zehatzik ez dugu zehaztua. Baina 2024an bi proiektuak landu nahi ditugu.

Parte hartu nahi duenak nola egiten ahal du?

Erraza da. Martxan dugun webgunean izena eman behar da, eta nahiko modu errazean egiten da. Bazkide izateko 60 euroko ekarpena eskatzen dugu.

Beran garatu duzue, baina bertarrak bakarrik izaten ahal dira parte?

Ez dugu muga fisikorik ezarri nahi Beran, baina, egia da proiektuek herri mailan izanen dutela eragina.

Zergatik animatuko zenituzke bertarrak proiektuan parte hartzera?

Gu gure ilusio guztiarekin herriarentzako onuragarria izanen den proiektu bat martxan jartzen ari gara. Epe luzerako zerbait izatea nahi dugu eta aktiboki gauzak egiten joatea. Kooperatiba sustengatzeko ezinbertzekoa da jende kopuru bat izatea. Horregatik animatu nahi dugu jendea parte hartzera.

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa

K-STRETCH

Etorri eta probatu debalde!

San Esteban, 17 • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

Centro Prim regina tolosaechepare

ANSONEA OSTATUKO
I. MUS TXAPELKETA

Urriaren 6tik abenduaren 29ra, ortziraletan, 22:00etan - BERA
**Zehaztu gabeko ortzirale batean izan ezik.*

Gehienez **32 bikote** Lau erregetara Bikote bakoitza **20€**
Gutxienez **8 bikote** eta **40 tantora**

ORTZIRALEROKO SARIAK:

Irabazleak:	Bigarrenak:	Hirugarrenak:
Bildotsa eta 2 botila cava	5 litroko Ramon Bilbao botila ardo ondua eta gazta bat	2 txuleta eta 2 botila ardo

**Ortziraleko puntuak banatuko zaizkie lehenbiziko 4 bikoteei.*

Irabazleak 800 €
Bigarrenak 400 €
Hirugarrenak 200 €
Laugarrenak 100 €

Laguntzaileak: sarobe, SAGARDIKO edariak, VENTA GOR, Alameda zar

Berritasunak izanen dira Olentzeroren kalejiran

Hiru taldetan banatuta egingen dute kalejira eta ondotik denak elkartuko dira Herriko Etxeko plazan

A. LARRETXEA

Abenduaren 24ko ilunabarrean bisita berezia izanen dute herriko hurrek; Olentzero eta Mari Domingi etorriko baitira bisitan Berara. 17:30ean ailegatuko dira Herriko Etxeko plazara eta handik zuzenean igoko dira herriko etxeko balkoira. Han haurrak agurtu ondotik, plazara jaitsiko dira eta bertan hurrek beraiekin egoteko aukera izanen dute eta ikatza banatuko dute.

Olentzero eta Mari Domingi etorri aitzinetik, ordea, kalejira egingen dute hurrek eta

helduek. Azken urteetako egitarauan aldaketak izanen dira aurten, kalejira ikastetxe-ka antolatuta egin beharrean, auzoka egingen baitute eta haur bakoitzaren auzoa izanen da erreferentzia zein talderekin joan jakiteko.

Hiru taldetan banatuta

Lehenengo taldea Altzateko plazatik aterako da, bigarrena Itzetik eta hirugarrena Agerratik. Bidean talde bakoitzak 6-7 geldialdi egingen ditu Eguberrietako kantzak kantatzeko eta bide denak bukatuko dira

Herriko Etxeko plazan. Talde bakoitzean zuzendari bat ariko da zuzentzen, eta musika-riak ariko dira giroa alaitzen.

Baserri auzoetako hurrei dagokionez, Eltzaurdiko, Ibar-dingo eta Kauleko haurrak Itzeko taldean joanen dira. Suspela, Suspel Ttiki, Garaitarreta, Zia eta Dornakuko haurrak Altzateko plazako kalejiran joanen dira eta Kaxernako, Zalaingo eta Zalain Zokoko haurrak Agerrakoeekin. Alkaiagako haurren kasuan, musikariekin batera kalejiran aterako dira beren auzoan barna eta, ondotik, Agerrako kalejirarekin elkartuko dira Ibaialde karrikan.

Azken berritasuna plazan hurrez gain Berako Abesbatzako, Bera Kantariko eta helduen Olentzeroko kideak elkartuko direla izanen da. Plazakoa bukatuta, Gure Txokoa Elkarteko kideak Olentzero kantari aterako dira karrikaz karrika.



GOIENAK UTZITAKOA

Funbox Factoryren azken ikuskizuna egingen dute larunbatean

Larunbatean, abenduaren 23an egingen dute Funbox Factory ikuskizuna azkenengo z 17:00etan kiroldegian. Asmoa San Jose adinekoen egoitzarentzako dirua biltzen da eta horretarako herriko hainbat komertzio emandako opariekin zozketak egingen dituzte.

Goya sarietarako izendatu dute Eneritz Zapiain

Berri jakinarazi dituzte aurtengo Goya sarietarako hautagaitzak eta tartean da Eneritz Zapiain Abuin herritarra. *La Ermita* pelikulan egindako lanagatik hautatu dute efektu berezien atalean. Otsailaren 10ean jakinaraziko dituzte irabazleak.

JAIONE - LOXOTEGIA
Etxean egindako produktuak
948 630 786 - Alzate, 21 - BERA

BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Zalain Ind., 42 Bera.
948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65

Anterola
Tekniko instalatzailea
ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

Ainhoa Alzuguren Mitxelena
Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Arazo administratiboak
Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deltu hitzordua hartzeko
Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaalzuguren@gmail.com

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA
EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...
Eguberri eta urte berri on!!!
T. 948 625 472 | Alasta karrika - BERA | zubiondojatetxea.com

Bortz milioi eurotik goitiko aurrekontua 2024rako

Aurrekontua aho betez onartu dute eta hiru proiektu nagusi garatuko dituzte heldu den urtean

A. LARRETXEA

Berako Udalak 5.353.242,88 euroko aurrekontua onartu berri du 2024rako. Udalaren egoera ekonomikoa «ona» da Aitor Elexpuru alkatearen hitzetan.

Heldu den urtean esfortzu berezia egin beharko dela azaldu du Tokiko Inbertsioen Planeko lanekin hasiko direlako. «Diru sarreraren atalean, udalak orain arte bezala, dirulaguntzak lortzeko lanean segituko du, gure finantziario sisteman ezinbertzeko elementua direlako».

Hiru proiektu garrantzitsu garatuko dituzte heldu den urtean. Lehendabizikoa Kantonberrin lurpeko sareak berritzea eta inguruko zoladura berria jartzea da. Obra honek elkarren segidan egingen diren bi zati ditu, lehendabizikoa karrika altxatzeko eta sare guztiak berritzeko: ur hornidura, elektrizitatea, telefonia, euri urak eta ur beltzak. Bigarren zatian, zoladura osoa berrituko dute, eremuaren urbanizazioa egungo kode teknikoaren estandarretara egokitzuz, irisgarritasuna ziurtatuz

eta hirigintza jasangarriko irizpideei segituz. Lanek 1,3 milioi euroko aurrekontua dute, eta Nafarroako Gobernuak % 80an finantzatuko ditu, onartu berri diren Toki Inbertsioen Planen barnean.

Altzateko saihebidia

Bigarren lan inportantea Eztegar eta Matzada arteko hiri lotura egitea, Labiaga ikastolaren parean Sastrako erre-kastoaren gaineko zubia eraikiz. Obra honek ia 900.000 euroko aurrekontua du eta Estatuko aurrekontu orokorren kontura finantzatuko da. Exekuzio proiektua dagoeneko idatzita dago eta 2024ko bigarren seihilekoan egin ahal izatea espero dute, hainbat arazo tarteko atzeratu ondok.

Bide berri bat egingen da Eztegarako biribilgunetik hasita, Kaxemarantz igoko dena. Ikastolaren parean, bideak ezkerredera egingen du, Sastrako

errekastoa zeharkatuz zubi batetik, Matzadako bidearekin lotuz kiroldegia gibelean.

Hirugarren proiektua bizikleta bidea eraikitzeko proiektuaren lehendabiziko fasea izanen da. Herriaren eta Bidasoko Bide Berdearen arteko bizikleta bidezko mugikortasuna sustatzeko, eta Bidasoa ibaiaren ondok igarotzen diren bidexkak aprobetxatuz, proiektu bat prestatu du. 2024rako helburua bizikleta bidearen lehen fasea gauzatzeko da 255.000 euroko kostuarekin.

Hainbat entitatetara ere dirua bideratuko du udalak heldu den urtean: Musika Eskolari 217.000 euro emanen dizkio; Gizarte-Zerbitzuen Mankomunitateari 125.000 euro; Sastrako kirol zerbitzu publikoari 105.000 euro; Euskara Mankomunitateari 144.000 euro; kultura programaziorako 96.000 euro eta bestetarako bertze horrenbertze diru bideratuko dute.

ALBISU
HORTZ KLINIKA

20 URTE ELKARREKIN
mila esfer!

Bidasoa Karrika 2 - BERA

Tel. 948 631 631 · 657 14 22 28

Pelikuletako soinu bandak entzungai larunbatean

'Ez gara Felix Linares baina... ' kontzertua emanen du Baztan-Bidasoko musika bandak Harriondoan 12:00etan

AITOR AROTZENA

Lesakako musika bandak eta Elizondoko Recreo musika bandak elkarlanean osatutako Baztan-Bidasoko bandak *Ez gara Felix Linares baina...* kontzertua antolatu du abenduaren 23an, larunbatean 12:00etan Harriondoa kultur etxean, udalaren laguntzarekin. Pelikuletako soinu bandak joko ditu bandak, Maite Bidarteren eta Juanen Saralegiren aurkezpenekin. Sarrerak 6 eurotan salgai daude dagoneko Xagu eta Telletxea liburu dendetan eta udalaren

webgunean ere (www.lesaka.eus) eskura daitezke.

Musika Eskolaren Eguberrietako kontzertua

Emanaldi honen bezperan, abenduaren 22an, ortziralean 18:00etan, Lesakako Musika Eskolaren Eguberrietako kontzertua emanen du Harriondoan.

Bertzetik, larunbat goizean artisauek azoka ere izanen da Beheko Plazan eta olentzero eta jaiotzen lehiaketa egingen dute igande eguerdian plazan eta *Diostrasalbe* hilaren 31n.

'Bizitzak salbatzea gure esku dago' erakusketa

Bizitzak salbatzea gure esku dago erakusketa zabalik da hilaren 28ra arte liburutegian, astelehenetik ortziralera, 14:00etatik 20:00etara. Gainera, hitzaldia eta tailerra ere eman zituen Clint Jean Louis Osasunbideko medikuak abenduaren 12an.

Bortzirietako taldekako bertso lehiaketa 30ean

Bortzirietako Bertso Eskolaren 24. aldiz antolatutako taldekako bertso lehiaketa egingen dute hilaren 30ean. 12:00etan Berako Katakun, 15:30ean Antoiun, 17:00etan Zialdon eta 19:00etan Koskillan izanen dira saioak eta 21:30ean afaria eta finala Arranon.



UTZITAKOIA

Andra Mari zahar etxeak 25 urte

Andra Mari zahar egoitzak 25 urte bete ditu abenduaren 8an. Hori dela eta, hainbat aktibitate egin zituzten: txokolate jatea, opil jatea trikitixen soinuekin, dantzaldiak eta musika, bertsoak, bingo berezia... Beti Gazte kantari eta lerro-dantza taldearen emanaldia ere izan zituzten (argazkian).



UTZITAKOIA

Lertxunaren hegada arrakastatsua

Mairu antzerki tailerrak antolatutako 19. Keinu Leihoak zikloa egin da aurten ere. Emanaldi guztien artean arrakastatsuen, talde antolatzaileak, Led Silhouette eta Tantirumairu dantza taldearekin batera egindako *Lertxunaren hegada* izan zen. Lepo bete zuen Harriondoa hilaren 9an.

XAGU LIBURUDENDA
Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZERO GUREA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- LIBURU EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

LIDERA
HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL
astelehenetik ortziralera
08:00-13:00
15:00-20:00
larunbatetan goizez

EGUBERRI ETA URTE BERRI ON BEZERO ETA LAGUN GUZTIE!

Iturrunzubiko plaza, 9-10 • 31770 LESAKA (Na)
Tel. 722 662 478 | lidera@hortzklina.es
@liderahortzklina

«Finalak aitzinera segitzeko indarra ematen dizu»

JOSU SANJURJO ALTZURI LESAKAKO BERTSOLARIA

Finalera aitzinera pauso bat emateko gogoz joan eta egindakoaren pozik da Josu Sanjurjo Altzuri Nafarroako bertsogintzarako garrantzitsua iruditzen zaio heldu den urteetan lan egitea

A. LARRETXEKA

«Gustura eta bakean». Hala-xe dago Josu Sanjurjo Altzuri Nafarroako Bertsolari Txapelketa bukatuta. Finalera bidean egindako bi saioetan «sufritzea» tokatu ondotik, finalean «saio on bat» bat egiteko gogoz joan zen, «postuari begiratu gabe, nire lanean zentratzera». Eta gustura dago egindakoarekin: «Uste dut erregularitasuna falta zaidala, eta aparra bezala igotzen eta jaisten naizela batzuetan. Gustatuko litzaidake saio osoago bat egin izan banu, baina, gustura nago hala ere».

Finaleko oholztan zela, saioa aditzen «adi» sumatu zuen bere burua, eta kantukideak «sekulako lana» egiten ari zirenen sentsazioa izan zuen: «Bereziki bakarkako onakizan zirela erranen nuke». Oholztan kontziente egon izana garrantzitsua iruditzen zaio: «Aitzineko finalean baino kontzienteago nengoen, eta bertzeren bat bada bertze tresna batzuekin joanen naiz». Oholztakideen artean zegoen giro ona ere nabarmendu du: «Susmoa nuen finalaren aitzinetik tentsioa eta kontzentrazio handia egonen zirela, baina hagitx ongi eta lasai-lasai egon ginen denak eta uste dut hori oholztan ere nabaritu zela».

2.350 entzule bildu ziren Anaitasunan, abenduaren 2an, eta hala, Nafarroan inoiz izan den finalik jendetsuena



Josu Sanjurjo Altzuri Iruñeko finaleko une batean. JOSU SANTESTEBAN/NBE

izan da aurtengoa. Sanjurjo-arentzat «seinale hagitx ona» da hori, baina, «arduratik» eta «natural» bizi behar dela dio: «Pentsa, Osasunaren edozein partidatan 20.000 lagun elkartzen dira. Jendea etortzea kontent egotekoa da, onartu eta egokitu behar da, eta saiatu ahalik eta hobere-na ematen. Bertsolaritza da gure ondarea, hainbertze lagun eman dizkiguna, bizitza estilo bat eta balore batzuk eman dizkiguna, eta horrelako egun batek indarra ematen dizu segitzeko».

Final jendetsuaren ondotik, Nafarroako Bertsozale Elkartean egunerokoa hagitx difere-ntea dela azaldu du. «Bada-akit nola ibiltzen garen la-

nean, zer zailtasun dauden saioak lotzeko... Eta bat-batean notizia 2.350 lagun elkartu direla finalean». Bertsolaritzaren eguneroko «ttikititasun» horretara bueltatzen jakin behar dela uste du: «Bi punta dituen arma da. Egundatean elkarrizketa baterako egunean bertso saio batera joan eta hamar lagun elkartzen dira. Hankak lurrean izan behar dira, eta gogoz nago».

«BERTSOLARI GAZTEAK NOLA LAGUNDU ASMATU BEHAR DA»

Bere kasuan, ia urtebeteko prestaketa egin du aurtengo finalaren aitzinetik. «Duela urtebete txapelketarako bide orri bat egin nuen: urte hasieran dezente irakurri nuen, gero maiatzean bertso eskolan lantzen hasi ginen eta udako geldialdiaren ondotik, astean 3-4 aldiz gutxienez elkartu gara bertso eskolan». Leitzan, Etxarri-Aranatzen, Iruñean, Lesakan... elkartu da bertso eskola egiteko, eta «hilabete biziak» izan direla onartu du.

Etorkizuna lantzeko

Txapelketan oro har, «arrakala handia» sumatu du goian dauden eta hasi berriak diren bertsolariak direnen artean: «Goian daudenak hagitx finkatuak ikusten ditut hor eta iruditzen zait Nafarroako goiko langa inoizko gorenen dagoela».

Arrakala aipatzen duenean, mailaz harago, bertsolari gazteek dituzten baliabideei ere egiten die erreferentzia. «Gaur egungo 20 urteko gazte batek urtean dituen plazak ditu eta hainbertze publikoren aitzinean lehiatzaera ateratzea hagitx gordin da. Bertsolari gazte onak aterako direla uste dut, baina, nola lagundu asmatu behar da, eta batez ere nola ez erre».

Gazteei erreferentzia eginez, belaunaldi aldaketa izan da aurtengo txapelketan, eta hori «arduratik» bizi du bertsolariak: «Nafarroako bertsogintza gorenean ikusten dut mailari dagokionez, baina, uste dut heldu den urteetarako bizkarrezurra falta zaio-la». Horregatik, nabarmendu du Nafarroako bertsogintza «denen ardura» dela eta «heldu diren urteak garrantzitsuak izanen direla etorkizun on bat eraikitzeko».

Pertsonalki hemendik aitzinerako bertsotarako helburua ere argi du zein den: «plazan gozatzen segitzea eta poliki-poliki hobetzen joatea».



Kultur etxeko erakusketak luzatu du aurtengo ehiza sasoa. IRUNE ELIZAGOIEN

310 uso harrapatu dituzte Usategietako sareetan aurten

Abenduaren 2an Pirinioetako usazaleen besta ospatu zuten Nafarroa Behereko Behorlegin

IRUNE ELIZAGOIEN

Aurtengo denboraldia iazkoa baino pixka bat hobea izan dela erran dute usazaleek, baina hala ere ez da ona izan. Txolomak harrapatuz ongi hasi ziren, baina usoak ez dira denboraldi bukaera arte agertu. Hau dela eta, denboraldia aste bat luzatu da, baina ez du emaitzarik eman. Denera, sareekin 310 uso harrapatu dituzte. Tradizioa bertze urte batez bizirik mantendu ahal izan da, inguruko usazale eta boluntario talde ederraren lanari esker. Aranzadirekin lankidetzan, txoloma gehienei

Cpal elkarteak eraztunak paratu dizkiete.

Bisita gidatuta, ia 200 lagun inguru animatu dira eta ia laurdenak izan du usazaleak lanean ikusteko aukera.

Sasoia luzapena izan du kultur etxean azaroaren 26tik abenduaren 10era izan den erakusketarekin. Josetxo Apeztegia, Fidel Perrot eta Aimar Iparragirren argazkiez gain, ehizarako tresnak, usategietako maketa, Pello Apeztegiaren liburuak, trepa eta sareen informazioa eta ordu erdiro, aitzinako eta oraingo bideoak ikusteko aukera izan da.



ANA INDABURU

80 urte betetakoei omenaldia

Aurten 80 urte betetakoei omenaldia egin diete Larraburuan abenduaren 3an. Jesus Arribillaga, Gloria Maia, Joxemari Arburua, Mari Loli Danboriena, Isabel Bergara eta Mari Angeles Agirre izan ziren omenduak eta hainbat oroigarri eman dizkiete elkarteok. Ia 60 lagun elkartu dira bazkarian.



MIREN OLAETXEA

Indarkeria matxistaren aurkako eguna

15 bat lagun elkartu ziren azaroaren 25ean Kultur Etxean proiektzioa ikustera eta gero, kafeaz lagunduta, hizketaldia egin zuten. Elkarretaratzea egin zen plazan eta 40 bat lagun elkartu ziren, greba feministaren inguruko ideia orokorrak adierazi eta eraso matxistak sortutako datuak gogoraraziz.

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria
astelehenetik ortziratera

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

DESIN BERA

DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMENDUAK
DESINFEKZIOAK • HEGAZTIEN KONTROLA

T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

USOA
Nekazari kooperatiba

T. 948 635 214 M. 605 631 244
ETXALAR

BIDASOA
GURPILAK - GASOLINDORAK

Gurpil estaltze berezikiak
24h-ko asistentziak erregidoretan
147 eurteko zerbitzu deialak
Gasolindegirik 24h irekita

Zako azaro deialak zerbitzu erregidoretan eskaintzen dituzte

Alkaga Industrialden
Ziabi Kalea 6
31770 Lesaka (Nafarroa)

Noain-Eskiroz Industrialden
Y Kalea 10
31118 Noain (Nafarroa)

GASOLIOA ETXERA
eramanen dugu



Haurrak eskulanean gustura ibili ziren.



Tortilla lehiaketako irabazleak.



Aldabek Asperekin egin du debuta.

Kultur astearen ondotik Eguberriei begira

Giltzarri abesbatzaren kontzertua, Olentzeroren bisita, urtezahar eguneko eskea eta kabalgata izanen dira Eguberrietan

ANA ETA ITZIAR

Eguraldia izugarria izan ez bazen ere, kulturak bere txokoa izan zuen abenduko zubian egindako kultur asteen eta jendea animatu zen ekitaldietan parte hartuz. Lehenbiziko saioa, abenduaren 6an, antzerkia izan zen eta jendea aski gustura atera zen. Hurrengo egunean, Jon Abril izan genuen *Isildutako Eskuak* bere liburua aurkezten, interesgarria hau ere. Abenduaren 8an, patata tortilla lehiaketan, 11 talde aurkeztu ziren eta herriko neskatxa gazteek irabazi zuten. Arratsaldean, bingoa izan zen 10-14

urteko gazteentzat. Larunbatean, berriz, mus eta partxis txapelketak jokatu zituzten Baratzondon eta eskolan haurrentzako eskulan tailerra izan zen. Kultur astea borobiltzeko, Oier Fuentesekin argazkilaritza tailerra izan zen. Ekitaldi guztiak gozatzeko eta ikasteko modukoak izan ziren. Aurtengoak bukatuta datorren urtekoen esperoan gelditu gara.

Eguberriak ate joka

Aste kulturala bukatu orduko, Eguberriak antolatzen hasiak dira hainbat elkarte. Lehenbiziko ekintza abenduaren 23an

izanen dugu: Giltzarri abesbatzak kontzertua emanen du elizan. Biharamunean, 24an, Olentzeroren txanda izanen da. Goizean haurrak eta gazteak kantari etxez etxe ibiliko dira eskean. Arratsaldean, 16:00 aldera, olentzeroekin kalejira egingen dute herrian. Jateko modua ere izanen dugu, beti bezala, luntxa izanen baita. Ondotik, olentzero lehiaketa izanen da frontoian.

Urtezahar egunean, berriz, Biltoki Ttikikoak *Santaketan* aterako dira. Egun osoan kantuan eta eskean ibiliko dira herriko etxe guztiak euren soinuz alaituz.

Errege egunaren bueltan ere izanen dugu zer ikusi. Ilbeltzaren 4an, ilunabar aldera, Errege Magoen pajeak etorriko dira haurrek ilusioz idatzitako eskutitzen bila. Hurrengo egunean, 5ean, Errege Magoak etorriko dira kabalgatan. Erran dutenez, 18:00 aldera ailegatzeko ideia dute, eta elizan egingen diete ongietorria. Eguberri on dene!

Joseba Aldabe pilotariak profesionaletan debuta egin du

ANA ETA ITZIAR

Euskal Herriko prentsa guzian, baita irratian eta telebistan ere publikatu duten bezala, Joseba Aldabe pilotaria profesionala izanen dugu! Urte aunitzetan afizionatu mailan dena irabazi ondotik, Aspe enpresaren eskutik ailegatu zaio profesionalerako saltoa emateko aukera. Abenduaren 8an egin zuen debuta Donostiako Atano III.a pilotalekuan Dario pilotaria lagun zuela, Zabala eta Erostarberen aurka. Herriko zale saila joan ziren Donostiara Josebari berotasuna eta elkartasuna ematera. Irabaztea ez bazen posible izan ere, seguru gaude partida ikusgarriak eta garaipen aunitz izanen dituela. Zorionak, Joseba! Ibilbide ederra opa dizugu!



Fernando Celaya
TERAPIA NATURALAK

Gure kontsultan honako patologiak aztertuko ditugu:

- Lixeriketa aparatuko patologiak
- Gihar patologiak
- Neurologiak patologiak
- Arnas aparatuko patologiak
- Ginekologia patologiak
- Giltzurrun eta gernu aparatuen patologiak
- Zirkulazio eta endokrino patologiak

Erabiltzen ditugun terapiak:

- Osteopatia
- Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
- Akupuntura
- Fitoterapia Txinatarra
- Reiki...

Salis Hiribidea, 24 - IRUN

639 955 324

www.fernandocelaya.com

Mari Domingi eta Olentzero bidean dira

Abenduaren 24an kalejira izanen da, urtezahar egunean elkartasun zozketa eta ilbeltzaren 5ean kabalgata

NEREA ALZURI

Ate joka dira Eguberriak eta horiekin batera, baita ohiko ekitaldiak ere. Abenduaren 22an, adibidez, eskolako lagunek harrera eginen diote Mari Domingiri. Betiko moduan, hainbat solas eta kanta partekatuko dituzte eta Mari Domingik haurrek prestatutako eskutitzak bilduko ditu.

Abenduaren 24an, berriz, urtero bezala, Mari Domingi eta Olentzero etorriko dira bisitan. 16:00etan, kalejira izanen da olentzeroak bizkarrean aparkalekutik abiatuta herriko karraketan barna. Kantari ariko dira, bidean zenbait geldialdi eginez. 17:30ean, Mari Domingi eta Olentzero ailegatuko dira herrira eta dantza eta kantekin ongietorria eginen diete. Ondotik, merienda izanen da eta ohitura den moduan, Olentzero panpina erre eta kalejira izanen da inguruan.

Elkartasun zozketa

Abenduaren 31n, 20:00etan herriko plazan, elkartasun zozketa eginen da. Bi sari zozketatuko dituzte: herriko pro-

duktuez osaturiko *karretilla* eder bat eta Arantzako bildotsa. Txartelak euro batean salgai daude.

Kabalgata

Ilbeltzaren 5ean, bertzalde, Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregeak eta laguntzaileak herrian izanen dira. Errege kabalgata 18:45ean izanen da eta ondotik ekitaldia eginen dute elizan.

Herritarrek futbiton

Baina ospakizunetatik haratago, kirolerako tartea ere hartuko dute herritar batzuek. Donztebeko Futbol Taldeak, bertze aldi batez, XI. Eguberrietako Areto Futbol Txapelketa antolatu du. Abenduaren 22an hasiko da eta jardunaldi nahiz final laurdenetako partiduen ondotik, urte zahar egunean, finalerdiak eta finalak jokatu dituzte. Aranztarrek ere ez dute hutsik eginen. Herritarrek eta burlatarrek Burlantza taldea osatu dute eta tartean ariko dira Borja Iturria, Jon Zabala, Ibai Igarabide, Jon Jorajuria eta Markel Jorajuria.



G. PIKABEA

Azaroaren 25ean eta 30ean plazara

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira, elkarretaratzea egin zuten azaroaren 24an plazan. *Libre izan nahi dut, ez ausart* eta *Gure desira errespetuaren distira* zioten karteekin bildu ziren. Eta azaroaren 30ean ere, greba feminista orokorrarekin bat eginez, elkarretaratzea egin zuten herritarrek.



UTZITAKO ARGAZKIA

'Toallitak' komuneko zulora ez

Argazkian komuneko zulotik bota ondotik pilatu diren zapitxoak edo *toallitak* ageri dira. Baina komuneko zulotik *toallitak* botatzek herriko hoditerian arazo eta traba handiak sortzen dituela ohartarazi du udalak eta ez gehiago botatzeko eskatu du.

<p>ANTZUZELAI S.L. BERA - T. 948 63 13 17 info@antzuzelai.com www.antzuzelai.com</p>	<p>HARGINTZA FATXADAK TXIMINIAK ZOLAK TAILLA ARTISTIKOAK OBRAK</p>		<p>PABELLÓN DE BERRANDONA S.L. BILTEGIA: 948 630 102 SAKELAKOIA: 633 480 563 Bikasoa, 76 - atea 21-22 • BERA</p>
---	--	--	---

<p>Jauriena Denda. 948 631 217 T. 630 136 863 Julio Caro Baroja, 6 - BERA jaurenabera@gmail.com</p>	<p>Elektrizitate lanak orokorrean Erreformak, etxe berriak Lantegietako mantentze-lanak</p> <p>Eguzki-panelen instalazioa eta dirulaguntzen gestioa</p>	<p>LARRETXEĀ EGVRRAK</p> <p>Zuhaitzak erosi, bota eta ateri Piketeak eta sutarako egurra</p> <p>Pio Baroja, 3 Obenea Bera T. 617 981 427</p>	
--	---	---	--

Dena prest Olentzero eta Mari Domingiri ongietorria egiteko

Eguraldi ona baldin bada eskolako aterpean bilduko dira eta txarra baldin bada frontoian

MAIDER PETRIRENA

Abenduaren 24an, Olentzero eta Mari Domingiren bisita izanen dugu. Herritarrak 16:30ean labaderotik abiatuko dira bi protagonistei ongietorria egitera joateko. Ondotik, haiekin batera, musikalagun, herrian barna itzulia egingen dute. Ibil-

bidea beheko eskolan akituko dute. 17:30 aldera, eskolako aterpean, Olentzerori eta Mari Domingiri eskutitzak, txupeteak eta gainerakoak emateko eta argazkiak ateratzeko aukera izanen da eta txokolatea ere banatuko dute. Eguraldi txarra bada, frontoian bilduko dira.



ESKOLAK UTZITAKOIA

Indarkeria matxistaren kontra eskolan

Azaroaren 24an, emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko egunaren seinalea egin zuten eskolako ikasleek, irakasleek eta gurasoek. Argazkian ageri den bezala, kolore morea nagusitu zen eskolako atarian egindako elkarretaratzean.



ESKOLAK UTZITAKOIA

Euskararen eguna gogoan eskolan

Abenduaren 7an euskararen eguna ospatu zuten eskolan. Goizean euskal musika aditzeko aukera izan zuten, txapak ere egin zituzten, baita leihoak apaindu ere. Bertetik, abenduaren 5ean, eskolako ikasleek eta irakasleek irteera egin zuten Iruñera.



GARAINA IRIARTE

Ekaitz Bertizen lanak ikusgai

Abenduaren 3an Ulibeltzak Elkartearen zinema emanaldia izan genuen Ekaitz Bertiz Apezetxearen eskutik. *Eklipsi morala*, *Baserria hartu du gaitzak* eta *Hitza eman nion* film laburrak ikusteko aukera izan zuten bildutakoek. Ekaitzen solasaldiaz gain aktore lanetan ibilitakoek ere solas batzuk egin zituzten.





Miguelena
SUKALDEAK

ETXETRESNAK

PARETA-ARMAIRUAK

SUKALDE ETA BAINUGELAKO ALTZARIAK

T. 948 450 925 | M. 624 47 57 25
Amezta zeharkarrika, 1
DONEZTEBE

www.electrodomesticosmiguelena.es



Frontenis txapelketa abenduaren 23an egingen dute

Eguberrietan dena ez da beta kontua izanen. Kirolari tartea egingez, frontenis txapelketa antolatu dute abenduaren 23an, larunbatarekin. Goizean multzoko partidak jokatuko dituzte eta finalerdiak eta finala, berriz, arratsaldean egingen dituzte.

Ekitaldiz beteriko Eguberriak izanen dira aurtengoak

Hainbat kirol ekitaldiz gain, abenduaren 29an zine proiektzioa izanen da Ekaitz Bertizen eskutik

TTIPI-TTAPA

Azken asteetan bezala, zer egin eta zer ikusi izanen da heldu den asteetan ere, Eguberrien bueltan hainbat ekitaldi izanen baitira herrian.

Abenduaren 23an hasi eta 31ra arte Eguberrietako Areto Futbol Txapelketa egingen dute kiroldegian Doneztebe Futbol Taldeak antolatuta. Abenduaren 23an, aldiz, Euskal Herriko Sokatira Txapelketa izanen da Ezkurra pilotalekuan. Biharamunean, Olentzeroren eta Mari Domingiren bisita izanen dute haurrek ilunabarrean. Horren aitzinetik, goizean, Saioara irteera antolatu du Errekak.

Abenduaren 29an, ortzira-lean, aldiz, Ekaitz Bertiz Sunbillako zinemagile gaztearen eskutik, hiru film laburren proiektzioa izanen dute 18:30ean zinemian.

Urtea akitzeko, bi kirol hitzordu izanen dituzte abenduaren 31n. Goizean, Mendaurrera igoera antolatu du Erreka Elkarteak. 07:30ean elkartuko dira autobus geltokian eta 10:30ean taldeko argazkia aterako dute tontorrean. Arra-



Olentzero eta Mari Domingi iaz.

tsaldean, aldiz, San Silvestre lasterketa herrikoia egingen dute.

18:00etan haurren txanda izanen da eta ondotik, helduek 3,5 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute. Bortz euro balio du izena emateak eta horren barrenean sartzen da aseguru ere. Izen ematearekin irabazitako diruaren zati bat Pequeña Guerrera elkarteari emanen dio Errekak eta opariak eta zozketak ere izanen dira parte hartzaileentzat.

Ainara Marizkurrena Sagaseta oroitu dute Mendiaren Egunean

TTIPI-TTAPA

Bertze urte batez Mendiaren Eguna egin zuten azaroaren 26an Erreka Elkarteak antolatuta. Mendi irteera, poteoa, bazkaria, eta Alex Txikonen dokumentalaren emanaldia izan zituzten, baina, aurtengo berezia eta hunkigarria izan zen, aurten hildako Ainara Marizkurrena Sagaseta taldekidea gogoan izan zutelako.

Eguneko ekitaldi bereziarena Alex Txikon alpinistaren bisita izan zen. *Manaslu, historiako lehenbiziko neguko igoera* dokumentalaren proiekt-



Mendizaleak Bonozorrotzen.

zioa egin zuen eta tartean aurten hildako Marizkurrenaren irudiak eta ahotsa ere aditu ziren. Haren senideak eta lagunak ere izan ziren ekitaldian.



UTZITAKOIA

Herritarrak greba feministarekin bat

Azaroaren 30eko greba feminista orokorraren harira, hainbat ekintza egin zituzten herritarrek Malerrekako eta Bertizaranako kideekin batera. Goizean, herrian barna itzulia eta elkarretaratzea egin zituzten greban parte hartzeri gonbidatuz, eta ondotik, Elizondoko manifestazioan parte hartu zuten.



Eraikuntza Taldea

ZAHARBERRITZEAK – IGOGAILUAK
FATXADAK – TEILATUAK
KANPOKO ISOLAMENDU TERMIKOA

DIRULAGUNTZAK KUDEATZEN DITUGU
ORDAINKETA ERRAZTEKO AUKERAK

www.gruporhconstruccion.com

Nafarroa Iparraldeko ordezkariak: ☎ 679 996 055
Parrokia, 9 - behe, DONEZTEBE 643 937 922

Gipuzkoako ordezkariak: ☎ 845 990543
Inuresoro pasabidea 2/4 behe, DONOSTIA

Nafarroako Ordezkariak Nagusia: ☎ 948 021 664
Julian Arteaga, 9 - behe, IRIUÑA 948 196 957

Zozketak egingen ditu merkatarien eta zerbitzuen elkarteak

Eguberrien atarian, eta herritarrak herrian kontsumitzera bultzatzeko, zozketak egingen ditu aurten Doneztebeko merkatari eta zerbitzuen elkarteak. Abenduaren 11n hasi ziren eta 24ra ate 100 euroko 7 bale zozketatuko dituzte erosketen artean.

Pentsioen inguruko solasaldia ilbeltzaren 17an

Salvide bulegoko abokatuak bertaratuko dira bi haur edo gehiago izan dituztenen balizko pentsio igoeraz mintzatzera

TTIPI-TTAPA

Pentsioduna, jubilatua, alarguna, ezintasun iraunkorra duena... Egoera horietan daudenentzat, eta 2016ko ilbeltzaren 1etik 2021eko otsailaren 3ra bitartean bi seme-alaba edo gehiago izan dituztenentzat, Doneztebeko elkarteko egoitzan solasaldia izanen da ilbeltzaren 17an 17:00etan. Bertan amatasun eta aitatasun osagarrietan izan daitezkeen eskubideez arituko dira baita pentsioan izan daitekeen igoeraz ere.

Bertzalde, azken aldizkarietan aipatu bezala, Donezteben

delegatua behar du elkarteak. Delegatu izan nahi duenak 948 45 08 78 edo 618 56 78 37 zenbakietara deitu beharko du.

Azaroan saridunik ez

Bertzetik, elkarteak jakinarazi du azaroko lehiaketako galderako erantzunak ez direla zuzenak izan. Doneztebeko feria zeren abera zehazten zen asmatu behar zuten, baina, ez du inork asmatu. Beti ez da San Martin ondoko ortziralear izaten, San Martin ortzegunean bada ondoko asteko ortziraleara pasatzen baita.



La Palmara joan diren 50 bazkideak. UTZITAKOA

Elkarteko 50 bazkide joan dira La Palmarako bidaiara

TTIPI-TTAPA

Elkarteko 50 bazkide La Palma uhartean izan dira oporretan azaroaren 14tik 21era. Bidaian izan diren zazpi egunetan leku aunitz ikusteko aukera izan dute bazkideek. Lehenengo irteera La Palmako hiruburu ondoan egin zuten, Santa Cruzen. Hurrengo berriki eztan-

da egin duen Cumbre Vieja sumendira egin zuten. Hirugarrena irlaren hegoaldera egin zuten eta han hainbat sumendi ikusi zituzten. Azkena, aldiz, irlaren iparraldera egin zuten. Bertan, ordura arte ikusitakoaren kontra, leku freskoak eta hezeak ikusi zituzten, baita platano landareak ere.



*Bete ditzagun aulki hatsak
araitzapen goxoez*

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com
web: funerariabaztanbidasoa.com

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago karrika, 79
 BORTZIRIAK: BERAin San Jose Beilatokian
 MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3





Aurtizko ostatuan arratsalde berezia pasatu zuten ttikienek. UTZITAKOAK



Museko txapelkunak.

Giro ederra eta animazio handia kultur egunetan

Arturo Kanpion abesbatzaren emanaldia, haurren arratsalde pasa, mus txapelketa eta Futbolistok bakarriketa izan dira

ARKAITZ MINDEGIA

Aurtengoan ere kultur egunak ospatu dituzte herrian. Garai batean Ibintza kultur taldeak abenduak zubian egun polit eta aberasgarriak antolatzen zituen. Eta aurtengoan Iturengo udalak egun solteetan zenbait ekitaldi antolatzea erabaki zuen. Hasiera ederra emateko, abenduaren 3an Nafarroaren eta Euskararen Eguna izanik, goiz eguerdi polita igarotzeko aukera izan zen. Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin, Txantreako Arturo Kanpion abesbatza herrira etorri zen kontzertua

ematera. Herriko etxeko ganbaran abiatu zuten emanaldia: lauzpabortz kanta txukun eta polit kantatu ondotik, herriko musikarien laguntzarekin, herriko ostatueta kantu po-teoa egin zuten. Iturenen hasitako kalejira Aurtitzen akitu zuten, abesbatza beraien kanta politik kantatuz eta ondotik denak elkarrekin euskal kantak kantatuz.

Hurrengo asteburuan, abenduaren 8an, Aurtizko ostatu-ko jantokiko berotasunean, haur eta gaztetxoendako arratsalde berezia egin zuten. Hasteko, eskulanak egiten eta

partxisen aritzeko aukera izan zuten, ondotik, txokola jate goxoa eman zuten ostatuokoe eta akitzeko, berriz, bingoa izan zuten. Aizpea eta Alaia izan ziren saridunak. Gauean, berriz, Iturengo ostatuan mus txapelketa antolatu zuten. Bikote dezente animatu ziren eta gauean hasi zena, hainbat partida gogorren ondotik, ordu ttikieta akitu zen. Hiru saridunak hauexek izan ziren: 1. Aitz eta Hodei Aioroa; 2. Julen eta Xuban eta 3. Xabin eta Jon.

Kultur egunei amaiera emateko, biharamunean, Futbolistok bakarriketaren txanda izan zen. Sarrera guztiak lehenagotik salduak zeuden eta herriko etxeko ganbara lepo bete zen Zuhaitz Gurrutxaga aditzeko. Polita eta ederra izan zen, jendeak ederki gozatu baitzuen. Azken ekitaldian bezala, udalak jatekoa eta edatekoa eman zuen. Ateratako dirua kultur ekitaldi gehiago antolatzeko erabiliko da.

Eguberrietako bestak ekitaldiz gainezka datoz aurten ere

Pulunpa eskolak hiruhileko akabailako besta eginen du, guraso elkartearen luntxa eta boletoen zozketarekin. Olen-tzero etorri aurretik Aurtitzen eta Iturenen gazteak Eguberrietako kantak kantatzen ibiliko dira. Errege bezperan inaute-rietako usaina sumatuko da.

Beltxaren taldearen lan berria Durangoko Azokan

Beltxaren taldean herritarrak ditugun Garbiñe Leizak eta Mikel Petrirenak jotzen dute. Taldeak hiru disko grabatu ditu azken hiru urte hauetan: *Beotibar* 2021ean, *Amaiur* 2022an eta *Errozabal* aurten. Hiru lanetan Xabier Irujo historialariarekin lankidetzan aritu dira.

Trikidantz taldearen 'Bixi bixi' abestia sare sozialetan

Trikidantz taldeak sare sozialetan zabaldu du *Bixi bixi* bere abesti berria. Youtuben dago ikusgai. Taldeak etapa bat itxi zuen urrian eta aro berrian bueltan da. Taldekide berriak sartu dira eta garai batean egon ziren batzuk ere bueltatu dira.

EDERKI tailerra

CITRÖEN
ZERBITZU OFIZIALA

'Latigillo' hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA

Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525

ORBELA
SOKORRORGA
BEINTZAKO OSTATUA

Idola - Mikel
Tel. 948 450 014 - BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com

744 484 361

ttipi-ttapa

LIZUN
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862



Lesakako Hago Silik taldea. UTZITAKOA



Hamar taldek jo zuten.

Piz&Lohi musika jaialdia berriz ere bikaina izan da

Hamar bat talde eta inguruko hainbat gazte elkartu ziren Zubietan abenduko lehen asteburuan, giro ederrean

FERMIN ETXEKOLONEA ZUBIETA Herriko Ozpinduk taldeak sustatutako Piz&LohiPest musika jaialdia ospatu dute aurtan ere abenduko lehenbiziko asteburuan. Beti bezala, eskualdeko musikari eta taldeei beraien lana plazaratzeko aukera eman die jaialdiak eta helburu hori argi eta garbi lortu dutela adierazi dute antolatzaileek. Izan ere, Ozpinduk taldearekin batera, herriko eta inguruko hainbat gazte laguntza ematen dute jaialdia arrakastatsua izan dadin. Denei eskerrak eman dizkiete, «baita soinu-mahaian

lan ikaragarria egin eta ordu pila bat sartu zuten Leitzako Gaizka eta Maitaneri eta Baztan, Bortzirriak, Malerreka eta Bertizaranatik hurbildu ziren gazteei ere. Denera, dozenaren bat talde eta DJ izan zituzten abenduko lehen asteburu horretan.

Ostirala lasaixeagoa izan zen, musika eta jende akdetik, baina giroa berotzen hasi zen, Kattalin Arizmendi bakarleriaren eta Gaizkillea eta infernuko begiak eta Oro taldeen musikarekin. Estalpean talo-jatea ere izan zuten. Hala ere, egun handia larunbata izan

zen. Eguerdi parteko poteoaren eta bazkariaren ondotik, arratsadean Hago Silik, Ursuari, Ozpinduk, Hienas Terkas, Oihana Maitakor, III. Mundu Gerra eta Roña taldeen musika aditu zen.

Zubietako plaza estaltzeko egitasmoa bertan behera

Azken aldian eztabaida, polemika eta zeresan ugari emana zuen Zubietako plaza estaltzeko egitasmoa bertan behera utzi du udalak. Dirulaguntza eskaera ere egin zuten, baina Nafarroako Gobernuak ezezkua eman du eta alde batera utzi dute. Begi onez ikusten zutenek, beste zenbait herrietan bezalako estalpe baten beharra gogoratzen zuten. Kontrako iritzia zutenek, etxe zahar bat botatzea ere eragingo zuela gogoratzen zuten. Bestalde, haize-erroten proiektua ere bertan behera gelditu omen da, Nafarroako Gobernuaren arabera, baldintzak ez direlako betetzen.

Pello Apezetxea Zubiri ikerketa beka eman dute lehen aldiz

TTIPI-TTAPA BORTZIRIAK

Pello Apezetxea Zubiri Ikerketa beka aurkeztutako sei lanak aztertu ondotik epaimahaia *Bortzirietako hizkuntza aniztasuna eta migratzaileen euskararekiko pertzepzioak eta jarrerak* lana saritzeko erabakia hartu du. Bekak hiru ikerketa esparru lehenetsi zituen bere lehen edizio honetan: soziolinguistika, dialektologia eta onomastika. Deialdian bertan jakintza esparru horietako gai batzuk ere proposatu ziren eta egitasmo hau *immigrazioa, harrera, hizkuntza eta kultura aniztasuna zein euskara udalerrri euskaldunetari ikerketa* lerroan kokatzen da; epaimahaikideen iritziz, «proiektua deialdi honen helburuekin lerrotatzeaz gain, Bortzirietako Mankomunitatearen lanildoetan ekarpen interesgarria egiteko aukera eman dezake». Bertzeak bertze, ikerketa honelako emaitzak aurreikusi ditu: kultura eta hizkuntza aniztasunari buruzko diagnostia; Bortzirietan bizi diren migratzaileen euskararen ezagutza- eta erabilera-maila; migratzaileen euskararekiko pertzepzioak eta jarrerak; ama-hizkuntzaren, euskararekiko esposizioaren eta beste faktore soziodemografikoen eta hizkuntzarekiko jarrearen arteko loturak eta, azkenik, migratzaileen hizkuntza beharrak identifikatzea eta harrera linguistikoa egiteko hainbat estrategia eskaintzea.

Paula Laita Pallares, Jon Martin Etxebeste eta Ane Osua Cabidak aurkeztutako lanaren datu bilketarako galdetegiak, elkarrizketak eta eztabaida taldeak erabiliko dira, Bortzirietako udalerrri guztietan (Arantzan, Lesakan, Igantzin, Beran eta Etxalarren).

Legasako eskolan ere azaroaren 25eko aldarria

Legasako ikasle eta irakasleek bat egin zuten Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Egunarekin. Klasean gaia landu zuten aitzineko astean, eta argazkia egin zuten eskolako atarian.



NEREA MEOKI

Mendaur institutuko ikasleak Arnasetik lehiaketan sarituak

'Joaldunak' izeneko lanak publikoaren saria lortu du Arnasetik bideo sormen lehiaketan

TTIPI-TTAPA

Doneztebeko Mendaur Institutuko Iñaki Bazterrika Ilarregi, Argoitz Erasun Ortuoste, Oinatz Ibarra Irisarri, Ander Mariezkurrena Mikeo eta Gaizka Santos Luzuriagak egindako *Joaldunak* lanak irabazi du Arnasetik bideo sormen lehiaketako publikoaren saria. Mila lagun baino gehiagok eman zuten botoa Internetez, eta beraiena izan zen boto gehien hartu zue-na. Iturengo eskolako *Pulupapa rap-a*, Leitzako Amazabal Institutuko *Esamoldek aspal-diko gurek* eta *Gaur eungo gaz-*



Iñaki, Gaizka, Argoitz eta Ander.

te hok lanak ere finalera ailegatu ziren. 10 eta 16 urte arteko ikasleendako bideo sormen lehiaketa da Arnasetik, UEMAK, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak antolatua.



ARGAZKIA ETA TESTUA: ARANTXA ITURRALDE

Leizera bisita Beintza-Labaienen

Euskararen Nazioarteko Eguna modu berezian ospatu nahi izan zuten Beintza-Labaienen, eta Labaiengo leizera bisitan joan ziren. Haur eta guraso kuadrilla elkartu ziren Mikel Albisuren gidaritzapean eta haiekin bat egin zuten Maite Arzuaga biologiak. Ondotik, Beintzako ostatuan bazkaldu zuten.

Arnasetik lehiaketan 112 sormen lan osatu dituzte gazteek

BIDEOSORMEN LEHIAKETAREN BIGARREN EDIZIOAK SORMENA SUSTATU DU EUSKARAREN ARNASGUNEETAKO GAZTEEN ARTEAN.

Euskaraz sortuko duten sortzaileak behar ditu euskarak, eta hauen arrastoaren atzetik euskararen arnaguneetara bisita egin die "Arnasetik" bideosormen lehiaketak. Arnasa Gara ekimenak antolatutako lehiaketa honen bigarren edizio honetan arnaguneetara bizi diren 10-16 urte bitarteko gazteek hartu dute parte, bai eta arnaguneetako ikasleak jasotzen dituzten ikastetxeetako



Idiazabal, Azkoitia, Ataun eta Doneztebeko gazteak izan dira irabazleak.

Jasotako 112 lanetan jarri da marka berria eta haien kalitatea azpimarratzekoa izan da.

10-16 urte bitarteko gaztetxoek parte hartu dute.

ikasleek ere. Irailean abiatutako "Arnasetik" sormen lehiaketak azaroaren 22an izan zuten amaiera gala. Zarautzeko Modelo Aretoan. Lehiaketaren bigarren edizioa oso arrakastatsua izan da, iaz baino 13 lan gehiago jaso direlarik. Adinaren arabera

hiru kategorian izan ditu lehiaketak, eta kategorian bakoitzean erroka bati erantzun behar izan diote, guztiak euskararekin eta arnaguneetako hizkuntza-ohiturei zein bizipenei lotuak. Nahia Sillero influentzerra izan zen gidaria, eta Defie musikariak hiru pieza eskaini zituen.

Arnasa Gara ekimena euskararen arnaguneen garrantzia gizarteratzeko eta bertako herritarrek ahalduzko helburuarekin jaino zen, UEMAK, Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak sustatuta. Aurten "Arnasetik" sormen lehiaketa izan du ardatz ekimenak, eta arnaguneetako gaztetxoek izan dituzte jomugan, haien hizkuntza-ohituren inguruan gogoeta egiteko eta haien sormena sustatzeko. Izan ere, euskaldun eduki sortzaile gisa ere funtsezkoak dira euskararen biziberritze prozesuan. Info gehiago: www.arnasagara.eus

Eguberrien bueltan prest dituzte urteroko hitzorduak

Abenduaren 31n Mandoegira igotzeko proposamena egin du Arainburu Mendi taldeak

TTIPI-TTAPA

Eguberrietan badira urtez urte errepikatzen diren bisita eta ekintzak. Aurtengoak ere antolatzen ari dira eta urtea modu berezian bukatzeko Arainburu mendi taldekoek ere egin dute hitzordua.

Abenduaren 24an, 11:00etan umeak Olentzerorekin etxez etxe ibiliko dira Eguberrietako kantak kantatuz. Arratsaldean, 18:30ean, Olentzero eta Mari Domingiri ongietorria egingen diete. Eguraldiak lagunduz gero, herrira jaitsitakoan harrera xume bat egin eta herri osoan zehar kalejira egingen dute Olentzero eta Mari Domingirekin batera. Gero, urtero bezala umeekin egonen dira, hitz egin, kanta bat edo beste kantatu...

Abenduaren 31n, urtea mendiko kaxko batera igoz bukatze-



Arainburu mendi taldekoak. ARTXIBOA

ko proposamena ere egin dute. Mandoegira igoko dira eta 08:00etan abiatuko dira herriko plazatik. Bost ordu inguruko itzuli zirkularra izanenda. Bakoitzak bere hamaiketako eraman beharko du eta urteari amaiera emateko brindisa egingen dute tontorrean.

Urtarrilaren 5ean, Errege Kabalgata egingen dute. 18:30 aldera etorriko dira eta kalejira eginganda, opariak banatuko dituzte.



MAIALEN UITZI

Grebarekin bat egin dute herritarrek

Greba deialdiarekin bat egin eta kalera atera ziren azaroaren 30ean herritarrek. Zaintza denon eskubidea eta ardura dela aldarrikatuz kalejira egin zuten. Herriko plazan bildu ziren 18:00etan eta aterkiak eskuetan zituztela eta musikariek lagunduta itzulia egin zuten herrian.

Mendialdeko binakako pilota txapelketa jokatu dute Eguberrietan

TTIPI-TTAPA

Umore Ona, Araxes, Larraun eta Aurrera klubek Mendialdeko binakako pilota txapelketaren bosgarren edizioa antolatu dute. Abenduaren 22tik otsailaren 4ra jokatu dituzte partidak eta 30 bikote ariko dira lehiari, 60 pilotari

inguru. Sein, kimu eta haur mailatan lehiatuko dira. Goizuetako partidak abenduaren 22an, abenduaren 29an eta urtarrilaren 4an izanen dira, 17:00etatik aurrera. Finalerdiak, berriz, urtarrilaren 12an jokatu dituzte 18:00etatik aurrera.



FELIX LOIARTE

Euriak ez zuen lainotu XIX. Feria Eguna

XIX. edizioa izan zen azaroaren 25ean ospatu zutena eta jende ugari ibili zen. Postuz postuko itzulia egin, aziendak ikusi... eta 500 lagun inguru bildu ziren bazkarian. Artzain zakurren erakustaldiak ere ikusmina sortu zuen.

Umore Onak mus txapelketa antolatu du abenduaren 31n

Ohitura onak mantendu eta urteroko hitzordua antolatu du Umore Ona elkarteak abenduaren 31n. Mus txapelketa egingen dute eta txapelketa irekia izanenda, nahi duen orok parte hartu dezake. Umore Ona elkarteko goiko lokalean jokatu dituzte partidak eta interesa dutenek momentuan bertan izena emateko aukera izanen dute. 16:00etan elkartuko dira eta bikoteak antolatu ondok hasiko dira partidak jokatzeko. Irabazleek sariak izanen dituztela jakinarazi dute antolatzaileek.

Eguberri usainean hasiak dira herritarrak

Euskara zerbitzuak eta Dindaiak haurrentzako tailerrak antolatu dituzte abenduaren 26rako eta 27rako

TTIPI-TTAPA

Herritarrek apaindu dituzte etxe atariak. Eguberrietako arbolak eta argiak ikus litezke han eta hemen. Ate joka ditugu Eguberriak eta nabari da herrian. Aurtengoan ere, urteroko hitzorduek ez dute hutsik egingo.

Abenduaren 22an, eguerdian, eskolako haurrek kalejira egingo dute Eguberrietako kantak abestuz. Abenduaren 24an, goizean, herriko haur eta gurasoak izango dira baserritar jantziak soinean ditzutela kantuan ibiliko direnak. Iluntzean, berriz, Olentzero eta Mari Domingi etorriko dira eta Errandoneko atarian beraiekin elkartuta, plazarako bidea egingo dute denek. Azkeneko urteetan bezala, etxe bakoitzerako opariz betetako zaku bana ekarriko dute.



Haurrak kantuan. E.IRAOLA

Abenduaren 26rako eta 27rako haurrentzako tailerrak ere antolatu dituzte. Aresoko Euskara Zerbitzuak eta Dindaiak elkarlanean egin dute eskaintza eta egunean hiru orduz ariko dira jolasean.

Urtarrilaren 5ean, arratsaldean, zintzarriak jotzera aterako dira etxeko tikiak eta iluntzean, zintzarri hotsen artean, Erregeak joango dira opariak banatzera hala eskatzen duten etxeetara.



AMAIA IPARRAGIRRE

Errandonekoek diskoa kaleratu dute

Jaionek, Jonek, Aratzek, Intzarak, Aranek eta Nahikarrik diskoa kaleratu dute. Hamaika abesti bildu dituzte: herrikoiak eta tartean, beraiek sortutako bi. Diskoa nahi duena jar dadila beraiekin harremanetan. Abenduaren 27an Leitzako Herri Aretoan eskainiko dute emanaldia.

Genero indarkeriak hildakoak gogoan izan dituzte

Azaroaren 25erako deitutako mobilizazioekin bat egin zuten herritarrek. Elkarretaratzeak egin zituzten plaza zaharrea eta aurtin indarkeria matxistaren ondorioz eraildako emakume eta haur bakoitzaren alde, lore sorta bana jarri eta kandelak piztu zituzten.



Oroigarriak jarri zituzten. E.IRAOLA



E.IRAOLA

Egun osoan festan ibiltzeko aitzakia ederra

Abenduaren 3an Euskararen Eguna ospatu zuten herritarrek. Eguerdian kalejira egin zuten, beraien eskubidea delako Nafarroan ere euskaraz bizi nahi dutela aldarrikatuz. Pizza tailerra, ipuin kontaketak, jolasak... denetarik izan zuten.

2023 urteari dagokion ur tasa ordaintzeko garaia

Aresoko Udalak jakinarazi du aurtengo urteari dagokion ur tasa ordaintzeko epea zabalik dagoela. Herritarrek urtarrilaren 4ra arteko epea izanen dute tasak borondatez ordaintzeko. Egun horretatik aurrera, ordaindu beharreko tasari dagokion gainkargua gehituko zaiola azaldu dute. Kontua helbideratua ez dutenen eskura Caixabank, Nafarroako Rural Kutxa eta Laboral Kutxako kontu zenbakiak jarri dituzte. Norbaitek zalantza bat baldin badu udaletxean egin dezake kontsulta.

KIROLAK ZURE FALTA NABARITZEN DU

KAKUN MAINZ
Futbol entrenatzailea

Gehiago jakiteko



Emakumeok funtsezkoak gara taldeen zuzendaritzan eta arbitrajea.
Ezinbestekoak gara kirolak, eta harekin gizarteak aurrera egin dezaten.

Kirolak behar gaitu. Anima zaitetz, egin zaitetz entrenatzaile.

Baztango Kirol Taldea onenen artean gogotsu

Kopatik kanpo gelditu ondotik, ligan txapeldunen faserako sailkatzeko zazpi onenen artean sartzea dutela helburu aipatu digu Raul Bartolome entrenatzaileak



Txapeldunen faserako sailkatzea da Baztango BKT eskubaloi talde nagusiaren helburua. JUAN MARI OÑOKOL

Baztango BKT eskubaloi talde nagusia ongi hasi da aurren, Raul Bartolome eta Gurutze Aizpururen aginduetara. Konpetizio-sistema aldatu da eta «ligako lehen fasean talde guztien kontra jokatu dugu, baina itzulirik bakarrena, egokitzen den kantxan. Zazpi lehenbizikoak sailkatuko dira txapeldunen faserako eta hor bai, bi itzulitara ariko gara eta horko

lau lehenbizikoek final four jokatu dute» dio Bartolomek. Helburu nagusia, beraz, lehenbiziko zazpi postuetako batean sailkatzea dute, «baina akatsak egiteko marjen tikiagoa dugu orain: etxean talde handien kontra galdu dezakezu eta etxetik kanpo, ustez ahulagoak diren talderen baten kontra partidak zaildu daitezke eta gero ez duzu erreakzionatzeko

aukerarik». Hain zuzen, zazpi-garren dira hau idazterakoan BKTkoak. Raul Bartolomek aipatu digunez, «koparekin hasi genuen denboraldia, baina hiruko talde zaila egokitu zitzaigun eta bakarrik sailkatzen zen. Kanpoan gelditu ginen».

Aurren talde gaztea dutela aipatu digu entrenatzaileak, «26 urteko bakarren bat badugu, baina gehien gehienak

SENIORRAK

Jone URIARTE	JAIMERENA	ERRATZU
Ane BERHO	MIGELENA	ORONDOZ
Leire MUGIRO	LARREGI	ARIZKUN
Izaro DENDARIETA	ESCUDERO	IRURITA
Leire ARRAZTOA	ALEMAN	IRURITA
Naira IRIARTE	ARRIETA	ARIZKUN
Julene BAYLON	URTASUN	IRURITA
Ainara GOÑI	ALMANDOZ	ELIZONDO
Nahia GARAKOETXEA	LOBERASBERRIETA	
Amalia GARATE	APEZTEGIA	ORONDOZ
Elizabet BAYLON	URTASUN	IRURITA
Patricia DEL CAMPO	PELLICER	ELIZONDO
Narrea IRIARTE	ELIZANTZIN	ARIZKUN
Sara DORREGARAI	CIEREGI	IRURITA
Miren GONZALEZ	GALARREGI	ELIZONDO
Maldar ALTU	AIZPURU	ORONDOZ
Oihane IRIARTE	ELIZANTZIN	

Entrenatzaileak:

Raul BARTOLOME	CAJO	IRUN
Gurutze AIZPURU	GOÑI	ORONDOZ

18 eta 21 urte arteko neskek dira, iaz jubentzetatik pasatutakoak aunitz. Ikasteko eta motibatzeko ongi etorriko litzaieke txapeldunen faserako sailkatzea. Gero, hori lortuko bagenu, lauko finalean sartzea arraz konplikatu da, talde handiak daude hor, jokalaririk helduagoekin...». Gibeletik ere hainbat neska datozela azpimarratu du.

GILTXAURDI
UDAL KIROL INSTALAZIOA

Giltxaurdi, 38, 31700 ELIZONDO
Tel.: 948 45 23 01 giltxaurdi@baztan.eus
www.giltxaurdi.eus

- IGERILEKUA
- GUNE TERMALA ETA HIDROMASAJEA
- GIMNASIOA
- IKASTARO ESKAINTZA ZABALA

Zatoz kirola egitera!

BAZTANGO KT JUBENILAK



Uxue ZABALETA ZAMORA ORONOZ
 Irati BIGURIA ETXABARRI ELIZONDO
 Miren ARRATZTOA GARBALENA GARTZAIN
 Aza IPARRAGIRRE ITURZAETA ELIZONDO
 Iraide ITURREGI ZELAIETA ELIZONDO
 Mikele JUBERA IDOATE LEKAROZ
 Aroa KORTADI MARQUEZ ORONOZ
 Maialen MIGELORENA GASKUE BERRIETA
 Marina MENDIBURU CHARRIZ GARTZAIN
Entrenatzaileak:
 Iñaki URIARTE BALLARENA ERRATZU
 Pali GARMENDIA ARIZMENDI ELIZONDO

Jubenil mailako neskek ongi ari dira, Iñaki Uriarte eta Pali Garmendia historikoen gidaritzapean. Txapelketen faserako sailkatu eta bertan borrokan ari dira. **OKOKO!**

BAZTANGO KT KADETEAK



Saioa PEROTXENA DANBORIENA IRURITA
 Irati NEOL BURLADA ARIZKUN
 Irati MEOKI BALLARENA ELIZONDO
 Clara EGURROLA OLABE ELIZONDO
 Enara MINDEGIA ARGAIN IRURITA
 Lorea LIZARDI MUGIKA ELIZONDO
 Maddi LAZARO GARMENDIA ELIZONDO
 Maialen BALLARENA RIPA ELIZONDO
 Nora GALLEGRO IZETA IRURITA
 Oihana GAMIO EUGI IRURITA
 Nerea ELIZETXE SEGALÉS ELIZONDO
 Narca IPARRAGIRRE MEOKI ELIZONDO
 Elisa ITURRALDE OLABE IRURITA
 Ane MEZKIRITZ ORUBE ARIZKUN
 Ainhoa MEZKIRITZ ORUBE ARIZKUN
 Irati GAMIO JUANKORENA IRURITA
 Jaxone BAYLON URTASUN IRURITA
 June DENDARIETA ESCUDERO IRURITA
 Itzi IBARGARAI SANTESTEBAN ERRATZU
 Daniela DA MOYA PEREIRA ELIZONDO
 Izaro IANTZI IRIGOIEN GARTZAIN
 Arantza ETXEBERRIA ZABALETA ELIZONDO
 Narca ZABALETA ZAMORA MUGAURI
Entrenatzaileak:
 Jone URIARTE JIMMERENA ERRATZU

Kadete mailako neskek Jone Uriarte dute entrenatzaile. Hau idazterakoan bigarrenak dira sailkapenean. **OKOKO!**

JOSENEA
ZONE AUTO

DANTXARINEA

JOSENEA
BAZTANGO ESKUBALOI TALDEAREKIN
ELKARLANEAN ARI DA



www.josenea.es

BAZTANGO KT INFANTIL A



Infantil A mailako taldea, Naia Iriarte eta Ainara Goñi entrenatzaileekin. JUAN MARI ONDOKOL

Olatz GOÑI MEDRANO	ELIZONDO
Izadi MIHURA HABANS	ELIZONDO
Ixone URRUTIA REY	IRURITA
Maialen ZOKO ARGAIN	IRURITA
Irabre IBANEZ APEZETXE	IRURITA
Izaro GALLEGO IZETA	ELIZONDO
Eiara ARREGI SANSIÑENA	ELIZONDO
Izaro ITURREGI ZELAIETA	ELIZONDO
Itziar ZIAURRIZ GOÑI	ELIZONDO
Ane ELIZANTZIN LARRE	IRURITA
Elorri R.LARRINAGA MARITORENA	ANIZ
Jamila BAGGA AL MOUKHUS	ELIZONDO
Itsaso BALLARENA RIPA	ELIZONDO
Saioa BIGURIA HUARTE	ELIZONDO
Ane ETXANDI DANBORIENA	IRURITA
Ariane GARCIA SANSIÑENA	ELBETE
Ainhoa GAMIO EUGI	IRURITA
Entrenatzaileak:	
Naia IRIARTE ARRIETA	ARIZKUN
Ainara GOÑI ALMANDOZ	ELIZONDO

BAZTANGO KT INFANTIL B



Izaro URRUTIA BRAÑA	LEKAROZ
Jone ARRAZTOA CIA	IRURITA
Uxoa IANTZI IRIBOIGIEN	GARTZAIN
June LABORRA ELIZEGI	LEKAROZ
Laila ARRIADA LIZASOAIN	
Laila OBREGOZO SASERAS	IRURITA
Nahia IBARGARAI SANTESTEBAN ERRATZU	
Itzi MITXELENA JUANABERRIA	LEKAROZ
Uxue IRIBARREN OTEIZA	IRURITA

esperientzia dutenak, pisuko jendea. Esnaolari eta Aduriz, adibidez, ebakuntza egin beharra diote eta denboraldi guztia galduko dute. Hori nabaritu dugu, baina hiru lehenbizikoetan sartzeko helburu hori mantentzen dugu. Zenbat eta zailtasun gehiago, bidean gehiago sufritzen da, baina gero helburuak lortzen badira, poztasuna ere handiagoa izaten da», dio Zubietak. Horretarako ongi ikusten du taldea,



ERREGIONALEKO 1. MAILA

Urko ADURIZ ZUÑEDA	URRUNA
Unai ALZUGARRI ARANBILLET	BERA
Alex ALZUGUREN GOIA	BERA
Gorka APAKUES ARRIBILLAGA	BERA
Ismail BENSAD BIURRARENA	BERA
Unai ETXEGARAI ELGORRIAGA	BERA
Mikel ESNAOLA URKIA	BERA
Urtzi FAGOGA AL VAREZ	BERA
Joel FREIRE GOMEZ	BERA
Unai GARRO UNSION	BERA
Aduir HUIZ MATXARENENA	BERA
Jon IRAZOKI ARANBURU	BERA
Mikel IRAZOKI ZELAIETA	BERA
Berak IRAZOKI TELLETXEA	BERA
Aitzel IRIZAR ARISTIA	BERA
Aimar LEKUONA LAZKANO	BERA
Xiker LIZARDI ARTOLA	BERA
Unai LLUZIA BEORLEGI	BERA
Xabier MATXOTE ETXaide HONDARRIBA	
Bogdan MARION MARTON	LESAKA
Andoni OTXOTOKO PERUGORRIA	ETXALAR
Enaitz PORTU ZELAIETA	BERA
Joel PRENDES PIKARETA	BERA
Iñaki RUIZ MARTIKORENA	BERA
Andoni TELLETXEA APEZTEGIA	BERA
Manex ZAPIAIN ABUIN	BERA
Ent.: Ganix ZUBIETA RODRIGUEZ	BERA
Lag.: Bitter TXANTRE IRAZOKI	BERA
Lag.: Ruben PEDROSA MEDINA	BERA

«gazteek irabazteko gose hori eman digute eta eta teknikoki kalidade gehiagoko taldea izatea». Gure Txokoak azken urteetan harrobi lan ona egin duela ere azpimarratu du Zubietak, «jendea konprometitua dago eta entrenatzaileek eza-gupen gehiago dituzte».

 ugaldea

AHOLKULARITZA
FISKALA KONTABLEA

Rafa Pombar Sainz

Sara karrika 1, 31780 BERA (Nafarroa)

tel 948 63 02 01 fax 948 63 02 55 e-mail ugaldea@ugaldea.com

GURE TXOKOA GIPUZKOAKO MUTIKO JUBENILEN OHOREZKO MAILA



Gipuzkoako lehen mailan ari da Gure Txokoako gazteen taldea eta liga dotorea osatzen ari da. AITOR AROTZENA

Luka ALTZUGUREN GOIA	BERA
Joanes ARISTIMUNO MUTUEBERRIA	BERA
Aitor ETXEBERRIA OSUA	BERA
Eneko ETXEBERRIA OSUA	BERA
Enaitz ERKIZIA LASAGA	BERA
Ion ERRANDONEA GARBALENA	BERA
Unai ETXEBERRIA GOIA	BERA
Urbi ETXEGARA TABERNA	BERA
Kenai GARCIA CURTO	BERA
Amairu GOÑI FLORTZA	BERA
Jokin IRAZOKI TELLETXEA	BERA
Eneko LOIARTE OIARTZABAL	BERA
Pelo MARTIKORENA ETXANDI	BERA
Maribel MATXIKOTE ZOKO	BERA
Ivan NÚÑEZ PEREZ	BERA
Ekai POMBAR HERNANDORENA	BERA
Mikel POMBAR HERNANDORENA	BERA
Kemen RUIZ ZAPIAIN	BERA
Luka TRILLO GOIA	BERA
Ion URKIOILA REBOLLO	BERA
Adel VILLAMEA IZAGIRRE	BERA
Alain ZELAIETA BERSATEGI	BERA
Eneko ZELAIETA LAZKANO	BERA
Mikel ZOZAIA INARREA	BERA
Entrenatzaileak: Juan Luis IRAZOKI,	
Angel ARANBAR eta Iñigo SAROBE	BERA

GURE TXOKOA GIPUZKOAKO KADETEEN GORENGOEN MAILA



Jon GOÑI OTAMENDI	BERA	Martin PEREZ TAPIA	BERA
Julen GOÑI OTAMENDI	BERA	Xiker RUIZ ZAPIAIN	BERA
Ibai LEKUONA HUIZI	LESAKA	Maribel SALGADO IGUARAN	BERA
Peru LEKUONA MOLINERO	BERA	Moussab SEHLI KADI	BERA
Oier LLUZIA BEORLEGI	BERA	Inhar TABERNA MARTINEZ	BERA
Ibai MATXIKOTE ZOKO	BERA	Entrenatzaileak:	
Bruno MONCALVILLO GARCIA	BERA	Sergio MORATE BERGARA	BERA
Pelo MORATE ANDUEZA	BERA	Jose REMIREZ BURGUILLO	BERA

GURE TXOKOA GIPUZKOAKO KADETEEN LEHEN MAILA



Unax AIZPURUA IBARGARAI	SARA	Oier MARTIN FAGOGAGA	BERA
Gorka ALZUGUREN FLOREZ	BERA	Andoni OFFROY SAHARRIA	BERA
Andoni APEZETXEA ALMANDOZ	BERA	Unax OIARZABAL LAKASTA	BERA
Jon AROSTEGI IRAZOKI	BERA	Gexan SAN JUAN AROTZENA	BERA
Lautaro BARAUNA TORRES	BERA	Catalin STEPIRTA	BERA
Oier BARCENILLA LANCHAS	BERA	Ioritz TAPIA ALVAREZ	BERA
Kalet ERKIZIA ORDOKI	BERA	Iñigo UGALDE GARCIA	BERA
Jokin BENGOTXEA LEZAGOEN	ZUGAR	Iñaki UGALDE PERUGORRIA	BERA
Iker ETXEPARE VIVANCO	BERA	Eneko URKIOILA MARTIN	LESAKA
Haritz GARMENDIA SEBASTIAN	BERA	Markel ZELAIETA BERSATEGI	BERA
Ekhiotz IRATZOKI SENPER	BERA	Ent: Enaitz PORTU, Amets LIZAGO eta	
Ibai MATXIKOTE ZOKO	BERA	Aritz ARBELAITZ	BERA



Guillermo LARRAÑAGA dokorea

KIRURGIA KARDIOBASKULARRA / FLEBOLOGIA / LINFOLOGIA



- Barizeak, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua
- Kirurgia integrala teknika pertsonalizatuekin
- Tratamendu estetikoak, armiarma eta malformazioena
- Ekografia kardiobaskular diagnostikoa - Ekointerbenzionismoa
- Zainetako ultzerak, gaixotasun linfatikoak

Centro Médico Bera
San Esteban 17, Bera

Telefonoa: 610 549 507

GURE TXOKOA NESKA KADETEAK



Neska kadeteak bikain ari dira lehen aldiz Gipuzkoako ligan. Orain arte ez dute partidarik galdu. GURE TXOKOA

Maria ALZUGUREN ZABALA	BERA
Elaia BOAN MANZISIDOR	BERA
June ERKIZIA LASAGA	BERA
Ane ERRANDONEA GARBALENA	BERA
Olatz IRAZOKI TELLETXEA	BERA
Amala IRIARTE ETXANDI	BERA
Iraia KORTA BIKUÑA	BERA
Aiora LAZKANO ELIAS	BERA
Uxue LEKUONA AGIRRE	BERA
Malen MORATE ANDUEZA	BERA
Oihana NUNEZ PEREZ	BERA
Ane OTAEGI DE BRITO	BERA
Haizea OTAEGI DE BRITO	BERA
Eluska POMBAR LARRALDE	BERA
Lierri SARALEGI ZUBIETA	BERA
Mara SAROBE AGIRRE	BERA
June VIÑAO BERTIZ	BERA
Entrenatzaileak:	
Angel POMBAR SANZ	BERA
Ion ENDIKA SARALEGI ALZATE	BERA

GURE TXOKOA MUTIKO INFANTILAK GIPUZKOAKO 1. MAILA



Unai ALAPONT ETXEGOIEN	BERA	Brahim LATEGUI	BERA
Limber ALBARCA CUENCA	BERA	Tiago LOBO LOMPRES	BERA
Ibai ARISTEGI SUHAS	URDAZUBI	Aleix MORAN	BERA
Oihan DE CRUZ PIZZIO	BERA	Markel OTXOTEKO MIHURA	ZUGAR
Yasir EL OUAFI DUAL	BERA	Urko OTXOTEKO ORDOKI	BERA
Ekaitz ERRANDONEA IRIBARREBERA	BERA	Xabier PEREZ TAPIA	BERA
Xiker FERNANDEZ OTXOTEKO	BERA	Ibon POMBAR HERNANDORENA	BERA
Bautista IBARBUR	BERA	Hegoi RETEGI RICO	BERA
Gorka IRIARTE SANSINENA	BERA	Mikel URROZ ZUDAIRE	BERA
Cormin JOJESQU	BERA	Pedro ZANETTI ALVES	BERA
Barac LATEGUI	BERA	Ent.: Jokin RICO eta Aier LARRANAGA	

GURE TXOKOA FUTBOL-8 NESKA INFANTIL-ALEBINAK A



Alazne ERRANDONEA IRIGOIEN	BERA	Kenia RICO IGOA	BERA
Ane LAZKANOTEGI GABIKAGOXEASKOA	BERA	Amalia URROZ ZUDAIRE	BERA
Sara LAZKANOTEGI GABIKAGOXEASKOA	BERA	Onintza CAMINO SUBIZAR	ZUGAR
Arca MARTIN FAGOAGA	BERA	Nahai DE CRUZ PIZZIO	BERA
Enara AGIRRE JORAJURIA	BERA	Entrenatzaileak:	
Mara ARACUES ARRIBILLAGA	BERA	Miren ZUDAIRE AJONA	BERA
Uxue GOIA GARCIA	BERA	Naiara TRIGUEROS TOMASENA	BERA
Garazi IRIARTE PLAZA	BERA	Noah UBIRIA	BERA
Muskoa LAZKANO LASAGA	BERA		

TOKI ONA UDAL KIROLDEGIA

ORDUTEGIA Orain gozago irekia!
 Astelehenetik ortziralerara 08:00-22:00
 Larunbatetara: 09:30-13:30/16:30-21:00
 Igandetara: 10:00-13:30

Plaza libreak aktibitateetan! Etorri probatzera!
 Abona zaitetz fitness gelara zure helburuak betetzeko
ENTRENAMENDU PROGRAMA bat eginen dizugu!
ESKATU ORDUA MONITOREAREKIN!

ZURE
MOMENTUA
GAUR DA

**SAS
TRA
NO**

KIROL ZERBITZUAK
 Berako Toki Ona Kiroldegia

 BERAKOUDALA

Oparitu ongizatea, oparitu dibertsioa!
BONO OPARIAK EGITEN DITUGU

Tel. 948 630 215 / 662 300 763 | info@sastrakokirola.eus

GURE TXOKOA FUTBOL-8 NESKA INFANTIL-ALEBINAK B

Lala ARANBURU MONCAYOLA BERA
Aiora BOAN MANZISIDOR BERA
Elorri GOÑI ELORTZA BERA
Uxua LEKUONA ERRANDONEA BERA
Julene ALZUGUREN FLOREZ BERA
Irati ARANBURU MONCAYOLA BERA
Ariane GOIKOETXEA MITXELENABERA
Irati HUZI SANCHEZ BERA

Ihintza IPARRAGIRRE GOIA BERA
Mili NUÑEZ HERNANDEZ BERA
Mari OFFROY SAHARREA BERA
Alaia URROZ ZUDAIRE BERA
Maddi JIMENEZ BENGOTXEA URDAZ
Joana JIMENEZ BENGOTXEA URDAZ
Ent.: Miren ZUDAIRE, Naiara
TRIGUERO eta Noah UBIRIA BERA

GURE TXOKOA FUTBOL-8 MUTIKO ALEBINAK A

Alejandro ARREDONDO SEVILLA BERA
Ekai DOZAGARAT PEÑA BERA
Alain ENDARA RODRIGUEZ BERA
Unax ERKIZIA LASAGA BERA
Aner ERRANDONEA LEGAZKUA BERA
Xuban LASAGA ANDUEZA BERA
Jon LAZKANO FAGOGA BERA
Urko LEKUONA ERRANDONEA BERA

Jon MARTIKORENA ETXANDI BERA
Ladix MATXIARENA GOGORTZA BERA
Xabier PEREZ IRIBARREN BERA
Xabier SUASNAVAS AGUILAR BERA
Markel VEGA ZELAETA BERA
Aierri IANTZI PIKABEA BERA
Entrenatzaileak: Iratzi ENDARA eta
Gontzal ERRANDONEA BERA

GURE TXOKOA FUTBOL-8 MUTIKO ALEBINAK B

Adur AROZENA EL RIO BERA
Oinatz AROZENA EL RIO BERA
Enaitz BALDA AGINAGA BERA
Iker CAPDEQUI ZAPIRAIN BERA
Xan ZELAJETA ZELAJETA BERA
Benat GOÑI ERRANDONEA BERA
Markel HUZI MATXIARENA BERA
Xamari LAZKANO LASAGA BERA
Damian POP YILLA BERA
Inar RETEGI RICO BERA

Haroun SEHU KADI BERA
Angel TABERNA MARTINEZ BERA
Peto TAPIA AGIRRE BERA
Matijs ZUAZO REY BERA
Lander ESPIN JIMENEZ BERA
Koldo USTARIZ PEREZ BERA
Eñaut ZUBIETA GARCIA BERA
Eneko OIARZABAL BERRUETA BERA
Igor TELLETXEA APEZTEGIA BERA
Ent.: Herman NUÑEZ eta Ion ZELAJETA

GURE TXOKOA FUTBOL-8 BENJAMINAK A

Alain ERRANDONEA LEGAZKUE BERA
Oskitz ERRANDONEA LEGAZKUE BERA
Unai LAZKANO FAGOGA BERA
Gezan UZARDI GARCIA BERA
Benat OTXOTEKO ORDOKI BERA
Julen PEREZ TAPIA BERA
Damian POPOV BERA

Irati AGIRRE BARRERO BERA
Xuane ALZUGUREN IRATZOKI BERA
Ane IRAZOKI ZOZAIA BERA
Nahia LARRANAGA MENDIBURU BERA
Entrenatzaileak:
Enaitz ERKIZIA LASAGA BERA
Aritz PEREZ ARTIEDA BERA

GURE TXOKOA FUTBOL-8 BENJAMINAK B

Kemen ARANBAR ROUGET BERA
Hodei BALDA AGINAGA BERA
Nicolas HARASCIVC BERA
Unai KORTA IRATZOKI BERA
Markel LASARTE BARRERO BERA
Alain MARTINEZ MORA BERA
Aitor NAPAL PERUGORRIA BERA

Martin OTXOTEKO MIHURA ZUGAR
Adei PIKABEA GOMEZ BERA
Xelbat TELLETXEA ALKORTA ZUGAR
Peru IANTZI ERRANDONEA BERA
Urko VEGA ZELAJETA BERA
Ent.: Mikel POMBAR HERNANDORENA
Ent.: Angel ARANBAR ALMANDOZ

GURE TXOKOA FUTBOL-8 BENJAMINAK C

Oihan CAMINO SUBIZAR ZUGAR
Luka DOMINGUEZ EL GORRIAGA BERA
Lihor GARMENDIA BEREAU BERA
Adur IRATZOKI ALMANDOZ BERA
Kemen IRATZOKI ALMANDOZ BERA
Markel IRIARTE PLAZA BERA
Alain LAZKANO ZOZAIA BERA
Daniel LAZKANO LASAGA BERA

Hegoi LEGAZKUE BERBEL BERA
Adur MARTIKORENA AGIRRE BERA
Egoitz MARTIKORENA SUHAS BERA
Hugo PEREIRA CORTIZO BERA
Jon TELLETXEA BERTIZO BERA
Arane PEREZ IRIBARREN BERA
Ent: Unai LLUZUA BEORLEGI BERA
Ent: Benat IRAZOKI TELLETXEA BERA



Aurrera futbol talde nagusia, Arkiskil zelaian ateratako argazkian. ARGAZKIAK: PABLO FEO



Preferente mailan aurten estu dabil Leitzako Aurrera

Esperientzia zuten jokalariek taldea utzi ondotik, Altsasun talderik gabe gelditutako sei jokalar sartu direla aipatu digu Jose Luis Arrizurieta entrenatzaileak

Nafarroako Preferente mailan lehen urte polita egin zuen iaz Leitzako Aurrera taldeak, baina aurten gehiago kostatzen ari zaio. Hau idazterakoan bi partida bakarrik irabazi ditu eta jeitsiera postuetan dago. Jose Luis Arrizurieta *Arri* entrenatzaileak aipatu digunez, «taldean esperientzia zuten jokalar garrantzitsu askok utzi zuten eta azkenean, Altsasun, bi talderekin bat egin eta kanpoan gelditutako sei jokalar

etorri dira. Ongi egokitu dira, jatorrak dira, dinamikan sartu dira, baina belar naturalean jokatzeko ohiturarik ez dute eta hori sumatzen da, kostatzen zaie Leitzako zelaian aritzea, negu partean zelaia pisu izaten da eta indar handia behar da, ez dabelar artifizialean jokatzeko bezala». Gainera, azken urteetan talde asko jaitsi dira autonomikatik «eta maila handia dagoela» uste du *Arrik*. «Eginalak egiten ari gara, baina

joan den urtean gure aldera erortzen ziren partida berdin du horiek, orain galdu egiten ditugu, batzutan merezi gabe. Gola egitea kosta egiten zaigu, baina ez dugu etsitzen!». Garai honetan, gainera, «zelaian ezin dugu sartu eta kiroldegian entrenatu beharra daukagu eta gero hori nabaritzen da». Belar artifizialeko zelaia egiteko mugitzen ari da Aurrera eta Leitzako udala, baina oraindik ez dago deus zehazturik.

PREFERENTE

Ander ALDUNTZIN IBAÑEZ	LEITZA
Egoitz BARRIBAR ETXARRI	LEITZA
Asier BARRIOLA ZOZAIA	LEITZA
Raul CLAVER MORENO	ALTSASU
Saif EDDINE HAYATI	ALTSASU
Ander ESKUDERO ORBEGOZO	LEITZA
Jakue FAGOAGA UNANUA	ANTSOAIN
Oier GOKOETXEA SAGASTIBELTZA	LEITZA
Ion INSAUSTI GOMEZ	ALTSASU
Martxel INTXAUSTI LASARTE	LEITZA
Jon IPARRAGIRRE BARRIOLA	LEITZA
Aitor LARA ZIA	ALTSASU
Oihatz MARIEZKURRENA BALDA	LEITZA
Aritz MARQUES IMAZ	ALTSASU
Javier MORRAS JORGE	ALTSASU
Joanes OIARTZUN ALDANA	LEITZA
Joritz OIARZABAL CEBALLOS	LEITZA
Cristian Ramon PEREZ GONZALEZ	LEITZA
Mikel SAGASTIBELTZA EGUES	LEITZA
Jon Martin SUKUNTZA TELLETXEA	LEITZA
Jon VAZQUEZ URANGA	LEITZA
Mañel WOSCHWILL VIGUERA	LEITZA
Adei ZUBILLAGA CEBALLOS	LEITZA
Eñaut ZUBIRI ARBURUA	LEITZA
Entrenatzaileak:	
Jose Luis ARRIZURIETA BILDARRAZ	LEITZA
Z. entrenatzaileak:	
Iker BENGOTXEA PERURENA	LEITZA
Praktiketako entrenatzaileak:	
Joanes OSKOK AZECHU	LEITZA



Aniote

Amazabal kalea, 39 - 31880 LEITZA | Tel. 948 510 719 | kirolak@leitza.eus

LEITZAko UDAL KIROLDEGIA
Zatoz gurekin kirola egitera!

AURRERA ARETO-FUTBOL TALDEA MUTIKO JUBENILAK



Ugaitz UGARTEMENDIA MENDIZABAL LEITZA
 Aitor LIZARTZA RODRIGUEZ LEITZA
 Odei GARMENDIA AZPIROZ LEITZA
 Kamen DERTIANO GARTZARIAL LEITZA
 Oier ARANBURU KANFLANKA LEITZA
 Iraitz ZABALETA LASARTE LEITZA
 Ibai OTERMIN GURUTYARRI LEITZA
 Eneko BARRIOLA ZOTZUA LEITZA
 Hodei ANAUT OTXOTORENA LEITZA
 Jon ITURRIOTZ BELAUNTZARAN LEITZA
 Eder SAGASTIBELTZA URANGA LEITZA
 Eneko MARINELARENA EGUES LEITZA
 Jon Mikel AGIRRE CABALLERO LEITZA
 Ibai REMIREZ ORMAETXEBERRIA LEITZA
 Oihan MARTORENA ETXEBERRIA LEITZA
 Kenay CUMBA PICHAMRA LEITZA
 Paul FEO MIGUELA LEITZA
 Beñat BALEZTENA OTXOTORENA LEITZA
 Imanol BURRARENA ORTIZ LEITZA
 Ander REKONDO IRIGOIEN LEITZA
 Aier MONTERO ARRIZURIETA LEITZA
 Aimar DEL GADO AGIRRE LEITZA
 Ent.: David DEL GADO MTNEZ LEITZA
 Del.: Adoi ZUBILLAGA CEBALLOS LEITZA
 Del.: Joanes OARTZUN ALDARA LEITZA

AURRERA ARETO-FUTBOL TALDEA NESKA JUBENIL-KADETEAK



Paula AGIRRE AGIRRE LEITZA
 Alora ANDIARENA VILLANUEVA LEITZA
 Nerea ATXUKARRO TOLOSA ARESO
 Haizea BARAIBAR GOÑI ARESO
 Aiaia BARBERIA CARBAJO LEITZA
 Eunate BELAUNTZARAN ETXABE ARESO
 Olaia CERVINO VICENTE LEITZA
 Lena ESTEBAN LANA LEITZA
 Maddi ITURRIOTZ BELAUNTZARAN ARESO
 Kattalin KANFLANKA ARBURIAL LEITZA
 Kattalin LIZARRAGA MENDIA LEITZA

Ane LOITEGI ZABALETA LEITZA
 Nerea MARIEZKURRENA ALDUNTZIN
 Maddi MTNEZ-BARRANCO DUCELEITZA
 Nerea OLANO SAGASTIBELTZA LEITZA
 Kattalin RETEGI FERNANDEZ LEITZA
 Nerea SAGASTIBELTZA ALDUNTZIN LEITZA
 June VICENTE AGIRRE LEITZA
 Uxue ZABALA ZUMARRAGA LEITZA
 Goiti ZABALETA RODRIGUEZ LEITZA
 Naia ZUBILLAGA BURUNTZA LEITZA
 Ent.: Haizea BELAUNTZARAN ASTIBIA

AURRERA ARETO-FUTBOL TALDEA MUTIKO KADETEAK



Oier LIZARTZA RODRIGUEZ LEITZA
 Mikel PORTU BARRINAGA-REMENTERIA
 Markel MTNEZ SAGASTIBELTZA LEITZA
 Ekaitz MITXELENA LEKUONA LEITZA
 Uxue ZABALETA GARTZIA LEITZA
 Oinatz ALKORTA OROÑOZ LEITZA
 Garix RODRIGUEZ URRUTIA LEITZA
 Ibai IMAZ EZKURRA LEITZA

Ruben MARIÑELARENA EGUES LEITZA
 Aimar ITURBE SAENZ LEITZA
 Aimar REKONDO CABALLERO LEITZA
 Mikel ALDUNTZIN OTXOTEKO LEITZA
 Sebastian CHINDRIS LEITZA

Entrenatzailea:
 Joseba Miren VICENTE OLANO LEITZA

AURRERA ARETO-FUTBOL TALDEA NESKA KADETE-INFANTIL



June URKIOLA MARIEZKURRENA LEITZA
 Amaluz ALONSO SAENZ LEITZA
 Iria AMUNDARAIN GARRIDO LEITZA
 Maren ARBURUA AGIRRE LEITZA
 Maria ARRARAS SARALEGI LEITZA
 Maddi ASTIBIA ZAMARRIDE LEITZA
 Nerea BELAUNTZARAN ZABALETA ARESO
 Nahia BENGOTXEA GOMEZ LEITZA
 Anne DE CARLOS LASA LEITZA
 Lur DE CASTRO ZABALETA LEITZA

Nahia DIAZ PUIG LEITZA
 Neaira JUANIKORENA MARIEZKURRENA
 Laida MARTORENA ETXEBERRIA LEITZA
 Izeti SAGASTIBELTZA LEKUONALEITZA
 Aiaia TELLETXEA BUI DAIN LEITZA
 Iera URBILZU GARTZARENA LEITZA
 Izaro URKIOLA ULAIAR LEITZA
 Yuse ZABALETA GARTZIA LEITZA
 Ent.: Maddi AGIRRE CABALLERO eta
 Luna ALONSO SAENZ LEITZA

AURRERA ARETO-FUTBOL TALDEA MUTIKO INFANTILAK



Aitor UGARTEMENDIA MENDIZABAL
 Oier ZABALETA RODRIGUEZ LEITZA
 Amets GERENO GARCIA LEITZA
 Hodei SAGASTIBELTZA BENGOTXEA
 Ekaitz GOMEZ ARIZTIMUÑO LEITZA
 Manex LASARTE ASTIBIA LEITZA
 Ibai LASARTE ALTARRIBAR LEITZA
 Andoni BELAUNTZARAN ETXABE LEITZA
 Manex LEKUONA ASTIBIA LEITZA
 Gentza OLATXEA LABAIEN LEITZA
 Kimel ZABALETA HERNANDEZ
 Markel MARIÑENARENA EGUES LEITZA

Unai LABAIEN LARRAIA LEITZA
 Erahun SARALEGI URRUTIA LEITZA
 Tasio LIZARRAGA MENDIA LEITZA
 Oihan ARRUPERA PERURENA LEITZA
 Oihan BARAIBAR LOIARTE LEITZA
 Aier DORRONSORO IPARRAGIRRE
 Peio AGIRRE AGIRRE LEITZA
 Alvaro ZUBITUR PASCUAL LEITZA
 Ander Rafael FREIRE MUGIKA LEITZA
 Jose Alberto DUARTE RIVERA LEITZA
 Ent.: Ugaitz UGARTEMENDIA MENDIZABAL
 eta Adoi ZUBILLAGA CEBALLOS LEITZA

AURRERA ARETO-FUTBOL TALDEA ALEBIN A



Aitor ALKORTA ORONOZ	LEITZA	Markel REKONDO CABALLERO	LEITZA
Iraitz ANDIARENA VILLANUEVA	LEITZA	Juba VICENTE AGIRRE	LEITZA
Aier BARAIBAR GOÑI	ARESO	Iker ZESTAU AZPIROZ	LEITZA
Eñaut BIDART ZABALETA	LEITZA	Oscar ZUBITUR ARRIZURIETA	LEITZA
Ametz DE CASTRO ZABALETA	LEITZA	Entrenatzaileak:	
Ibai EGIZABAL SAGASTIBELTZA	LEITZA	Ekaitz MUTUBERRIA GASTESI	LEITZA
Xabier LOITEGI ZABALETA	LEITZA	Manex ZABALETA BALANZATEGI	LEITZA

AURRERA ARETO-FUTBOL TALDEA ALEBIN B



Enai ARIZTIMUÑO OLANO	LEITZA	Aitor Geronimo CUMBA SANCHEZ	LEITZA
Ibai GENUA AGIRRE	LEITZA	Oier HUIZI URROZ	LEITZA
Narcos LASARTE ALTARRIBAS	LEITZA	Aitor Josue DUARTE RIVERA	LEITZA
Airywar PORATE MUFENALA	LEITZA	Randy LOPEZ BONILLA	LEITZA
Nuria IRUJO ARRUEPA	LEITZA	Andoni HERNANDORENA IREGI	LEITZA
Joselu BARBERIA CARRAJO	LEITZA	Egoi ZABALETA SANTESTEBANI	LEITZA
Oihan GOIKOETXEA GONZALEZ	LEITZA	Ent: Oier ARANBURU KANFLANKA	LEITZA
Eki ARANZEGI GONZALEZ	LEITZA	Keren DERTIANO GARTZARRENA	LEITZA

AURRERA ARETO-FUTBOL TALDEA BENJAMIN A



Unai ALKORTA ORONOZ	LEITZA	Ekhi GOROSTARZU SANCHEZ	LEITZA
Julen ARZALLUS GARCES	LEITZA	Urki OTAEGI SAGASTIBELTZA	LEITZA
Eraitz BENGOTXEA ARIZTIMUÑO	LEITZA	Ekai SAIZAR EZKURRA	LEITZA
Markel BENGOTXEA GOMEZ	LEITZA	Xabier ZABALETA MUJICA	LEITZA
Taiwa Samyu CUMBA SANCHEZ	LEITZA	Noris LUCIAN CURAC	LEITZA
Oihan ELIZALDE ALDUNATE	LEITZA	Ent: Eneko BARRIOLA ZOZAI	LEITZA
Kiran ERDOZIA ZABALETA	LEITZA	Eder SAGASTIBELTZA URANGA	LEITZA

AURRERA ARETO-FUTBOL TALDEA BENJAMIN B



Lide URKOLA MAREZKURRENA	LEITZA	Aner OTERMIN IRIARTE	LEITZA
Ametz BARAIBAR ALUSTIZA	LEITZA	Enai REKONDO ANTIZAR	LEITZA
Pello BELAUNTZARAN RIAÑO	LEITZA	Pelo VALDES MUGIKA	LEITZA
Irai ETXEBERRIA VILLABONA	LEITZA	Oihan ZUBILLAGA HERNANDORENA	LEITZA
Markel HUIZI URROZ	LEITZA	Hegoi ZUBILLAGA SUKUNTZA	LEITZA
Xabat LIZARRAGA DE MIGUEL	LEITZA	Entrenatzaileak:	
Oian MIHURA MARTINEZ	LEITZA	Egoitz BARAIBAR ETXARRI	LEITZA

GARAI
NUTRIZIOA ETA ERRENDIMENDUA

NUTRIZIOA
Kirol Nutrizioa
Elikadura Hezkuntza
Nutrizio klinikoa
Osasun hormonala

PSIKOLOGIA
Psikologia orokorra
Kirol psikologia

garaizentroa.com
Igaralde, 4 TOLOSA
711 755 227 • 689 381 992
info@garaizentroa.com

AURRERA ESKUBALOI TALDEA ALEBII MISTOA



Jare ZABALETA ASTIBIA LEITZA
 Izar ETXEBERRIA VILLABONA LEITZA
 Maren OLAIZOLA TELLETXEA LEITZA
 Irune GOIZUETA URDANIZ LEITZA
 Nahia GOIZUETA URDANIZ LEITZA
 Emili COVACI LABAEN LEITZA
 Nahikari ZUBILLAGA NORIEGA LEITZA
 Hegea AZPIROTZ ERBITI LEITZA
 Julene RODRIGUEZ URRUTIA LEITZA
 Nahia TERUEL LEITZA
 Ekhi SAGASTIBELTZA URIARTELEITZA
 Xabier ZUGARRMURDIBARRAGA-REMENTERA
 Ane ZABALETA PRADA LEITZA
 Garazi LIZARRAGA MENDIA LEITZA
 Nahia LEUNDA BERGARA LEITZA

Haizea ERBITI SALBARREDI LEITZA
 Maddi BARAIBAR LOIARTE LEITZA
 Aintze ALDUNTZIN IRANZO LEITZA
 Aiarra VILLALOBO ZUBILLAGA LEITZA
 Xurrai BIDARTE CUELI LEITZA
 Maialen OLABARRI RODA LEITZA
 Eneritz GOMEZ ARIZTIMUÑO LEITZA
 Elais LIZARRAGA VIGUERA LEITZA
 Iaki SARALEGI HERWINDORENA LEITZA
 Urzi UHARTE LUJANBIO LEITZA
 Laisne OLANO SAGASTIBELTZA LEITZA
 Julen OLABARRI RODA LEITZA
Entrenatzaileak:
 Garazi ZABALETA LEITZA
 Lide SANTANO LEITZA

bidas  **il** E.S. PUNTTAS

N-121A errepidea 74. km. **BEHOBIA IRUN**
 ☎ **943 638 224**

ERREGAI MOTA GUZTIAK, DENDA...
PREZIO EZIN HOBEAK!



**BIZIKLETEN
 SALMENTA ETA
 KONPONKETA**

2. eskuko bizikletak,
 gimnastika eta fitness makinak,
 bizikleta estatikoak,
 korrika egiteko zintak...



ORBEA

PINARELLO

MONTY

BERGAMONT

BH

MERIDA

Kanttonberri, 1 | BERA
 Tel. 948 631 218 | joxemi@kateabike.com

www.kateabike.com



Menditarrak-BRT taldeko seniorrek Lekarozen. MENDITARRAK BRT

Euskal Ligan goitian egon nahi du Menditarrak-BRTk

Euskal Ligako lehen mailan ongi lehiatzen ari da Menditarrak-BRT talde seniorra eta gazteak Irungo Txingudi taldekoekin ari dira, Txinbaz taldean

BRT Menditarrak taldearen helburu nagusia argi dago aurten ere, «gure eskualdean errugbia jokatu eta zaleei eskaini ahal izatea». Aurtengo denboraldian seniorrak arras egoera onean daude, 35 jokalarirekin eta hori hurrengo urteetan mantentzea izanen da lehentasunetako bat.

Bertzalde, harrobian eta eskolan jokalariai badituzte, baina txapelketetan talde propioa ateratzea arras zaila da. Adibidez, aurten, 16 urtez

beheitikoak Irungo Txingudi taldekoekin batera ari dira euskal ligan, Txinbaz taldea osatuz. Hori dela eta, jokalariai gazteei «gure kirola probatzeko gonbitea» egin diete BRT Menditarrak taldeko ordezkariak. Horretarako, 7 eta 11 urte arteko neska-mutikoei zuzendutako errugbi eskola ortziraleroko biltzen da Lekarozen, 18:00etan; 14 eta 16 urtez beheitikoak asteazken eta ortziraletan 20:00etan eta seniorrak ordu berean.

Kirol aferei begiratuta, joan den urtean maila mantendu eta Euskal Ligako lehen mailan ari da aurten ere BRT Menditarrak taldea, urrats bat aitzinera egin asmoz. «Bigarren urtea dugu euskal ligako lehen mailan eta urte honetan lehenengo bortzen artean sailkatzea dugu helburu eta, ahal bada, txapelketako play-offetan borrokatzea. Gazteentzat ordea, helburua errugbian jokatzeko eta ikasten segitzea izanen da, kirolaz gozatuz».



Menditarrak-BRT taldeko 16 urtez beheitiko errugbilariak Irungoekin batera Txinbaz taldean ari dira. MENDITARRAK BRT



SENIORRAK

Aitor ADIN BIDEGAIN	ARIZKUN
Markel ADIN BIDEGAIN	ARIZKUN
Eliandeu ALTZUGARAI ARIZTEGI ELBETE	ARIZKUN
Aimar AROZENA MITXEO	ALMANDOZ
Beriat ARREGI ARRETXEKA	ORONDOZ
Asier ARRETXEKA BIDEGAINNARBARTE	ARIZKUN
Haizee ARRIETA GONZALEZ	ELIZONDO
Eñaut BERTAIN IRIARTE	ARIZKUN
Inaki BERRUETA MAGANA	ELIZONDO
Manex ETULAIN BIDEGAIN	ARIZKUN
Asier EZKURRAITURRALDE	URRITZOLA
Eneko FREIRE PEROTXENA	OLAGUE
Edu GALAIN ALCOCER	IRAIZOTZ
Egoitz GAMILO MITXELENA NARBARTE	ARIZKUN
Inaki IRAIZOZ PEREZ	ETSAIN
Jon IRIARTE ARRIETA	ARIZKUN
Benjamin LANGE E	IRUNEA
Fermin LARRALDE CORDOBA	ELIZONDO
Iñigo LIZASOAIN UTERGA	ELIZONDO
Josu MARTINEZ SAN JOSE	ELIZONDO
Josu MERINO	IRUNEA
Joanes MOLINIEVO URRUTIA ELBETE	ARIZKUN
Unai MUGIRO LARREGI	ARIZKUN
Ivan MUTILVA RUIZ DE AZUA	ELIZONDO
Aritz OLAGUE	IRAIZOTZ
Sahel OLORIZ URTEAGA	ETXALURI
Ander OSKOZ GAGO	SUNBILLA
Alexander SANTESTEBAN OPOKA	IRURITA
Miguel SOBRINO ETULAIN	ARIZKUN
Unai URMAN CERCAN	IRUNEA
Haritz URZAIZ CUARTERO	ELIZONDO
Beriat VIELA MENA	IRURITA
Jon ZUBIRI AZANZA	ARIZKUN
Gorka LAURNAGA	ELIZONDO
Goyo MINDEGIA	DONEZTEBE
Entrenatzaileak:	
Iñaki EZKURRA OSAKAR	URRITZOLA
Joxe VIELA URTASUN	IRURITA
Delegatuak:	
Ruben OZKARIZ MARTINEZ	ARIZKUN
Oskar VILLABONA	LATASA

SUB-16 (ESKUALDEKOAK)

Aimar DYIAN GARATE	IRURITA
Ekain ELIZALDE MENA	ARIZKUN
Aitor FAGOAGA BEOLA	ARRAZOZ
Xabier GORRIA ELIZONDO	SUNBILLA
Oier IBANEZ APEZTEIXE	IRURITA
Eneko SAGARZAZU LATASA	SUNBILLA
Kimen SAGARZAZU LATASA	SUNBILLA
Mikel MENDIBURU LOIARTE	ZIGA
Lorea REKARTE ETXEPARE	ARIZKUN

SUB-14 (ESKUALDEKOAK)

Junen AI TZURI ERASLIN	ELIZONDO
Eñaut OTEIZA LARRE	ELIZONDO
Julen REKARTE ETXEPARE	ARIZKUN
Acei USANDIZAGA LOZANO	AZPIKLETA
Aimar BIKONDO MARITORENA	IRURITA
Aingeru PEREZ LOPEZ	ARIZKUN
Ent: Pello SAN MILLAN BERGARA ARIZKUN	
Mikel SAGARZAZU EGIAZABAL	SUNBILLA

Kikilisaldatik jolastu, ikasi eta mugitzeko erronka luzatu dute

Leitzan, Goizuetan, Areson eta Aranon ibilbide bana osatu eta bidean galdera-erantzunen jokoan aritzeko aukera jarri dute

TTIPI-TTAPA

Kikilisalda 2019. urtean gizarte zerbitzuak, Cederna Garalurrek, eta kontsumo, hezkuntza zein kirol arloko zenbait eragilek elkarlanean sortu zuten egitasmoa da. Leitzan, Goizuetan, Areson eta Aranon elikadura, ariketa fisikoa eta ohitura osasuntsuak bultzatzeko helburuarekin eta adin txikikoen obesitate tasa murrizteko asmoarekin sortu zen. Dagoeneko hainbat kanpaina egin dituzte eta aurren, familiar eta lagunen artean ongi pasatzeko, ingurua ezagutzeko eta ariketa fisikoa egiteko aukera eskaintzen duen proposamena egin dute.

Horretarako, lau ibilbide prestatu dituzte: Leitzan Txaragorri, Goizuetan Antoka, Areson Otarre eta Aranon Suro. Jolasean hasteko, ibilbide ha-



Lau ibilbide proposatu dituzte.

sieran ikusiko duten QR kodigoan kolore bat aukeratu beharko dute: ingurumena (berdea), elikadura (laranja), jarduera fisikoa (urdina) eta herria ezagutu (fukusia). Aukeratutako koloreko galdera guztiak erantzutea izanen da erronka. Galdera irakurri, erantzuna pentsatu eta asmatu duten jakin nahi badute hurrengo balizara joan beharko dute. Mugitu, ikasi eta ingurua ezagutzuz, jolasean!



Maiz, Anaut eta Belauntzaran udaletxean egindako prentsurrekoan. E.IRAOLA


'Egin nirekin ere euskaraz' kanpaina aurkeztu dute

TTIPI-TTAPA


UEMAK 'Egin nirekin ere euskaraz!' kanpaina aurkeztu zuen abenduaren 1ean. Dabid Anaut Leitzako alkatea, Ainhoa Belauntzaran Leitzako Erleta eskolako zuzendaria eta Ene-ritz Maiz UEMAKo teknikaria eta kanpainaren arduraduna izan ziren bertan. Euskaldun arrazializatuen aurrean herritarrek dituzten aurreiritziak gainditzeko deia da kanpaina; euskarak kolore asko dituela eta azalaren kolorea askotarikoa izan arren herritar horiek guztiak euskaldunak direla nabarmendu nahi duena. Hiru

leitzarrek parte hartu dute kanpaina: Haider Rajak, Randy Lopez Bonillak eta Miruna Raquel Osinak. Sustraiak Pakistanen, Ekuadorren eta Errumanian dituzten leitzarrek dira eta ama hizkuntzak urdua, gaztelera, kitxua eta errumaniarra dituzten arren, beste edozein herritar bezain euskaldunak direla bistaratu nahi dute. Haur hauei askotan gaztelerez egiten diete herritarrek, euskaraz jakin arren. Horren aurrean mezu argia zabaldu dute: «nire azalaren kolorea azalekoa besterik ez da, beraz egin nirekin ere euskaraz!».

Eguberrietan ere, kulturaz goza ezazu!



www.leitza.eus/eu/leitza-herri-aretoa



eizmendi anaiak
kizak eta armatza

Arma berri zain bigarren eskukoan salmenta

Eskeptik, erriñe eta abarrei kanpionketa

Kartuko eta bolen salmenta

eta abar...

Berria, 19 - 21. AMASA-VILLABONA
Tel. 943 692 623 - 668 844 983

Saralegi TALOAK

Bertakoa, naturala, goxoa!



T. 610 378 543 Arro baserria - Leitza saralegitaloak.eus

OLENTZERO OPARIAK

ARTISAUTZA • BORDATUAK • EUSKAL JANTZIAK
GOMAZKO ERRALDOIEN SORKETA-LANA

'Eraldorien denda'

Estafeta, 42 - IRUÑEA
948 229 862
olentzero@olentzeroa.com
www.olentzeroa.com





Xabat Illarregi Marzol abenduaren 2ko finalean. JOSU SANTESTEBAN NBE

«Barruan nuen arantza kendu eta beste etapa bati hasiera eman diot»

XABAT ILLARREGI MARZOL LEITZAKO BERTSOLARIA

Oholtzan bere tokia aurkitu eta beldur eta mamuak uxatzeko bidea eman dio finalak. Gustura dago egindako lanarekin eta bere buruari dagoeneko jarri dio bi urte barrurako erronka.

ENERITZ IRAOLA

Beldurak etxean utzita igo zen oholtzara Xabat Illarregi Marzol eta finalak eskaintzen zion aukera ez zuen alperrik galtzera bota. Duela bi urteko arantza kentzea lortu zuen: «alde horretatik pake sentsazio bat daukat. Betea sentitzen naiz: beldur horiek, sentsazio txar horiek... atzean utzi eta beste etapa bat hasi izanagatik». Hirugarren postuan sailkatuta, buruz burukotik gertu gelditu da aurtengoan: «alde horretatik pena tiki bat ere badaukat, baina hemendik bi urterako erronka ere bai».

Txapelketan zehar izan zuen bideari eustea lortu zuen eta finala barrutik nahiko ongi

bizi izan zuela dio: «bertsotan erraz aritu nintzen, oholtzan egoteko modua zen nire erronka nagusienetako bat, horrek eragiten duelako askotan gero bertsotan ongi edo gaizki egitea». Horregatik, aurtun buruz prestatu da gehienbat: «mentalki saioetara nola joan, saioan bertan nola ez etsi eta lanean segi. Eroriz gero altxatzen saiatu edo ongi ari bazara horri eutsi. Hori zen aurtun nire erronka eta bete dut. Banekien hori lortzen banuen bertsotan egiten nuena, gustura eginen nuela».

Arantza kenduta

Final honek aurrera egiteko bidea eman diola uste du:

«orain dela bi urteko finala eta gero, aje oso luzea eduki nuen, ez nintzen batere gustura gelditu. Horrek bi urte nahiko zail utzi dizkit. Barrura begira, uste nuena baino zailagoak». Mamu horiek buruan bueltak izan ditu azken bi urteetan: «bertsotan orokorrean, plaza batetara kantatzera joan naitzenean ez dit eragin, baina txapelketara begira bai. Azkeneko txapelketa horretan zer

«PLAZETAN AHAL BEZAIN BESTE IBILI ETA GOZATZEA DA NIRE ASMOA»

utzi nuen, zer egin nuen... horri begiratzen hasten nintzen eta final hura etortzen zitzaidan behin eta berriz burura». Abenduaren 2ko finala gogoratzen hasita, bestelakoa da egoera: «alde horretatik pake sentsazio bat daukat eta bete sentitzen naiz. Hori jada atzean utzi dudala sentitzen dut. Barruan nuen arantza kendu eta beste etapa bati hasiera eman diot».


Txapelketarekin gustura

Txapelketa bere osotasunean hartuta ere, ongi joan zaiola uste du: «nahi nuen bidetik joan naizela uste dut. Saioetara nola joan naizen, jarrera aldetik... utzi nahiko nukeen hortatik ematea lortu dudala uste dut eta balorazioa orokorrean positiboa da». Etor-kizunean horrek lagunduko diola pentsatzen du: «hurrengo txapelketara begira uste dut indarra emango didala, beste pauso bat aurrera emateko».

Finala bera ere orokorrean hartuta, ongi joan zela uste du: «espektatibak bete zirela uste dut. Beti daude gero gorabeherak, gehiago asmatzen duten bertsolariak edo gutxiago asmatzen dutenak, baina uste dut final ona izan zela eta hurrengo finaletarako ere, etorri zen jendea berriz ere etortzeko gogoz izanen dela».

Erronkak

Heldu den urtean ez du txapelketarik eta hala, «guri dagokigun presio hori behintzat pixka bat alde batera utzi, deskantsatu eta plazatan ahal bezain beste ibili eta ahal bezain beste gozatzea» du helburu. Leitzaldean txapelketak sortu duen ilusioa mantendu dadin bere aletxoak jartzen ere saiatuko da: «zer landua badago. Egunerokotasunean bertsoa sustatu behar da beste modu batetara eta jendearengana ailegatu behar da». Bere esku dagoena eginen du «honek aurrera segi eta goitok behera erori ez dadin».



Joanes Illarregi Marzol, Iruñeko Anaitasuna kiroledegian kantari. UTZITAKO ARGAZKIA

«Ez nuen finala behar bezala bizitzea eta gozatzea lortu»

JOANES ILLARREGI MARZOL LEITZAKO BERTSOLARIA

Gazi-goza izan da finalak Joanesi utzi dion zaporea. Gazia: ez zuelako txapelketa borobiltzea lortu. Goza: etsi gabe, bere buruarekin borrokan, saioa hasi eta bukatzea lortu zuelako.

ENERITZ IRAOLA

Abenduaren 2ko finala, «kale edo bale egiteko momentua» zela aski ongi zekien Joanes Illarregi Marzolek. «Gogoz eta gosez» igo zen oholtzara eta ordura arteko saioetan maila bikaina erakutsi ondotik, faboritoen artean ageri zen bere izena. Finala «nahi baino aldrebesagoa» joan zen, ordea: «momentu gakoa ailegatu zenean, ez nuen txapelketa guztiz borobiltzen asmatu».

Uharteko eta Lesakako kanporaketetan «oso sentsazio onak» izan zituela azaldu du: «egoerak ez zidan gain hartu eta sentitu nuen oholtzan ez nengoela ez urduriegi, ezta lasaiegi ere. Horrek konfiantza

eman zidan finalera begira». Nafarroako Txapelketako hirugarren finala zuen eta iazko Euskal Herriko txapelketan lortutakoak ere kanporaketetan beste lasaitasun batetik kantatzeko bidea eman ziola uste du: «horrelako egun batek, nahiz eta bakarra izan, esperientzia handia ematen dizu eta hori luzarora gelditzen den zerbait da».

Sentsazio gazi-goza

Anaitasunako oholtzara igo zenean, ordea, ez zuen finala behar bezala bizitzea lortu: «uste dut ez nuela asmatu, egun horretan eta momentu horretan, burua hor eta behar zen lanean edukitzen. Asko

kosta zitzaidan kontzentratzea, baita bideak ikustea ere. Lan asko egin behar izan nuen, dena trabeska heldu zitzaidalako». Ordura arte txapelketan eduki zituen sentsazioen «guztiz kontrakoak» izan zituela azaldu du: «normala ere izan liteke, azkenean finala delako eta tentsio guztiak, presio guztiak, puntu gorenean lehertzen direlako askotan». Bukaerako agurrean, horrela abestu zuen:

**«BERTSOA
LANTZEN ETA
EBOLUZIONATZEN
SEGI NAHI DUT»**

«ez noa pozez kantari, nire egunik onena ez zen, ez al duzue nabari?». Finalak sentsazio gazi-goza utzi dio: «gazia: ez nuelako nahi beste gozatu eta ez nuelako nire bertsokeratik kantatu. Goza: jakin nuelako egun txarra edukita ere, lana egiten eta saioa aurrera ateratzen». Egunik hoberena ez zuela ikusita, helburu garbia izan zuen: «neurri batean ondokoari bere lana ez oztopatzea eta behintzat saioa hasi eta buka, ahal zen lan gehiena egiten eta ahalik eta borroka gehien egitea nire buruaren kontra. Lan hori egin izanaz, gustura gelditzen naiz».

Sailkapenean laugarren

Nahi baino gehiago kostata izan bazen ere, lan txukuna egin zuen oholtzan eta horren erakusle da sailkapenean lortutako laugarren postua. Ez zuen bere onena ematerik izan, «baina mundurik ez da gelditzen, ez da bukatzen. Orain deskantsu pixka bat hartu bertso eskolatik. Dauzkadan plazetan kantari jarraitu, ailegaten direnak pozez hartu, ingurukoekin egon eta ingurukoei eskertu orain arte txapelketan gure ondoan egoteagatik eta laguntzeagatik». Aurrerantzean ere bertsotan gozatu eta gozaraztea du helburu: «lantzen eta ahal den heinean eboluzionatzen segitzea. Hau ez da txapelketa batean bukatzen den zerbait, hau ez da ehun metroko sprint bat, hau maratokia da. Luzea izatea espero dudana bide bateko puntu bat».

Prozesu baten parte

Izan ere, argi du txapelketa ez dela helmuga: «aurretik heldu zenaren eta gero etorriko denaren arteko beste zubi bat dela». Prozesu baten parte dela dio: «txapelketatik txapelketara ikasten eta elikatzen joaten gara. Orain arte egin dako lanketa guztiak plazaz plaza, bertsoz bertso... ateratzen joateko aukera izanen dudala uste dut».

Ekitaldiz gainezka datoz urte bukaera eta hasiera

Eguberrietako ohiko ekitaldiez gain, kultur proposamen ugari izanen dira Herri Aretotan

TTIPI-TTAPA

Musikak, zinemak, margolanek... eta Eguberrietako urteroko hitzorduek beteko dute datozen egunetako agenda.

Abenduaren 23an, 18:00etan, Go!azenek aktoreak igoko dira Herri Aretoko oholtzara.

Abenduaren 24an, goizean kalejira egingen dute haur eta gaztetxoek eta iluntzean Orantzarro eta gaueko pertsonaien etorrera ospatuko dute.

Abenduaren 27an, Jaione Olazabal eta familia kontzertua eskainiko du 18:00etan eta sarrera dohainik izanen da.

Abenduaren 28an, Ekhi Huar-te artistak Herri Aretotan ikusgai dagoen bere obraren inguruko azalpenak emanen ditu 19:00etatik aurrera.

Ilbeltzaren 4an Errege Magoen laguntzaileak eskutitzak jasotzera etorriko dira eta gauean helduek zintzarri jotzea egingen dute. Biharamun goizean, umeak izanen dira zintzarriak astinduko dituztenak eta iluntzean, hiru Erregeak etorriko dira.

Bukatzeko, urtarrilaren 6an eta 7an haurrentzako zinema izanen da 17:00etan.

Lau saski berezi zozketatuko dituzte Kaxkabeltzako kideek

TTIPI-TTAPA

Urtarrilaren 7ra arte Kaxkabeltzako komertzioetan erosketak egiten dituztenen artean lau saski zozketatuko dituzte: 700 euroko balioa duen ongi-zate saskia, 800 euroko balioa duen jan-edan saskia, 500 euroko zerbitzuen saskia eta

500 euroko moda saskia. Kaxkabeltza elkarteko kideak atalka, lau saski horietan banatu dira. Saridunak egokitu zaion saskiari dagozkion komertzioetan erabili beharko du irabazitako dirua. Zozketa urtarrilaren 12an Karrape irratian izanen da.

San Silvestre lasterketa berezia izanen da aurten

Abenduaren 31n, 16:00etan hasiko da lasterketa. Aurten, lasterka egin beharreko distantzia ez da adinaren araberakoa izanen. Bakoitzak nahi duen distantzia aukeratu ahal izanen du: 300 metro, 600 metro, kilometro bat, bi kilometro edo lau kilometro egin.

Euskal presoan aldeko mobilizazioak

Presoen aldeko elkarretaratzea antolatu du Sare Herritarrak abenduaren 31rako. 18:30ean egingen dute bilkura plazan. Horrekin batera, ilbeltzaren 13an Bilbon egingen den Euskal Herri mailako manifestaziora joateko deia ere egin dute.



IRAITZ ASTIZ

Babes zabala izan du greba feministak

Zaintza eskubide kolektiboaren alde, goizean goizetik atera ziren kalera herritarrak eta jendetza bildu zen eguerdiko mobilizazioetan. Kale nagusiko merkatari eta ostalari guztiek ere bat egin zuten grebarekin, baita supermerkatuetako langileek ere. Paper fabrikan gelditu egin zuten ekoizpena.

'Neguan Atekan hotzik ez' zikloa antolatu dute Atekabeltzen

TTIPI-TTAPA

Neguko iluntzeak goxatu eta kulturaz gozatzeko, hainbat proposamen egin dituzte Atekabeltzen. Abenduaren 26an, 19:00etan, *Black is Beltza II: Ainhoa* filmaren emanaldia erekin hasiko dute zikloa eta txokolate beroa ere banatuko dute.

Abenduaren 29an Belako taldearen zuzenekoaz gozatzeko aukera izanen dute 22:30etik aurrera. Sarrerak 10 eurotan jarri dituzte salgai eta alde zuzenetik Torreon eskura daitezke. Ondoren, parrandak



Belako taldekoak. UTZITAKOIA

segida izanen du Gorriortxu eta Laztana DJekin.

Urtarrilaren 3an, 18:30ean drag showa eskainiko dute Albina Stardustek eta Divina Comediak.

Barriola eta Saralegi saritu dituzte Iruñean

Nafarroako Gobernuak Kirol Merituaren zilarrezko dominak eman dizkie Gabriel Saralegi Arribillagari eta Juanito Barriola Baraibarri. Herri kirolak eta pilota sustatzeko egin duten eta egiten duten lanagatik.



AINARA SARALEGI



MUSUNZAR

OSTATU-JATETXEA

BERTAKOA: ABERATSA BEZAIN BENETAKOA

MUSUNZAR ostatuan atsedean hartzeko txoko bat eskaintzen dugu. Zentzumen guztiak dantzan jarri eta gozatzeko tokia. Berezko edertasuna du Leitzaran bailarak eta bisitariek begien aurrean urtaroz urtaro aldatzen doan paisaia izanen dute.

Inguruaz gozatu ahal izateko hainbat ekintza jartzen ditugu bezeroen esku: Plazaolako trenbide zaharren ibilbidean barna ibili, Leitzako historia ezagutu eta naturaz gozatu.... Azalean geldituta baino gehiago gozaten delako toki bat barrutik ezagutzen denean.

Bertakoari garrantzia ematen diogu Musunzar ostatuan. Aberatsa bezain benetakoa da gure inguruak eskaintzen diguna. Horregatik, bertako ekoizleen produktuak lehenesten ditugu, gure bezeroei kalitatezko jakiak eskaintzea delako helburua.

Bertako jakiak, kultura, hizkuntza, tradizioa... ezagutu nahi dituenak aterperik goxoena izanen du Musunzar ostatuan. **Lasaitasun bila dabiltzanentzako atsedean lekua izanen da. Tradizioak eta modernitateak bat eginda, esperientzia ahaztezina biziko dute gure bisitariek.**



Egunero 07:30etik aurrera irekita

Elizondoko Zahar Etxea publiko bihurtu dute

«2009ko pribatizazioaz geroztik abiatutako borroka emaitzak eman dituela» aldarrikatu dute langileek

TTIPI-TTAPA

Azaroaren 28an Francisco Joaquin Iriarte zahar etxearen atarian bildu ziren bertako langileak, zentroaren publikifikatzea ospatzeko. Izan ere, abenduaz geroztik, egoitzaren kudeaketa Zaintza Lanak Baztan SL enpresa publikoaren eskuetara pasatu da.

LAB sindikatuak adierazi duenez, langileak «2009an Elizondoko egoitzaren pribatizazioaren kontra mobilizatu ziren, eta orduz geroztik, zaintza lanen pribatizazioak egingandako arazoei aurre egi-

teko borrokan aritu dira. IDEA enpresarekin etengabeko talkan egon dira, interes pribatuen aitzinean langileon eta egoiliarren interesak lehenetsiz. Baztango biztanle eta eragileekin batera, bertzelako zaintza eredu baten beharra exijitu eta aldarrikatu dute eskualdean».

Publikifikazioa

Langileen aldarrikapenei erantzuteko, Baztango Udalak zahar etxea publiko egingen zuela jakinarazi zuen, eta Zaintza Lanak Baztan SL en-



Zahar etxeko langileak azaroaren 28an egindako agerraldian. LAB

presa publikoa sortu zuen kudeaketaz arduratzeko. IDEAren kontratua 2024ko ekainean etetea aurreikusia zuen patronatuak, baina etete hau aitzinatzea erabaki zuten enpresarekin desadostasunak izan ondotik. IDEA honen kontra agertu zen auzien epaitegian, baina epaitegiak ez zion arrazoi eman, beraz, enpresa zerbitzutik kanpo gelditu da abenduaren 1etik aitzinera.

Sindikatuak adierazi duenez, «langile hauek erakutsi digute zaintza sistemaren eredu aldaketa premiazkoa dela, eta zerbitzuen pribatizazioari aurre egitea ezinbertzekoa dela. Borroka hau Euskal Herriko zaintza sistemaren eredu aldaketaren adibide esanguratsua da. Hortaz, Baztanen haritik tiraka, egin dezagun posible publikifikazioa Euskal Herri osoan».

GOGORATZEA ERRAZA DA
OROIMENA DUTENENTZAT,
AHAZTEA ZAILA DA
BIHOTZA DUTENENTZAT.

GABRIEL GARCÍA MÁRQUEZ

lanatorios
IRACHE

EGUBERRI ON





Oparitu Arantzza Hotela

Pertsona berezi horri opari originala eta apartekoa egin nahi diozu? Esperientzia ahaztezina izatea nahi duzu?

Arantzza Hotelean badakigu pertsona bakoitza berezia dela, eta horregatik, opari txartelak pertsonalizatzen ditugu. Oparia hartuko duenari gehien gustatzen zaion esperientzia aukera dezakezu: gau bat afari erromantikoko batekin, masaje saio batekin, spa saio bat, gosari bat sparekin...

Eskatu zure **opari txartela** eta oparitu pertsona berezi horren neurrira egindako momentu ahaztezina

365 egun opari txartelari probetxua ateratzeko (edo opari txartela erabiltzeko)

ARANTZA
HOTELA



500 lagun Elizondon zaintza eskubide kolektiboaren alde

Azaroaren 30ean mugimendua izan zen Elizondon goizetik, eta arratsaldean jendetze bildu zen eskualdeko manifestazioan

TTIPI-TTAPA

Greba Feminista Orokorren harira, goizean goiz piketeak Elizondoko plazan bildu eta dendaz denda ibili ziren, irekiak zeuden komertzioei grebara batzeko gonbidapena eginez. 10:30ean, berriz, jendetza bildu zen zahar etxearen atarian eta bertako langileek solastatu ondotik, kalejira abiatu zuten. Osasun etxean, haur eskolan eta Benito Menni ospitalean egin zituzten geldialdiak, eta bertako langileek beren aldarrikapenak plazaratu zituzten. Herriko plazan akitu zuten jarduera, emakume nekazarien aldarrikapenekin.

500 lagun inguru

Arratsaldean, berriz, Baztan-Bidasoko manifestazio jendetsua egin zuten herrian. 18:00ak

baino lehen ailegatu ziren Beratik eta Saratik abiatutako auto karabanak, eta 500 pertsona inguru bildu ziren plazan Elizondori itzulua egiteko *Zaintza eskubide kolektiboaren alde* lelopean. Akitzeko, zaintza langileen aldarrikapenak plazaratu zituzten eta Olaia Inziarterekin batera kantatu zuten.

Bertzeak bertze, nabarmendu zuten zaintza «bizimodu duina eraikitzeko oinarria» dela; «gure gorputzen, herrien, komunitatearen eta luraren iraunkortasunerako ezinbertzekoa». Hala ere, «egungo ekonomiak ez ditu zaintzak kontuan hartzen». Hortaz, «Euskal Herriko landa eremuan zaintza sistema publiko komunitario bat eraikitzeko bidea aitortzatik abiatu behar dugu».



Grebaren harira, hainbat ekitaldi izan zituzten Elizondon egun guzian. R. OSKARIZ

ANELAN
LAN BERTIKALAK

Sokekin egindako lana, andamiorik gabe.
Egiten ditugun lanak:
Fabriken konponketak, segurtasun-sistemen instalazioak, teilatuen eta azpiegituren mantentze-lanak, eta abar.

948 031 174
info@anelan.pro

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatu

Dibortzioak, herentziak, alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

BRIKO BAZTAN, SL

Drogeria · Garbiketa produktuk
Ferreraria · Sukaldeko tresnak
Mozorroak · Papertegia
Kiroleko eta mendiko jantziak
Moda · Oinetakoak
Laneko arropa · Bitxiak
Lurrin-denda
Kosmetika, Elektronika
Telefonoak · Poltsak eta mailetak
Etab.

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

Oharriz Auzoa z/g - LEKAROZ
T. 948 452 143 - 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, SL
OSTEHEGIAZKOAK

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

KULTURKARI
Dizainu grafikoak | Publizitatea
www.kulturkari.com

Etiketak eta pegatinak

Paperean edo biniloan (opakua edo gardena)
Bobinan edo soltean, formarekin moztuak...



deceuninck



Elegant **ThermoFibra** Infinity

Uf (W/m²k) **0,85**



JASANGARRIAK ETA ERAGINKORRAK



AURREZTE ENERGETIKOA



SEGURTASUNA ETA SENDOTASUNA



ISOLAMENDU MAXIMOA



Arbasoak agoteak dituzte Maria Lusia Bidegain eta Aitziber Cebrian izeba-iloba bozatarrek. UTZITAKOA

«Agoteen jatorria ezagutu dugu, baina misterioa ez da argitu»

M^a LUISA BIDEGAIN JAURENA ETA AITZIBER CEBRIAN BIDEGAIN BOZATEKO IZEBAILOBAK

Agoteak nondik etorri ziren argitzeko asmoarekin, ikerlari talde batek bozatarren ikerketa genetikoan egin du, hainbat belaunaldi gibelera eginez. TTIPI-TTAPA honen inguruan aritu da auzotarrekin

R. OSKARIZ ARIZKUN

Bozaten sortuak eta haziak dira Maria Luisa Bidegain eta Aitziber Cebrian izeba-ilobak, eta hainbat barriderek batera, agoteen jatorria argitzeko ikerketa genetikoan parte hartu dute. Gainera, parte hartzeaz gain, prozesu honetan ikerlari eta auzotarren arteko bitartekari lanetan aritu da Cebrian, Joseba Moreno lehengusuarekin batera. Orain emaitzen berri izan dute: haien arbasoak Baztandik kanpokoak ziren, baina euskaldunak.

Zuen burua agotetzat duzue?

Maria Luisa: Bai, gurasoak eta aitatxi-amatxi guziak bozatarrek ziren, eta ez dut inoiz eta inon ukatu.

Aitziber: Bai, amaren aldetik denak auzokoak ziren eta aita Elizondon sortua, baina bere amatxi, amaren aldetik, Bozatekoa zen.

Zer kontatu dizuete agoteen inguruan etxean?

M. L.: Nire gurasoek ez zuten ezagutu, baina beraien arbasoak baztertuak izan zirela kontatu izan digute; elizan beren tokia zutela, adibidez, eta bakoitzak bere aulkia eramaten zuela.

Zuen aitatxi-amatxirendako estigma izan zen?

M. L.: Gure familian ez dugu horrelakorik bizitu. Gure amatxi emagina eta sukaldaria zen, batzuetan zerri hiltzetan *mondongero* aritzen zen. Kan-

poan aunitz ibili zen lanean eta ez zuen arazorik izan. Agoteak musikariak eta artisauak ziren, langileak eta zintzoak, beraz, beti harro sentitu gara.

Nola izan zenuten ikerketaren berri?

A.: Maitane Tirapu arkeologoak, Madrilgo Complutense Unibertsitateko Antonio Gonzálezekin ikasle nafarrak, laguntza eskatu zigun ikerketa egiteko duela hiru urte. Ondotik, 2020ko irailean, Antonio eta Amaya Gorostizarekin auzoan bilera bat antolatu genuen auzotarrei informazio guzia emateko.

Bozatarrek prest ziren hasmentatik parte hartzeko?

A.: Gaur egun ez da inongo arazorik agoteei buruz solastatzeko, eta lehenbiziko bileran horretan jendea berehala gogotsu eta parte hartzeko prest agertu zen. Gainera, egun horretan batzuk DNA lagina eman zuten; zientifikoki balio handia duten auzoko belaunaldi zaharrenetako laginak lortzeko azken aukera genuen eta berehala 96 eta 87 urteko pertsonenak lortu genituen. Lamiarrietan, berriz, 60 pertsona agertu ziren eta, horrez gain, ondoko egunetan gehiago bildu genituen. Aipatzekoa da Txiletik ere batzuk animatu zirela lagina ematera. Bertalde, konparazioak egin ahal izateko, Tirapuk Arizkunenean baztandarren eta nafarren laginak bildu zituen. Denetara, 126 DNA lagin lortu genituen proiektua aitzinerat eramateko.

Nolako esperientzia izan da?

M. L.: Esperientzia arras polita izan da. Denak gogotsu ginen gure jatorria ezagutzeko, jendearekin lehengo kontuak eta istorioak partekatzeke balio izan digu eta kanpoan bizi diren batzuk ezagutzeko aukera izan dugu.

Hainbortze urtetan luzatutako afera hesteko eta agoteen misterioa behingoz argitzeko modua izan da?

A.: Genetikoki informazio zehatza lortu dugu eta gure jatorria ezagutu dugu, baina misterioa oraindik ez dugu argitu. Garai bateko migrazio bat izan zela ikusi dugu, baina oraindik ez dakigu zergatik izan ziren baztertuak.

Agoteak kanpotik etorri zirela erraten zen, baina ikerketak frogatu du ezetz. Posible da herriarrek bazterkeria justifikatzeko erratea 'kanpotarrak' zirela?

M. L.: Bazterkeria arrazoi kultural edo erlijiosoengatik izan zela uste dugu, baina hori historialariek beharko zuten ikertu eta argitu. Orduko baztandarrendako ezezagunak ziren, gaur egun oraindik erabiltzen den 'kanpotarrak'. Hala ere, ez da gogorragoa hemen-

go jendea izan zela jakitea; bazterkeria beti da gogorra, berdin du nondik heldu den jendea.

Agoteen bazterkeria akitutzat eman da, baina gizartearen oraindik bertzelako bazterkeriak ditugu... inportantea da gertatutakoa ezagutzea berriz errepikatu ez dadin?

Biak: Bai, arras inportantea da herritarrok maila guzietan kontzientziarioa izatea.

Ikerketarekin segitzeko eta gaien gehiago sakontzeko aukera dute ikerlariek. Zein asmo duzue bozatarrek?

M. L.: Auzotarren helburua gure jatorria zehazki jakitea zen, eta proiektu honekin lortu dugu. Hipotesi aunitz alde batera uzteko balio izan digu. Madrilgo ikerlariek erran duten bezala, beraiek sakontzen segituko dute, baina momentuz ez da bertzelako asmorik, ezta dirurik ere!

Zerbait gehitu nahi duzue?

A.: Eskerrak eman nahi ditut. Lehenik auzotarrei eta parte hartzaile guztiei, hasieratik gogotsu agertzeagatik eta proiektuaren emaitza jakiteko izandako pazientziarengatik. Madrilgo Antonio González eta Amaya Gorostiza doktoreei, beraien hurbiltasunagatik. Baztango Udalari eta Nafarroako Gobernuari, emandako finantziarioagatik eta Lamiarrietako jesuitei, bereziki Koldori. Eta azkenik, nola ez, projektuan parte hartu zuten eta gurekin ez dauden familiakoei.

Agoteen arrastoen gibeletik

Urteetan teoria aunitz egin dituzte agoteen jatorriaren inguruan; bisigodoak zirela, bikingoak, sarrazenoak, kata-roak... hau da, kanpotik etorritakoak. Honen inguruan gehiago jakiteko, biologia oinarritzat hartuta, ikerlari talde batek azterketa genetikoa egin dizkie Bozateko, Baztango eta Nafarroako 126 herritarri. Azaroaren 25ean azterketaren emaitzak aurkeztu zizkieten Lamiarrieta jauregian bozatarrei.

Lagin bakoitzetik 650.000 datu genetikoko inguru lortu zituzten, beraz, informazio aunitzekin aritu ziren lanean. Gainera, hiru lan sistema izan zituzten, eta emaitza berak lortu zituzten hiruretan. Bozatarren artean, kontuan hartu zuten haien aitzinekoen jatorria, eta ikerketari esker hainbat mende egin ahal izan zituzten gibelerat, 10-15 bat belaunaldi, 1.200-1.300 urteetara arte. Informazio hori bertzeherrialde eta etniako biztanleekin konparatuta, hurbiltasun genetikoa zehaztu zuten, eta hainbat hipotesi baztertu ahal izan zituzten, bertzehak bertzehak, agoteak Ekialde Hurbiletik edo Afrikako iparraldetik etorri zirela.

Europako herrien artean, Iberiar Penintsulako eta inguruko datu genetikoei kon-



Ikerketan parte hartu duen lantaldea Bozatan. R. OSKARIZ

paratu zuten informazioa, eta emaitzak argiak dira: agoteen informazio genetikoko %70eko afinitatea dauka euskaldunekin, zehazki, gaur egun EAE eta Ipar Euskal Herria diren lurraldeekin. Honez gain, % 19,2ko antzekotasuna du genetika frantsesarekin, eta % 9koa nafararekin. Hala ere, mendeetan sufritutako bazterkeriaren ondorioz, bozatarrek ez dute afinitate genetikorik Baztango herritarrekin. Hau da, agoteak Baztandik kanpokoak ziren, baina ez urrunekoak.

Ikerlarien lantalde zabalak parte hartu du azterketan: Madrilgo Complutense Unibertsitateko Antonio González-Martín doktoreak eta Alicia Portela-Estévez doktoretza ikasleak, PharmaMareko Genetika Identifikazio Unitateko Amaya Gorostiza doktoreak, Bartzelonako Unibertsitateko Yorgos Athana-

siadis doktoreak eta Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoko Araxi Urrutia Odabachian eta Alín Acunha Alonzo doktoreek. Gainera, Maitane Tirapu arkeologo nafarraren laguntza izan dute lagin genetikokoak lortzeko.

Nafarroako Gobernuak diruz lagundu zuen ikerketa, eta Baztango Udalak ere dirulaguntza eman zien, «Bozateko bizilagunek historikoki sufritutako bazterketa aitortzeko eta erreparatzeko» helburuarekin.

Datu genetikoko emanda, historialari eta adituen esku utzi dute hauen interpretazioa. Teoria batzuk baztertzeko balio izan du ikerketak, eta datuekin bat egiten duten hipotesiek bakarrik diraute. Orain, ikerlari eta adituen esku egonen da ikerketarekin aitzinerat segitzea, agoteen jatorriaren misterioa behin betikoz argitzeko.

Suteia-Zaldain
Instalazioak
IGOGAILUAK
PROFESIONALAK
KALITATE-BERMEA
IRISGARRITASUNA
MANTENTZE LANAK

1 KANPOKO IGOGAILUAK

Kanpoko fatxadetan guztiak integratuak. Portal berutiak sarbideak. Inpaktu eta eragotzen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.

2 BARRUKO IGOGAILUAK

Eskalerako tarteak integratuak. Sarbideak portal berutiak, inongo estroporik gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gorpil-aukitan daudenentzako egokituak.

3 IRISGARRITASUNA

Mugikortasun arazoak dituzten eta gorpil-aukitan daudenentzako portierako sarbideak egokituak dira. Aurrerantzean dituzte lanak, eragotzen minimoak sortuz.



EZ ZAITEZTE KEZKATU!
gu ardurabako gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, dirulaguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.

Santiago, 73 | ELIZONDO | M 619 424 999 | suteia@suteiazaldain.com

Giro ederra Anizko Asteburu Kulturalean

Abenduaren 8an eta 9an hainbat ekitaldi izan zituzten herrian; kirolak, solasaldiak, ibilaldiak, otorduak, bertsoak...

MAITANE MARITORENA

Aurtengo Asteburu Kulturala ortzirean hasi zen; haurrak elkarren aurka eta helduen kontra aritu ziren sokatiran, eta justu-justuan baina helduak nagusitu ziren. Frontoian jostetan aritu ondotik elkarterat joan ziren pizzak eta krepeak prestatzera, haurrak sukaldari.

Larunbat goizean mendi itzulixka egin zen, Salaburdineta eta Iñertze parajeen izenak paratzeko. Bi hauekin hamabortz dira hondarreko urteetan paratu diren izenak. Arratsaldean, Juan Angel Perotxena

mural egilea herrian egindako muralen kontu solastatu zen. Ondotik, Aitor eta Mikel Azkarete muralen tokiaren azalpenak eman zituzten; lehengo lixutokian eta siloko eraikina. Gero elkarterat joan ziren, Anizko hiru emaztekek lixua nola egiten zuten aditzera: Dorita, Txari eta Emiliaren testigantzak aski interesgarriak izan ziren. Solasaldiaren ondotik bertso afaria izan zen eta Julio Sotok eta Onintza Enbeitak giro ezin hobearekin paratu zuten. Esker mila parte hartzaile guzietan, eta bereziki Dorita, Txari eta Emiliari.



Aniztarrek ez zuten aspertzeko astirik izan bi egunetan. MAITANE MARITORENA

Herencias y Gestión



Zuregandik hurbil gaude



Mugaz gaindiko herentzien onarpena



Gizarte segurantzaren pentsioen eskaera



Herentziari lotutako gatazketan bitartekantza

Santiago 55, ELIZONDO ☎ 948 59 67 11 - 610 40 18 36
www.herenciasygestion.com • herenciasgestion@gmail.com



647 77 31 33

Eguzki plaken instalazioak, argiztapen-azterketak eta elektrizitate lanak orokorrean




Ornoz-Mugairiko etxebizitza babestuak udalaren esku

Etxebizitza galtzeagatik gizarte bazterketa sufritzeko arriskuan dauden pertsoneri zuzenduak izanen dira

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuko Begoña Alfaro kontseilariak, Baztango Udaleko Fernando Anbustegi alkateak eta Nasuvinsako Javier Buron zuzendari gerenteak hitzarmena sinatu dute, Ornoz-Mugairin egindako bostz etxebizitza babestuen kudeaketa udalak bere gain hartzeko. Nasuvinsa sozietate publikoak birgaitu ditu etxebizitza, 325.048 euroko inbertsioarekin.

Hitzarmenak etxebizitza duina eta prezio eskuragarrian lortzeko eskubideari erantzuten dio, hortaz, Baztanen erroldatutako pertsoneri egonen da zuzendua alokairua. Eskatzaileek beren ohiko etxebizitza galdu izana frogatu beharko dute eskaera egiteko, edo etxebizitza galtzar dau dela.



Etxebizitza berriak. NAF. GOBERNUA

Lanak Martin Urrutia Etorbideko Kamineroen Etxean egin dituzte. Etxearen isolamendu termikoa hobetu, arotermia sistema indibidualak paratu eta arotzeria PVCarekin ordezkatu dute. Lehen solairuan bi etxebizitza egin dituzte, sarrera, egongela, sukaldia, hiru logela, bi komun eta balkoiarekin. Bigarren solairuan hiru etxebizitza; bat hiru logela eta bi komunekin eta bertze biak bi logela eta komun banarekin.



ELIZONDOKO LANBIDE ESKOLA

Segurtasun hesiak Arizkungo Eskolan

Elizondoko Lanbide Eskolako OM Fabrikazioko 2. mailako ikasleek segurtasun hesiak eraiki eta paratu dituzte Arizkungo Eskolako sarreran, Zerbitzu Solidarioko proiektu moduan. Lanbide eskolak adierazi duenez, «izugarritzko lana eta emaitza ere bikaina. Beti bezala, herrigintzan lanean!».

Bakarrizketa eta solasaldia Arizkunenean

Baztango Talde Feministak antolatua, hilaren 22an *Magamía!* bakarrizketa aurkeztuko du Beatriz Egizabalek 19:00etan. Abenduaren 27an, berriz, haurren garapen fisiko eta emozionalari buruzko solasaldia izanen da 11:00etan. Izen ematea: 689 035 078.

Iruritako Dantzarien eta Koro Ttikiren ikuskizuna 22an

Urtero bezala, Iruritako Dantzariak musika eta dantza ikuskizuna antolatu dute herrian, Elizondoko Abesbatza Ttikiren eta Baztango Udalaren laguntzarekin. Abenduaren 22an izanen da emanaldia, herriko pilotalekuan 18:30ean.

ferreteria Quevedo

TXERRI HILTZEAN
ERABILTZEKO TRESNAK









Santiago 31 · ELIZONDO · Tel.: 948 580 234 · www.ferreteriaquevedo.com



Zugarramurdiko Herriko Etxea berriki zaharberritu dute. **MARIFA ETA KORO**

Herriko etxeko ostatua eta jatetxea errentan har daiteke

Abenduaren 26ra arte aurkez daitezke proposamenak eta hartzen dutenek etxebizitza hartzeko lehentasuna izanen dute

MARIFA ETA KORO

Zugarramurdiko Herriko Etxeko ostatua eta jatetxea alokatzeko lehiaketa enkantea egin du udalak. Proposamenak abenduaren 26ko 14:00 orduak arte aurkezten ahal dira. Baldintzak hauek dira: 1.800 euro hilabeteko ordaindu beharko du ostatu eta jatetxea hartzen duenak eta hamar urtetarako alokairua hartu beharko du. Ostatua eta jatetxea hartzen dutenek, herriko etxearen bigarren solairuan dagoen etxebizitza alokatzeko ere lehentasuna dute, 300 euro hilabetearen ordainduta. Zerbitzuaren kalitatearen eta prezioaren ikuspegitik eskaintzarik onena egiten duenari esleituko dio herriak zerbitzua. Gogoratu behar da azaroaren 10ean egin zuten herriko etxe berriaren inaugurazioa, beraz, ostatua, jatetxea eta bizitegiak berri-berriak topatuko ditu maizterrak.

Pilotalekuko argia eta eskolako patioa

Aisialdiarekin zerikusia duten bi neurri polit onartu ditu herriko etxeok: alde batetik,



Eskolako patioa edekia egonen da.

pilotalekuko argiaren iraupea bikoiztu dela, hau da, orain euro batekin 20 minuturako argia izanen da. Bertze aldetik, haurrentako eskolako patioa edekita egonen dela arratsalde eta asteburuetan. Hori bai, bistan denez, garbitasuna zaintzea eskatzen zaie erabiltzaileei.

Apezaren etxea

Apezaren etxearen kontura, urriaren erdi aldera Apezpikutzarekin bildu ziren herriko etxeko bi ordezkari, eta geroztik berri onak ditugu: apezaren etxea erosteko adostasunera ailegatu dira. Lehenengo akordioa sinatu da, eta behin-betiko xehetasunetan sartu dire orain.



Azaroaren 25aren harira jokatu zuten bote-luze partidako protagonistak.

Zugarramurdiko eta Urdazubiko neskek bote-luze partida jokatu dute

Azaroaren 25eko ekitaldien artean, bote-luzeko partida berezia jokatu zuten. Hasteko, nesken arteko partida izan zelako (behar bada Euskal Herrian egin izan den bakarra), eta bertzetik, jokoa ahal bezain ongi segitzen ahal izateko azalpenak eman zirelako. Zinez modalitate bitxia da, arau

harrigarri batzuk badituelako: aurkariaren eremua murriztu edo handitu daitekeela edo jokalariai aurkariaren eremuan sartzen ahal direla... Pilota modalitate hau ikasten ari den talde bat bada herrian. Astartetan elkartzen dira 19:00etan, eta taldea irekita dago, oraindik edozein animatuz gero.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

IBARGOYEN
AUTOMOTIVE SOLUTIONS

www.ibargoyen.net ☎ 943 616 587
Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN

Eguberrietako ospakizunen giroa sumatzen hasia da herrian

ARANTXA ETA IRAIA

Abenduaren eta urtearen finitzean giro berezi bezain polita izaten da herri guztietan. Urdazubin ere sumatzen da giro hau. Izan ere, eguberrietako argien paratzeak Olentzeroen etorrera hurbil dagoela erakusten du. Aurten ere Olentzero herrira hurbilduko da herriko ttipienen opari zerrenda hartu eta elkarrekin momentu goxo bat pasatzeko. Gainera, bigarren urtez, Mari Domingi ere etorriko da herrirat, Olentzero eta bien artean lanak errazago egiten baitira. Abenduaren 24an izanen da hitzordua plazan arratsaldeko zazpiak aldean. Hurrez gain, helduek ere zita berezia izanen dute eguberri hauetan. Abenduaren 30ean helduendako magia ikuskizuna izanen da kultur etxean 20:30ean. 3 euroko sarrera ordaindu beharko da.

Haurrendako besta

Haurrendako ere hilabete berezia izanik, abenduaren 9an haurren besta antolatu zuen herriko etxeak kultur etxean. Pontx pailazoaren emanaldia izan zuten eta ondotik Javier eta Ankak eskainitako magia ikuskizuna. Arratsaldea borobiltzeko merienda izan zuten.



Mendizaleak azaroaren 25eko ibilaldi hasieran. ARANTXA ETA IRAIA

Mendia, pilota eta bazkaria izan zuten azaroaren 25ean

Emakumeenganako indarkeriaren kontrako egunaren harira egitarau zabala prestatua zuen Ugarana elkarteak

ARANTXA ETA IRAIA

Joan den azaroaren 25ean, emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko egunaren kari, Ugarana ekamume elkarteak egun polita antolatu zuen. Goizean mendibaldia egin zuten Urdazubiko xokoak ezagutzeko eta eguerdian nesken arteko boteluze partidaz gozatzeko aukera izan zuten. Nesken lehen pilota partida izanik, ikusmin handia sortu zuen partidak eta jende andana hurbildu zen animatzera. Eguna borobiltzeko, Koxka jate-txean bazkaria izan zuten 40



Eskolan egindako marrazkia.

lagunek. Gauñara elkarteak ere urteroko bazkideen afaria antolatu zuen egun horretarako. Bazkideez gain hurbildutako lagunekin afari eta gau goxoa pasatu zuten elkarrekin.

Etxelekuko gasnak Lyoneren ere saria izan du

Joan den azaroaren 24an nazioarteko gasna lehiaketa ospetsua ospatu zen Lyoneren (Frantzia). Esnekien eta gasnaren kategorian lehiatu ondotik urrezko saria eraman zuen Etxelekua gasnategiak bere Bengotxea ardi gasnarekin. Zorionak berriz ere familia!

Alkerdi auzoko besta ospatu dute abenduaren 16an

Alkerdi auzokoek beraien urteroko besta antolatu zuten abenduaren 16an. Urte anitzez Burkaitzean edo Armuan egin zuten bazkaria, geroztik Montxon ere egin dute eta aurten Zugarramurdiko Azketan ospatu dute eguna. Beñat Mitxelena giro ederra jarri zuen.

Meza eta afaria izan dute Santa Luzia egunean

Ohitura den gisan, Santa Luzia eguna ospatu zen abendu hasieran. Abenduaren 13an izanik ere, larunbatarekin ospatu zen jostunen eguna. Mezaren ondotik (Zugarramurdin izan zen aurten) Ugarana elkarteak afaria antolatu zuen animatu zirentzat.

OTEIZA
ARKITEKTOAK
665 71 56 96 - 943 42 52 43
www.oteizaarquitectos.com

Apote Karrika 8 (Maskonea)
31730 - Irurita (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7^ºE
20004 - Donostia

oteizaarquitectos

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEOIAK
HILERRIAK
ZAHARBERITZEAK
GARBIKETAK
HARRI ZIZELKATZEA

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444
marmolessoule@gmail.com

Montxo
SATEKHEA - ERREBETEGIA
Tradizioa, historia eta gastronomia
asadormontxo.com

Akuler karrika, 12
31711 Urdazubi-Urdax (NAFARROA)
+34 848 85 00 21
info@asadormontxo.com



Sarako Izarra pilota elkarteak kideak eta pilotariak, *t-shirt* berriekin. GANEX

Urteko batzarra egin du Sarako Izarra pilota elkarteak

99 pilotari ari dira herriko pilota elkartearen, hamabi final jokatu dituzte aurten eta horietatik bortz irabazi

GANEX

Izarra pilota elkartearen biltzar nagusian 80 bat jende bildu ziren. Guy Mounho lehendakariak denei ongiatorria eman eta egin du urteko bilana: 12 final jokatu dituzte pilotariak eta horietatik bortz irabazi.

Denera 99 pilotari ari dira. Partidak Sarako eta Amotzeko trinketearen jokatzeko dituzte; ezker paretean Azkainen eta plazan eta Omordian, baita kiroldegian ere. Ainitzetan Jakes Iriarte dute jujea. Edukatzaileak, berriz, esku huska Pantxoia Olzagasti eta Daniel eta Mattin Mariluz; Xisteraka Guy Mounho.

Finalistei eta txapeldunei eman diete txeke bana eta pilotariak *t-shirt* berria hartu dute. Gero mintzatu dira udako ekitaldiez, ongi aritu direla bertze elkarteekin, baina aldaketa egin nahi dute bertze gisara antolatzeko.

Bruno Martín diruzainak eman ditu kontuak, lana ainitz egin behar dela baina ekitaldi horiek dirulaguntza handia ekartzen dutela. Herriko etxeak, lantegiak eta borondate oneko ainitzek ere laguntza eman dutenez, kontuak positiboan dituzte. Lehendakariak eskertu ditu denak eta ondotik izan dituzte pintxoak eta edatekoak.

Abenduaren 23an ailegatuko dira Olentzero eta Mari Domingi plazarat

Urtero bezala Olentzero eta Mari Domingi abenduaren 23an ailegatuko dira plazarat eta horren inguruan egitarau zabala prestatu dute. Larunbatean 16:00etan Kiki Bordatxok alaituriko krakada izanen da. Musika eta dantzak eta xokolate esne eta arno beroa

eta bixkotxak. Sarako AGA Zeko artista ttipien erakusketa. 17:00etan desfilea Suhariaga parkeraino. 17:30ean Olentzero eta Mari Domingi agurra eta kantuak. Errekiak, gaztainak eta goxokiak banatuko dituzte. 18:30ean Supitzen suak.



GANEX

Zangoak Arin elkartearen azken bazkaria

Zangoak Arin elkarteak egin du urteko azken elkarretaratzea bazkari eder batekin Zugarramurdiko Azketa jatetxean. 50 bat mendizale beren lagunekin baziren etorriak. Izugarrizko umore onean bukatu dute ateraldia. Bulegoak denak eskertu ditu eta urtearen bukaera denak ongi pasatzea desiratu du.



Hemezortzi mahai baziren ezarriak Eguberrietako merkatuan. GANEX

Eguberrietako merkatua egin dute San Josepe eskolako haur eta burasok

GANEX

Sarako San Josepe eskolako haurren burasok antolaturik egin dute Eguberrietako merkatua hazilaren 25ean. Larunbatean, egun guzian, Lur Berri gelan, 18 mahai baziren ezarriak.

Ikastolak ere bazuen eta gurasoek egina bat. Azkeneko honetan gauza guziak beraiek egina zituzten. Lan handia egina zuten, eta denak bazituzten gauza ederrak, partikulazki haurrentzat, zeren eguberriak hurbilduak baitira. Helduentzat ere baziren, denak bat bertzean bezain ederrak.

Urdazubiko Jabi magia egilea ere etorri zen, bere lagun Ankarekin. Izugarriko sorginkeriak egin zituzten eta ikusleen harridura sortu zuten behin eta berriz. Jende aunitz ibili zen, gauza horien ikusten eta erosten, eta dena aski ongi pasatu zen, kafe bero pixka bat edanez goxokiekin.

San Josepe eskolako buraso elkarteak denei eskerrak eman zizkieten: Herriko etxeari Lur Berri gela eder hori prestatzeagatik, baita burasoei eta borondate oneko jendeari ere. Segi horrela heldu den urtera arte.



'Ketariatik Mundura' nano pastoralak. JL BESSONART

Kattalin Elizalde ikastegiaren lehen besta egin dute

Abenduaren 3an Euskararen Eguna ospatu zuten eta 'Sorgintza kanpaina KEI' diru bilketa ere abian da

JL BESSONART

Amezpetuko bidean eraiki berria den Kattalin Elizalde Seaskaren kolegioak antolatua zuen bere lehen besta. Abenduaren 3a izanik, euskararen eguna ere ospatu zuten. Goizean kolegioaren bisita eta *Gaztelondo zer berri* errezitala izan zuten. Bazkari alaituak 200 kide bildu zituen eta arratsko *Ketariatik Mundura* nano pastoralak eman zion bukaera. Ate idekitzetik kanpo, xedea zen diru pixka bat sarraztea. Karia horretara *Sorgintza kanpaina KEI* diru bilketa kanpaina abian da.



Hiruka'ntuz haurrak kantari.

Hiruka'ntuz

Zaldubi ikastolak azaroaren 25eko antolatutako *Hiruka'ntuz* ekitaldiak 250 bazkaltiar eraman zituen Inharrira, behereko sala leporaino betez.

Herriko pilotarien kantu jaialdia abenduaren 27an elizan

JL BESSONART

Elizan ikusiko ditugu herriko SPUC elkarteko pilotariak urte hondarretan proposatzen duten kantaldi berezian, elizaren aterpean abenduaren 27an, asteazkenean, 19:00etan. Pilota eta kantua ongi uztartuz, errepertorio polita eskainiko

du herriko pilotari taldeak, haatik gaitzeko laguntza ukamen dute *Gurashow* emazte kantari ospetsuekin. Hauetan Amaia Riouspeyrous, Maider Cigarroa, Kattalin Indaburu, Maguy Mirande eta Philippe Albor musikaria ariko dira. Huts ezina.



Claude Errandonea zuzendari berria solasean. JL BESSONART

Santa Barbara suhiltzaileen besta eguna ospatu zuten abenduaren 3an Saran

JL BESSONART

Santa Barbara ongi ospatua izan da Sarako Lur-Berri salan, abenduaren 3an. Eguna goizeko mezarekin abiatua zen, handik landa ehun bat kidek parte hartu dute bazkari gozagarri baten inguruan. Jean Claude Errandonea zuzendari berriak, eskertu ditu lehen lehenik parte-hartzaile guzikiak eta bereziki Sarako herria, harrera ezin hobea eskainirik. Oroitarazi du, 70garren urtemuga ospatzen duela suhiltzaileen egiturak, berrikitan erretiratu den Julien Ubiria zuzendari ohiari ere eskerrak

emanez. Orotara 770 ateraldi eramanak izan dira, Zugarramurdi, Urdazubi, Ainhua, Zuraide, Sara eta Senpere osatzen dituen lurraldean. Hauetan, nola ez aipa, maiztaren 13an Herri-Urratsen bezperan, jasan diren uholde azkarrak. Zorionez denak onerak itzuli ziren biharamunetarako. 2023. urtean, formakuntza nabaritu izan da, hau beharrezkoa baita zentroaren segidatuzkotan.

Eskerrak, suhiltzaile talde indartsu honi, segi dezatela sendoki herritareri sokorrien ekartzen.



JL BESSONART

Kontari abesbatza elizan kantari

Landarbasoren haur kantari sekulako arrakasta izan zuten abenduaren 3an elizaren gerizan. 300 bat entzulek gozaldi ederra hartu zuten goi mailako errezitalarekin. Dohainik eskainia izanik ere, kapelua pasatu zuten eskuz-esku eta antolatzaileak harrituak gelditu dira lortu den emaitzarekin.



Beti Gazteko gizonzkoek irabazi dute lehen txapela, 680 kilokoa. UTZITAKOIA

Euskal Herriko bi txapel larunbatean jokoan Donezteben

Gizonzkoen 640 kiloko eta emakumeen 540 kiloko sokatira txapelketetako hirugarren eta hondarreko jardunaldia izanen da

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Euskal Herriko sokatira txapelketako bi txapel banatuko dituzte abenduaren 23an, larunbatean 17:00etan hasita Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan. Gizonzkoen 640 kiloko eta emakumeen 540 kiloko hirugarren eta hondarreko jardunaldia jokatuko dute. Aitzinetik, abenduaren 3an Elizondon eta hilaren 16an Busturian jokatu dituzte kategoriatuak jardunaldiak. Kategoriatuak, emakumezkoetan, borts talde ari dira: Amaiur, Beti Gazte, Abadiño, Badaiotz eta Ibarra. Gi-

zonezkoetan, berriz, Amaiur eta Beti Gazterekin batera, Abadiño, Ibarra, Murueta, Ñapurak eta Zuraide A eta B ari dira.

2024an sartuta, gizonzkoen 600 kiloko txapelketa (urtarrilaren 7an Berangon, 13an Oiartzunen eta finala 20an Gernikan), emakumezkoen

MUNDIALA OTSAILAREN 8TIK 11RA JOKATUKO DUTE SUEDIAN

Euskal Herriko iazko txapel-dunak, zazpi minutu eta 28 segundo behar izan zituen 50 koxkorak biltzeko. Bere gibeletik Estibaliz Messeguer (38 segundora), Nerea Huarte, Amaia Jimenez, Irantzu Onaindia eta Ane San Pedro sailkatu ziren.

Unai Iantzi eta Ainhoa Etxegarai lokotx biltzen Euskal Herriko txapeldun

TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko Koxkor Biltze Txapelketak abenduaren 6an jokatu zituzten Mungian (Bizkaia) eta Ainhoa Etxegarai beratarra eta Unai Iantzi aniztarra aise nagusitu ziren. Ainhoa Etxegarai Elgorriaga beratarrak, Nafarroako eta

500 kilokoa (urtarrilaren 7an Berangon, 13an Oiartzunen eta finala hilaren 27an Pobesen), gizonzkoen 560 kilokoa (jardunaldi bakarra ilbetzaren 27an Pobesen) eta txapelketa mistoa (lehen jardunaldia urtarrilaren 14an Lesakan eta finala 21ean Araban) jokoan izanen dituzte eta, bukatzeko, 23 urtez beheitiko txapelketa ilbetzaren 28an Berriozarren.

Behin Euskal Herriko lanak bukatuta, otsailaren 8tik 11ra Suediako Helsinborg hirian jokatuko da munduko txapelketa.

Lehen txapela Beti Gaztek

Euskal Herriko zortzinakako sokatira txapelketa azaroaren 26an abiatu zen Ezpeletan, gizonzkoen 680 kiloko txapelketa jardunaldi bakarrean jokatuz. Lesakako Beti Gazteko mutilek jantzi zuten txapela, tiraldi guztiak irabaziz. Lesakarren gibeletik Lapurdiko bi taldeak igo ziren podiumera: etxeko taldea, Ezpeletako Ñapurak bigarren izan zen eta Zuraide A hirugarren. Ondotik sailkatu ziren Amaiur laugarren, Abadiño bosgarren eta Zuraide B seigarren.

Beti Gazteko zortzikote txapeldunean Karmelo Mitxelena, Ander Mitxelena, Joxe Angel Mitxelena, Mikel Apeztegia, Beñardo Iantzi, Beñat Ordoki, Unai Gurrutxaga eta Julen Palenzuela aritu ziren tiran, Oskar Telletxea entrenatzaile eta Iñigo Altzugarai laguntzaile zituztela.

Bortzirietako eskuz banakako 23. txapelketa hastear

Bortzirietako Pilota Elkartek hogeita hirugarren aldiz antolatutako Bortzirietako eskuz banakako pilota txapelketa abenduaren 23tik 30era jokatuko dute. Zehazki, abenduaren 23an, 26an, 27an, 28an, 29an eta 30ean jokatuko dituzte partidak Arantzako, Berako, Etxalarko, Igantziko eta Lesakako pilotalekuetan. Kategoriatu guztietako finalak, berriz, abenduaren 30ean, urteko azken larunbatean 10:00etan hasita jokatuko dituzte Berako Eztegarra pilotalekuan.

Eskubaloi campusa eginen dute Beran urtarrilaren 2tik 5era

Aurten lehenengoz eskubaloi entrenamenduak egiten ari dira Beran Irungo Txingudi eskubaloi klubaren eskutik. Asteroko entrenamenduez gain, urtarrilaren 2tik 5era haurrentzako Eguberrietako campusa antolatu dute Toki Ona Kiroldogian, asteartetik ortziralerara 10:00etatik 13:00etara. Ikastaroa 2010etik 2015era bitartean jaiotako haurrei zuzendua dago, 8 eta 13 urte artekoak. 25 euroko prezioa du eta txingudieskubaloia@gmail.com helbidera idatzita egin behar da.



Iantzi eta Etxegarai txapeldun

Unai Iantzi Maritoren aniztarra ere aise gailendu zen. Bera zen Nafarroako eta Euskal Herriko azken txapelduna eta aurtengo txapela ere berak jantzi du. Sei minutu eta hamabortz segundoz bukatu zituen lanak. Bere ondotik Aitor Blanco (35 segundora) Aritz Martin, Jon Larrañaga, Jon Vegas, Patrik Saitua eta Guillermo Lopez gelditu ziren, hurrenez hurren.



Otxandorena eta Mitxeo txapeldun Ezkurra pilotalekuan. FOTO ZALDUA

Otxandorena eta Mitxeo txapeldun izan dira Donezteben

Erremonte fundazioaren binakako txapelketaren finala 29-35 irabazi zieten Ezkurra pilotalekuan Zeberio II.ari eta Barricarti

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Inor ez omen da profeta bere sorterrian, baina erranairu hori zapuztu dute Eloy Otxandorena eta David Mitxeo doneztebarrek. Izan ere, Euskal Jai Berri erremonte Fundazioak eta E•remonte enpresak antolatutako binakako erremonte txapelketako finala 29-35 irabazi zieten doneztebarrek Zeberio II.ari eta Barricarti azaroaren 25ean Doneztebe-ko Ezkurra pilotalekuan. Mitxeok bigarren txapela segidan jantzi du, hilabete eskasean. Sari banaketan, Nafarroako Pilota Federazioko Alfredo

Perez eta txapelketako babesle nagusia izan den Tejados Aoi enpresako Ramon Leatxerekin batera, Doneztebe-ko Udaleko Fernando Gallego eta Maider Iarregi zinegotziak izan ziren.

Eguberrietako buruz burukoa

Eguberrietako buruz buruko erremonte txapelketa-Martiko Sari Nagusia abenduaren 12an aurkeztu zuten Beran. Txapelketa honetan sartzeko hiruko partidak jokatu zituzten Agoitzen eta Donezteben eta Otanok eta Otxandorenak lortu zuten txartela.



Joseba Aldabe pilota astintzen profesioaletako debutaren egunean. ASPE

Joseba Aldabe pilotari igantziarrak profesioaletan debuta egin du

TTIPI-TTAPA IGANTZI

Joseba Aldabe Etxeberriak bi urteko kontratua sinatu du Aspe pilota enpresarekin eta abenduaren 8an egin zuen debuta Atano III.a pilotalekuan. 27 urteko igantziarrak Dario-ekin batera jokatu zuen Zabala eta Erostarberen kontra. Lehen partida horretan 8-18 galdu zuen. Abenduaren 13an jokatu behar zuen bigarren partidaren aurrelariak aldatuta aritzekoak ziren Urretxun.

Zazpi bat urterekin hasi zen Aldabe pilotan herrian eta 12 urterekin Berara joan zen, 14rekin Doneztebera eta 21ekin Iruñeko Oberena klubera. Garfe enpresan ere ibili da igantziarra. Urteotan hainbat garaipen eskuratu ditu, eta horien artean nabarmentzekoa da aurten munduko txapeldun izan dela eta Josetxo Etxandi Lezoko torneoaren ere irabazi

duela. 2021ean, berriz, Biharko Izarrak pilota txapelketan txapela jantzi zuen.

Kontatu duenez, ilusioz hartu du erronka: «Afizionatueta txapelketa aunitz jokatu ditut, baina abenduaren 8tik aitzinera espero dudana diferentia da. Erronka ilusionagarria da». Gehiago ere onartu du: «Niretzat pilota nire bizitza izan da eta nire bizitzako momentu aunitz eskaini dizkiot». Eta hala, argi du zein izanen diren bere lehentasunak hemendik aitzinera: «Jokin Etxanizen eskuetan jarri nahi dut ahalik eta gehien hobetzeko eta profesionalen partidetan maila ona emateko».

Ez ohiko adinean, 27 urterekin ailegatu zaio profesioaletan aritzeko aukera: «Esperantza galdua nuen; lana aldatu eta pilota uzteko nintzen» adierazi du.

Osasunak irabazi du ANELaren aldeko elkartean futbol torneoaren Elizondon

TTIPI-TTAPA ELIZONDO

Baztanek, Doneztebek, Osasunak eta Real Sociedadek parte hartu zuten abenduaren 6an AEA alboko esklerosi amiotrofiokoaren aldeko futbol torneoan. Doneztebek 0-3 galdu zuen Osasunaren kontra; Baztanen eta Realaren arteko

partidan 1-5 txuri-urdinak izan ziren nagusi; Doneztebek 4-0 irabazi zion Baztani eta Osasunak 2-0 Realari. Hala, Osasunarentzat izan zen txapelketa eta bildutako dirua ANELAra, Alboko Esklerosi Amiotrofiokoaren Nafarroako Elkartera, bideratuko dute.



Parte hartu zuten taldeak eta antolatzaileak Giltxaurdin. JUAN MARI ONDIKOL

ABENDUAK 21 - URTARRILAK 11

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



LEITZA Ekhi Huarteren 'Lehen pintura garaia' margo erakusketa

Bisita gidatua eta obren inguruko azalpena.
Herri Aretoan, abenduan 28an, 19:00etatik aurrera.

MUSIKA

LESAKA Lesakako eta Baztango Musika Bandak

Harriondoan, abenduaren 23an,
12:00etan.

Dios te salve

Harriondoan, abenduaren 31n,
arratsaldean.

LEITZA Jaione Olazabal eta Familia

Herri Aretoan, abenduaren 27an,
18:00etan.

Belako, Gorriontxu eta Laztana DJ

Atekabeltzen, abenduaren 29an,
22:30ean.

BERA Zotal total musika jaialdia

Katakun, abenduaren 29an.

Glin-glan, baserriz baserri kantari eta Dios te salve

Abenduaren 31n, 15:00etatik
aitzinerara.

SENPERE SPUC elkarteko pilotarien kantu jaialdia

Elizaren aterpean, abenduaren
27an, 19:00etan.

ELIZONDO Lesakako eta Baztango Musika Bandak

Lur aretoan, abenduaren 30ean,
12:00etan.

IKUSKIZUNAK

IRURITA 'Jauzi' Iruritako Dantzarien eta Koro Ttikiren ikuskizuna

Pilotalekuan, abenduaren 22an,
18:00etan.

Magiklown antzerki familiarra

Gizarte Bilgunean, abenduaren
29an, 17:00etan.

ELIZONDO 'Magma mia!' bakarrizketa

Arizkunenean, abenduaren
22an, 19:00etan.

LEITZA Go!azen

Herri Aretoan, abenduaren 23an,
18:00etan.

'Black is Beltza II: Ainhoa' filmaren proiektzioa

Atekabeltzen, abenduaren 26an,
19:00etan.

Albina Stardust eta Divina Comediaren drag show

Atekabeltzen, urtarrilaren 3an,
18:30ean.

Haurrentzako zinema

Herri Aretoan, urtarrilaren 6an
eta 7an, 17:00etan.

BERA Funbox Factoryren freestyle ikuskizuna

Toki Onako patioan, abenduaren
23an, 17:00etan.

URDAZUBI Helduendako magia ikuskizuna

Kultur etxean, abenduaren
30ean, 20:30ean.

AZOKAK

ELIZONDO Baztango Artisauak eta Zaporeak

Plazan, abenduaren 23an eta
30ean, goizez.

LESAKA Argitsu artisauen azoka

Abenduaren 23an, 10:00etan.

Merkatu Ttikia

Behoko plazan, abenduaren
30ean, 10:00etan.

BERTZELAKOAK

ELIZONDO Haurren garapen fisiko eta emozionalari buruzko solasaldia

Arizkunenean, abenduaren
27an, 11:00etan.

LESAKA 'Bizitzak salbatzea gure esku dago' erakusketa

Liburutegian, abenduaren 28ra
arte, astelehenetik ortziralerara
14:00etatik 20:00etara.

ETXALAR BTTaren aldeko mus txapelketa

Elutsan, abenduaren 30ean,
17:00etan.

Txokolatada eta ipuin kontalaria

Larraburur, urtarrilaren 6an,
17:00etan.

GOIZUETA Umore Onaren mus txapelketa

Elkartean, abenduaren 31n,
16:00etan.

«Entrenatzen, izerditzen eta lehiatzen disfrutatzen dut gehien»

OIER BERASATEGI ELIZONDO DONEZTEBEKO ESKUBALOILARIA



24 urteko doneztebar gaztea da Oier Berasategi, «herrikoa, kirolaria, kurioso eta bestazalea». Gasteizen bortz urtez ikasten aritu ondotik, «Doneztebera bueltatu naiz eta berriz herrian egoteaz disfrutatzen ari naiz. Kirolarekin harremana duen guztia» du gustuko, eta doktoretza tesia eta lana eskubaloiarekin uztartzen ditu.

10 urte inguru zituela hasi zen eskubaloian; «eskolako bi lagunek hasteko asmoa zuten, eta beraiekin batera animatu nintzen». Geroztik, kiroldegiz kiroldegi ibili da baloiarekin eskuetan.

Ibilbide paregabea

Lehia gustuko duela aitortu du, «entrenamenduaren opari moduan ikusten dut, norberaren egiazko abilezia eta trebetasunak garatzeko aukera. Momentu larri eta estuak

bizitzen dira, eta ohiko egoeratan behar ez ditugun ideiak eta erantzunak sortzen dira». Hala ere, «bere alde txarrak ere izan ditzake, horregatik da hain garrantzitsua kirolari gazteak lehiakortasun giro egokian hezte».

2018-19 denboraldia berezia izan zen Berasategirentzat, Nafarroako Eskubaloi Federazioak bigarren maila nazionalako jokalaria onenaren saria eman baitzion. «Denboraldi horretan, hasieratik bagenekien talde polita eta konpentsatua genuela. Harreman hagitz estua genuen eta bikain ulertzen genuen elkar jokalaria eta entrenatzaileek. Sentsazio hagitz polita genuen, denon burutan zegoelako entrenamendu eta partiduei ahalik eta etekin haundiena ateratzea. Horrela lortu genuen partidu guztiak irabaztea».

Hala ere, «ez nuen espero niri ailegatu zitzaidan sari hori, egiazko lana kolektiboa izan baitzen».

Hurrengo denboraldian, Iruñeko San Antonio taldera joan zen, estatu mailan jokatzerara. «Ilusio haundiarekin hartu nuen, talde lehiakor bat sortzen ari ziren eta proiektu polita zen. Jokalari berri aunitz ailegatu ginen eta partidu hagitz onak egin genituen, baina nahiko irregularrak ginen».

Lehenengo Nazional mailan, «taldea fisikoki prestatuagoak daude eta egun gehiago entrenatzen dira. Hori dela eta, eraso eta defentsako mugimendu aunitz automatizatuak dituzte, gehiago ailegaten dira laguntzetara eta baloia abiadura haundiagoarekin mugitzen da jokoan». Hala ere, «hasieran, uste baino alde ttikiagoa nabaritu nuen maila batetik bertzerara».

Ondoko bi urteetan, aldiz, «jokalari batzuk joan egin ziren eta ez ginen hain lehiakorrak. Partidu aunitz galtzea tokatu zitzaigun, motibazio galera ekarri zuena». Honez gain, «ikasketak egiten ari nintzen eta denbora aunitz pasatzen nuen desplazamenduetan, entrenamendu eta partiduetara joateko». Arrazoi horienatik «Errekara bueltatzeko erabakia hartu nuen».

Buelta etxera

Iruñean motibazioa galduta, Doneztebera bueltatu da denboraldi honetan, «eta lagunekin aritzean izugarri disfrutatzen ari naiz. Entrenamendu bakoitza gogoz hartzen dugu, partidu onak jokatzen ari gara eta jende aunitz etortzen da kiroldegira, hagitz giro polita sortuz».

Baina jokatzen ez ezik, entrenatzen ere hasi da kadeite mutilekin. «Hagitz talde polita da, ikasteko gogo haundiarekin. Momentuz kontent

nago, gogotsu etortzen dira entrenatzera eta ariketak geroz eta hobe egiten dituzte. Denbora eskatzen du, baina Txus, Joseba eta hiruak aritzen gara eta norbaitek joan ezin badu, badakigu gure artean moldatuko garela».

Entrenatzailearen helburua «gazteek eskubaloiarekin disfrutatzea da, pixkanaka beren gaitasunak garatzen dituzten bitartean. Hori erronka bat da». Izan ere, «jokalari ona izatea ez da nahikoa entrenatzaile ona izateko, bertze eza gutza eta baliabideak ere behar dira; kirolaren kontzeptuak ezagutu eta transmititzeko gai izatea, taldea kudeatzen jakitea, ikasketa prozesuak kontrolatzea eta planifikatzea... hori guztia ez da jokalari ona izatearekin lortzen».

Azaldu duenez, «oraindik ez dut esperientzia haundirik entrenatzen eta hobetzeko tarte haundia dago, baina ilusioarekin hartu dut». Hala ere, «momentuz jokatzen disfrutatzen dut gehien: entrenatzen, izerditzen eta lehiatzen».

Oroitzapen ederrak

Eskubaloiak «hainbat adinetako lagun pila bat eman dizkit, eta harreman sozialak sustatzeko botere ikaragarria du. Bidaia batzuk ere egin ditut eskubaloiarekin, oroitzen ederrak eman dizkidatenak. Poztasun haundiarekin gogoratzen ditut taldekideekin lortutako garaipenak, galdu ondoko ikaskuntzak, egindako afariak...».

Etorkizunera begira, «disfrutatzen segitzen dudun bitartean, Errekan jokatzeo asmoa dut. Bertzalde, esku artean dudun tesia bukatu eta irakasle moduan lanean hastea gustatuko litzaidake. Bitartean, inguruko pertsonekin denbora pasatu, buruan ditudan bidaiak egin eta esperientzia berriak bizi nahi ditut».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN HARTZEKO

BAZTAN. Elizondo inguruan, baserri, etxe edo pisua errentan hartu nahi dute. ☎622 40 21 95.

GARAJEAK/LOKALAK

SALGAI

BERA. Bidasoa karrika 3. postetxeko sotoan, bi garaje salgai. ☎647 58 88 51.

LANA

ESKAINTZAK

LEITZA. Torrea Herrikoan sukaldari bat behar dute. Interesatuak bidali curriculuma: Torreaherrikoa@ni.eus.

ESKARIA

Neska bat interna ariko litzateke. ☎667 22 17 51.

ANIMALIAK

OPARITZEKO

BERA. Katuak oparitzeko. ☎662 20 25 35.



BAZTAN. Bi hilabeteko zakurkumeak oparitzeko. Ama mastina eta aita euskal artzaina. ☎650 02 46 95 / 696 17 31 11.

Ama Border Collie duten zakurkumeak oparitzeko. ☎690 15 46 44.

SALGAI



GOIZUETA. Betizuak salgai, sasoi-koak eta eskura eginak. ☎655 70 60 73.

DENETARIK

SALGAI

Motoan ibiltzeko ekipazioa (kaskoa, botak, galtza, kazadora...) eta hesbeteteak mozteko makina salgai. ☎610 94 35 88.

Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko sua-

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik



rendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.



UPPA BABY CRUZ silleta eta kapazoa salgai, 2021ean erosiak. Oso egoera onean. Motxila eta aulkia babesteko funda aukeran. Ikusteko eta prezioaz solastatzeko deitu. ☎678 29 50 18.



Egongelako egurrezko altzariak salgai. Egoera onean. ☎696 28 73 28.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,33 €
- 1.koa 5,21 €
- 2.koa 5,09 €

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,44 €
- 1.koa 5,30 €
- 2.koa 5,19 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00 €
- Idixkoak 210,00 €

Aretze nabarrak

- Urruxak: 90,00 €
- Idixkoak 50,00 €

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 5,40/5,50 €
- Zaldi-behorrak 2,52/2,69 €

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 11,60/11,70 €
- 8-10 kilokoak: 8,90/9,60 €

ZERRI-AZIENDAK

- **Zerrikumea** (19 kilo): 80 €
- **Zerri gizona** 1,589 €
- **Zerramak** 0,840€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua abenduaren 1etik 8ra bitarteko prezioak)

ZERBITZUAK

ZURGIN LANAK

ARANTZA ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea - ARANTZA
647 810 144 - 626 093 181

MOTORRAK

SALGAI



RENAULT CLIO
TCE 75 CV
2018 urtekoa - 41.500 km
11.700 €

www.talieressantesteban.com

DCNEZTEBE - T. 948 450 282
info@talieressantesteban.com



744 484 361

ttipi-ttapa



www.kulturkari.com

Tiketak eta boletoak

Zozketak, tonbolak,
sarrerak, loteria...

Paperean, grapatuak,
taloetan...



URTEBETETZEAK



Xabat Huici Blanco leitzarrek 5 urte bete ditu azaroaren 23an. Zorionak **Xabat**, dagoeneko 5 urte!! Etxeko ttikia haunditzen ari zaigu. Maite zaitugu. Aitaxo, amatxo eta Aynur.



Arraiozko **Oinat Arraztoa Agerreberek** 8 urte bete ditu abenduaren 15ean!! Aunitz urtez familia guziaren partetik, baina batez ere zure arreba Aioraren eta Urko anaiaren partez!! Aupa txapeldun!




Goizuetako **Maddi Apeztexea Alzugaraik** bi urte beteko ditu abenduaren 26an. Zorionak eta aunitz urtez Gaztelukoaren partez. Muxu bat!




Donamariako **Egoi Ariztegi** 5 urte beteko ditu abenduaren 27an. Aunitz urtez familiaren eta bereziki zure anaia Oinatzen partez. Prestatu bizkotxo ea!!



Ekai Zubiri eta **Maddi Apeztexea** abenduaren 13an eta 26an, hiru eta bi urte beteko dituzte, zorionik goxoena Anerren partez!!



Erdi Igantzikoa eta erdi Sunbillakoa den **Anartz Arrieta Urtzegik** bere lehenbiziko urtea bete du abenduaren 3an. Zorionak mattia, muxu erraldoi bat *attatto*, *amatto* eta gehienbat Iraitz anaiaren partetik.



Igantzikoa **Jon Aranguren Irigoienek** 11 urte beteko ditu urtarrilaren 14an. Zorionak eta aunitz urtez zure arreba Haizearen, gurasoen eta amatxien partez. Hagitz ongi pasatu eta ospatu zure eguna, muxu potoloak gure partetik!!!



Xuban Iruretak 4 urte beteko ditu urtarrilaren 7an eta ataubix abenduaren 30an urteak beteko ditu. Muxu handi bat denen partez eta bereziki Olaiaren partetik. Merienda goxo-goxoa prestatu!!!



Gorka Etxarte Abuin lesakarrak 6 urte bete ditu abenduaren 15ean. Zorionak familiaren partez, eta bereziki Silbia arrebaren partez.

HILBERRIAK

- **Teresa Mindegia Garro**, Beintza-Labaiengoa, azaroaren 23an, 91 urte zituela.
- **Francisco Jesus Obregozo Bergara**, Iruritakoa, azaroaren 27an, 79 urte zituela.
- **Jesus Zabaleta Azpiroz**, Leitzakoa, azaroaren 27an, 81 urte zituela.
- **Frantxiska Iriarte Navaz**, Sunbillakoa, azaroaren 28an, 97 urte zituela.
- **Juana Maria Frantzesena Igoa**, Elizondokoa, azaroaren 29an, 79 urte zituela.
- **Santos Maria Etxekolonea Indakotxea**, Zubietakoa, azaroaren 29an, 83 urte zituela.
- **Manuela Ubiria Altuguren**, Lesakakoa, azaroaren 30ean, 97 urte zituela.
- **M^a Luisa Urtxegi Egozkue**, Berakoa, abenduaren 1ean, 58 urte zituela.
- **Angeles Mikelarena Bertiz**, Lesakakoa, abenduaren 2an, 89 urte zituela.
- **Ana Gozelda Segales Careaga**, Elizondokoa, abenduaren 2an, 49 urte zituela.
- **Ramoni Loiarte Aranburu**, Berakoa, abenduaren 3an, 93 urte zituela.
- **Matilde Sanjurjo Lizardi**, Berakoa, abenduaren 4an, 94 urte zituela.
- **Jose Maria Oiaregi Mendikoa**, Elizondokoa, abenduaren 4an, 89 urte zituela.
- **Jose Antonio Labaien Saralegi**, Leitzakoa, abenduaren 6an, 74 urte zituela.
- **Vicente Telletxea Arregi**, Elizondokoa, abenduaren 7an, 93 urte zituela.
- **M^a Isabel Peñiña Mendizabal**, Elizondokoa, abenduaren 7an.
- **Jose M^a Larrea Abad**, Aresokoa, abenduaren 7an.
- **Antonio Saldias Agesta**, Urrozkoa, abenduaren 8an, 87 urte zituela.
- **Agustin Dagerre Martinez**, Berakoa, abenduaren 9an, 93 urte zituela.
- **Rafa Irisarri Martikorena**, Elbetekoa, abenduaren 9an, 52 urte zituela.
- **M^a Luisa Zubigarai Mitxelena**, Lesakakoa, abenduaren 10ean, 67 urte zituela.

IRACHE

tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA

Trasladoak Irufea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

948 63 74 04 / 948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

URTEURRENA

**Perpetua
ARBURUA ITURRIA**

Etxalarren, 2019ko abenduaren 11n,
92 urte zituela
IV. URTEURRENA

*Ama, amatxi maitea,
betiko joan zara
baina bizi garen bitartean
zutaz oroituko gara.*



ZURE FAMILIA

URTEURRENA

**Paquita
URTIZBEREA ETXABIDE**

1944/08/09-2018/01/09
VI. URTEURRENA

*Urteak pasatu diren arren,
gurekin izanen zara beti,
Paquita.*



ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

**Francisco Jesus
OBREGOZO BERGARA**

Iruritan, 2023ko azaroaren 27an

*Eman eta erakutsi diguzun guztiagatik,
opari bat izan zara.
Betiko gure bihotzetan.*



ZURE FAMILIA MAITEA

OROIGARRIA

Frantxiska IRIARTE NAVAZ

Sunbillan, 2023ko azaroaren 28an, 97 urte zituela

*Bizi luzea eta istorioz betea izan da zurea,
maingu baina beti zutik.
Zuk ontasunez ereindako bide horretan,
segituko dute gure bihotzek elkarturik.
Eta hainbortze aldiz erraten zenuen bezala
Frantxiska, ez da musik, hordago baizik.*




ETXEKOAK

URTEURRENA

**Mike
IBARRA DENDARIETA**

2022ko abenduaren 16an
I. URTEURRENA


*Zein erraza izan den zu maitatzea,
ez zaitugu inoiz atzenduko.
Betiko gure bihotzetan.*



ZURE FAMILIA

Oroigarriak

- Pertsonalizatuak, bikoitzak edo sinpleak...
- Gutun-azalekin entregatzen dira



KULTURKARI
Diseinu grafiko | Publizitatea
www.kulturkari.com
Tel. 948 63 54 58



BAZTAN BIDASOA
Heriotza Zerbitzuak

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko



IZARRA
HENEN ZURE OROIGARRIAK AINUA ETXAN

Gure barna, gure jendea, gure sustraiak




TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
948 05 90 90 | www.izarratanatorio.com



Onegia da botatzeko



residuos de navarra
nafarroako hondakinak

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



Bazenekien...?

Jatetxe bakoitzak menuetatik datorren elikagai-xahuketa kopuru handia botatzen du. Kalkuluen arabera, 3.000 euro inguruko balioa duen kopurua doa urtero zuzenean zaborretara.

Elikagai bakoitza onegia da botatzeko!

NIK
ERAMANGO
DUT



Kanpainan parte hartzen
duten jatetxe batzuk.

**Eskatu zure
taperra jatetxean
eta ez sortu
elikagai-xahuketarik**



PLAZAN BAZAN

IRUDI ENGAINAGARRIAK

Zenbatuta dauden zatitxo hauen arteko erdiak iruditik hartuta daude, eta beste erdiak engainagarriak dira. Bereiz itzazu.



Murrizkiaz Garbifit Ubeda (Alumni)

Logintzailea:

ibaizabal

Plazan bazan egiteak BADU SARIA!

Egin denbora-pasak, eta bidali argazkia emaitzekin urtarillaren 1a baino lehenago, Ttipi-Ttapako Whattsappera: (0034) 744 48 43 61 zure izen abizenak jarrita. Ondoa duzun sortaren zozketan parte hartuko duzu!



INTERNETEN ERE BAI!

<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

ALDEA DAGO!

Erreparatu ongi bi irudiei eta markatu bien artean dauden aldeak. 20 dira guztira.



ITZALA

Zein da izeiairen itzal zuzena?



EGUBERRIETAKO DOMINOA

Osatu zuriuneak domino zati honek zentzua izan dezan.



